



## BADATOR TAO ARRASATERA

Abenduaren 4an jarriko dute TAO zerbitzua Arrasaten. Mugikortasun jasangarriantzko bidea indartzea da helburua, eta erdiguneko aparkalekuetan errotazioa bultzatzea. / 10

Arrasateko Otalora Lizentziaduna kalea, erdiguneko aparkaleku gehien dagoen gunea, eguaztenean. XABIER URZELAI



**Movimento Sem Terrako zortzi brasildar, Mondragoneko enpresetan bisitari** / 4

**Juan Karlos Irizar omenduko dute Oñatin domekan, Musikegunak egitasmoaren barruan** / 37

**Peru Rodriguez futbolari antzuolarrak debuta egin du Bigarren Mailan Sanserekin** / 39

### SINADURAK



**60 urte bete dira Vasco-Navarro trenaren istripu lazgarria gertatu zela Leintz Gatzagan** / 23



Arrakasta, boluntarioen eskutik

Matthew Barraclough-i elkarrizketa

## BLACK FRIDAY

%20ko deskontua  
betaurreko graduatuetan  
+  
2. betaurreko osoa  
opari



Kontsultatu optikan konpainiaren ezaugarriak.

Otalora Lizentziaduna, 18  
943 79 29 95  
ARRASATE

Ibargarai, 16  
943 76 15 75  
BERGARA

www.multioplicas.com


**MULTIÓPTICAS**  
50 urte zuen ikusmena zaintzen



**KORONABIRUSA**

**Intzidentzia-tasaren eboluzioa**

DATUEN ITURRIA: EUSKO JAURLARITZA ETA NAFARROAKO GOBERNUA



**Positibo kasuak eta intzidentzia**

	Positiboak aste honetan	Positiboak aurreko astean	Positibo metatuak	Positiboak biztanleekiko	Intzidentzia tasa 14 eguneko, 100.000 biztanleko
Bergara	39	15	1.937	%12,88	<b>359</b>
Antzuola	28	12	349	%16,02	<b>1.835</b>
Arrasate	28	30	3.623	%16,41	<b>262</b>
Oñati	11	12	1.744	%15,21	<b>200</b>
Aretxabaleta	7	8	1.001	%14,14	<b>211</b>
Eskoriatza	6	1	540	%13,16	<b>170</b>
Elgeta	3	2	91	%8,05	<b>442</b>
Aramaio	0	0	245	%16,55	<b>0</b>
Gatzaga	0	0	16	%6,40	<b>0</b>
<b>DEBAGOIENA</b>	<b>122</b>	<b>80</b>	<b>9.546</b>	<b>%14,73</b>	<b>311</b>

OHARRA: EGUAZTENERA ARTEKO DATUAK

ITURRIA: OSASUN SAILA

**Uxue Igarza Loiola** DEBAGOIENA

Azken asteetako joerari utsiz, koronabirus kasuak gora egin dute oraingoan ere bailaran. Azken zazpi egunetan 122 positibo baieztatu dira Debagoiengan –aurreko astean baino 42 gehiago-. Gainera, azpimarratzekoa da aste honetan lau egunetan hauteman direla hogeit hamar positibo baino gehiago. Abuztuaren 24az geroztik ez da eguneko hogeit hamar positiboen langa gainditu. Gauzak horrela, intzidentziak ere gora egin du, eta 311,68koa da eskualdeko tasa orokorra; abuztuaren 19tik erregistratu den datu okerrena da.

Bestetik, Debagoieneko Ospitalean lau lagun daude koronabirusaren eraginez ingresatuta.

# Azken egunetako datuek abuztuko testuinguruan kokatu dute eskualdea

122 positibo hauteman dira azken zazpi egunetan Debagoiengan, eta lau egunetan gainditu egin da hogeit hamar positiboen langa. EAEn ere gehitu egin dira kasuak, eta goranzko joera eteteko bi proposamen helarazi ditu Osasun Sailak aste honetan

**Jarduerak, udalen esku**

Martitzenean iragarri zuen Go-tzone Sagardui Osasun sailburuak pandemiaren bilakaera

epidemiologikoa ez dela "ona", eta, hortaz, neurriak hartzea komeni dela. Halere, Osasun Sailak ez ditu orain arte hartu-

tako neurri murriztaileak iragarri; positiboen gorakada eteteko beste bi proposamen egin ditu Sagarduik. Alde batetik,

eskaera zuzena egin die 150etik gorako intzidentzia-tasa duten herrietako udalei: prebentzio neurriak bermatu ezin diren jarduera eta ekitaldiak etetea; batez ere, jan-edana tarteko dutenak. Halaber, barruko zein kanpoko ekitaldietan "neurriak zorroztea" ere eskatu die, besteak beste, "espazioak handituz, ekin-tzak kanpoan antolatuz edota jendearen joan-etorrirako bideak ugarituz". Eta bestetik, Jaurlaritzak EAeko Auzitegi Nagusiarri eskatu dio zenbait establezimendutan sartzeko Covid ziurtagiria aurkeztu behar izatea. Hori onartuz gero, 22:00etatik aurrera, ziurtagiriarekin bakarrik egon ahalko da diskoteka, musika-taberna edota 50 jankidetik gorako jatetxeetan.

# BETI ZUREKIN

Bertako Igogailuak-ekin, urteko 365 egunetan  
24 orduz izango duzu gure zerbitzua.  
**Salbuespenik gabe.**

- ZURRA JAUSITAKO OBJEKTUAK BERRESKURATzea
- HARRAPATZE EGONRAK
- IGOGAILUAKO ZARATAK
- 365/36/7

**ARABA**  
945 712 822

**GIPUZKOA**  
943 903 450

**BIZKAIA**  
946 523 935

**NAFARROA**  
848 870 917

**bertako**  
igogailuak | ascensores

www.bertako.eus

# "Pertsonak eta talentua ditugu epizentroan"

Debagoiengan Antzuolan eta Bergaran kokatuta, 60 urte dira lau ekintzaile gaztek gaur egun Erreka kooperatiba dena martxan jarri zutela. "Berrikuntza plataforma ireki, arin eta malgu bihurtzeko helburua" dutela dio Antton Tomasena gerenteak

**Julen Iriondo M. de Zuazo** ANTZUOLA Hemendik kanpo, Txekiar Errepublikan, Mexikon eta Txinan ere baditu egoitzak Errekak: 450 langiletik gora, 3.000 bezero eta salmentak 50 herrialdetan; fakturazioa, 60 milioi euro. Betetako urteak ere, 60; eta gaur zortzirako dute iragarrita ospakizuna: Mondragon Taldeko zein kooperatibako arduradunen hitzaldiak, ikus-entzunezkoak, langileen arteko lehiaketa -jolasean-, musika eta jan-edana.

60. urtemugarekin batera, 2021-2024 aldirako plan estrategiko berria martxan du Errekak; honela definitzen du Antton Tomasena gerenteak: "Bost ardatz estrategiko ditu: dibertsifikazioa, berrikuntza irekia, internazionalizazioa, digitalizazioa eta hazkunde jasangarria. Bioteknologia, *silver economy* delakoa [50 urtetik gorako pertsonen beharrak asetzera bideratutako aktibitatea], sarbideen kudeaketa, mugikortasuna eta aeronautika sektoreak izango dira dibertsifikazio planaren ardatzak. Plan berriak pertsonak eta talentua epizentroan izaten jarraituko du, Erreka berrikuntza plataforma ireki, arin eta malgu bihurtzeko helburuarekin".

Koronabirusarekin eta beste-lako faktoreekin gaur egungo



Antton Tomasena gerentea, lantegian. ERREKA

panoramak dituen zailtasunak zailtasun, Errekako arduradunek uste dute gai izango direla, lehenago egin zuten bezala, eraldatu eta egokituz aurrera egiteko: "Kultura kooperatiboaren barruan, Errekako kolektiboa eraldaketaren kontzeptua azkar barneratzen ari da".

## Bilakaera

1961ean, torlojugintzan hasi ziren Lucio Agirrezabal, Inaxio Aristi, Julian Alberdi eta Asensio Azkarate gazte ekintzaileak, Bergarako Masterreka kalean.

Plastikora ere jauzi egin eta takioiak eta zapatentzako tapak egiten hasi ziren 1968an. 1982an, berriz, automatismoen negozioarekin hasi ziren -ateak,...

Enpresa proiektua abiarazi zuten lauren artean, Azkarate bizi da gaur egun. Urtemugako ekitaldian emango duten ikus-entzunezkoarako hainbat pasarte eta gogoeta grabatu zizkieten: "Antzuolan, Zurrategiak egon ziren garaian bazen mugimendu apur bat lan kontuan, baina haiek itxi zirenean ez zen han ezertxo ere geratu. Jendeak irten



Antzuolako lantegia, 1966an, Matz-Erreka garai hartako izenarekin. ERREKA



Asensio Azkarate, Bergarako lantegi aurrean. ERREKA

egin behar zuen herritik: Sorluzera, Eibarrera, Zumarragara, Bergarara... Kooperatibak sortzen hasi ziren orduan; Arizmendiarrrieta, Ulgor, Fagor... Antzuolan ere Goizper hasi zen, lehenengo kooperatiba. Guk ez genuen ezagupen handi-handirik, baina geure gauza haiek egiten bagenekien, eta esan genuen: 'Zergatik ez dugu kooperatiba bat sortu eta egoera apur bat hobetzen laguntzen?'.

Gaur egun Erreka zer den ikusita, harro dago: "Ez nuen uste tamaina hau hartuko zue-

nik; eta izugarri pozten naiz. Niretzat bi gauza egon dira beste gauza denen gainetik: familia eta Erreka; oraingoz, behintzat, biak ondo doaz!". Eta langileei diotse har dezatela enpresa euren den modura: "Eurena da, izan ere. Zeuena da!".

**ASENSIO AZKARATE:  
"EZAGUPEN HANDI-HANDIRIK EZ GENUEN, BAINA GAUZA HAIK EGITEN BAGENEKIEN"**



**abiātu**

**A-636 Beasain-Bergara**

autobian ere bai,  
**askoz gehiago!**

**AURREZ AURREKO INFORMAZIOA**

BIDEGIK A-636 autobideko bidesari berriari buruz informazioa emateko eta ABIATU gailua tramitatzeke gaitu dituen informazio-puntuak:

- **ANTZUOLA** Azaroak 22. Udaletxean.
- **BERGARA** Azaroak 23-24. Ondartzan-AP-1 (Goizez) Udaletxean (Arratsaldez)

Ordutegia: 9.30-13.30 / 16.00 - 20.00



**ERRAZTASUN  
GEHIAGO**



**AURREZPEN  
HANDIAGO**



**INBERTSIO  
HANDIAGO**

**Informazio gehiago:** info@bidegi.eus / 943 105 106 / GI-20 - KP / PK 14,800 - Aritzeta-Usurbil

# Emankorra izan da MSTko kideen egonaldia

Mundukidek gonbidatuta eta Gehikoop proiektuaren barruan, Movimento Sem Terrako Brasilgo lau kooperatibatako zortzi lagunek Mondragon Taldeko hainbat enpresa bisitatu dituzte, eta esperientziak eta ikaskuntzak elkarrekin partekatu

**Julen Iriondo M. de Zuazo** ARRASATE Munduak dituen erronka asko globalak izanda, leku bakoitzean ematen diren erantzunak ezagutzeak eta konektatzeak hango zein hemengoei mesede egin diezaiekeela eta, bi urte daromatxate lankidetzan MSTko lau kooperatibak eta hemengo beste hainbestek. Ederlan, Maier, Copreci eta Arizmendi ikastolarekin landu dituzte parte-hartzea, printzipio kooperatiboak, genero-desberdintasunak eta iraunkortasun ekologikoa. Horrekin batera, kooperatiba-bikoteak osatu dituzte erronka teknikoetan ere lan egiteko; adibidez, merkataritza plangintza egiten lagundu diete hemengoek hangoei.

Orain, berriz, hamar eguneko egonaldia egin dute MSTko ordezkariak Euskal Herrian; amaituta, oso balorazioa positiboa egin dute, eta prozesua biziberritzeko eta aurrera begiratzeko abiapuntua izan dela adierazi.

Ederlaneko Cesar Bastardoren arabera, "eraldaketa sozialaren ikuspegia zabaldu ahal izateko" da eurentzat baliagarri harreman hau: "Kooperatiba gisa sistema kapitalistan jardutean ditugun zailtasun eta erronkei buruz eztabaidatzeko". Etorkizunera begira, elkarlanarekin jarrai-



MSTko, Mundukideko eta Ederlaneko ordezkariak, eguaztenean. JOSUNE BLANCO

## Brasildik bada zer ikasi

Zer ikasi soilik hangoek hemengoengandik dutela pentsatzea zuzena ez dela dio Ederlaneko kide Cesar Bastardok: "Metodo edo prozesu arloan guk asko dugu emateko, ziur aski; baina motibazio eta mobilizazio arloan asko dugu ikasteko Brasildik". Bastardok animatu ditu Mondragoneko beste kooperatiba batzuk ere Gehikoopen parte hartzera.




MSTko kideak Ederlanen bisitan. MUNDUKIDE

tzeko asmoa du Ederlanek, proiektuan parte hartzen duen pertsona taldea indartzen saiatuta; orain arte egindakoa eta asmo berriak kooperatiban gizarteratzea ere nahi dute.

Bestalde, MSTko kide Daniel Manciok nabarmendu du Brasilen Mundukiderekin duten elkarlana indartu egiten dela halako bisita eta esperientzia trukeekin; Mondragoneko kooperatibetan ematen duten laguntza teknikoaren –batez ere, kudeaketa arlokoa– osagarri direla Arrasateko kooperatibak bertatik bertara ezagutzeko bisitak. Manciok azaldu du MSTren helburua dela nekazaritza-erreformaren bitartez pertsonen bizi baldintzak hobetzea.

Coopan kooperatibako bazkide Indiane Witcel Rubenichek, berriz, oso positibo jo du Coprecirekin izandako trukea, hasten ari diren negozio-ildo berrirako merkataritza-estrategien eta merkataritza-prozesuaren kudeaketarako lanketarako. Datoren urtean hemengo kooperatibetako ordezkariak Brasilen hartzeko asmoa dute.



2019ko edizioa. IMANOL SORIANO

## Bailarako Movemberreko kideak, Elorregira

Mokadutxoa eta musika izango dituzte Antzuolako, Bergarako, Oñatiko eta Arrasateko lagunek

**J.I.M.Z.** ARRASATE

Movember ekimenarekin bat egin dutenak Elorregira deituta daude biharko, zapatua. 11:30ean da hitzordua, eta DJ Menezek izango du topaketa girotzeko ardura; salda eta txorizo pintxoak banatuko dituzte, euro batean eta bian, hurrenez hurren. Horrekin batera, materiala –motxilak, txapak, maskarak, kamisetak...– egongo da salgai. Jan-edanarekin zein materialarekin ateratako dirua gizonezkoen minbiziekin lotuta ekimenak dituen helburuetarako izango da. Antolatzaileek eskatu dute Elorregira oinez, bizikletaz... joateko.



## IRAKURKETA JASOA, ULERMEN OSOA

ONDO IRAKURTZEN EZ DAKIENAK, EZ DAKI IKASTEN

**Hitzaldia:** Gorka Aurre

**Tokia:** Garaia Parke teknologikoa, Arrasate

**Eguna:** Azaroak 23

**Ordutegia:**

09:00etatik 11:00etara ikastetxe eta komunikabideendako  
18:00etatik 20:00etara irekia pertsona guztiendako



lekturalia.com

**lekturalia**

# Bihar Bilbora joateko dei egin du EH Bilduk

Autobusak izango dira Debagoienetik bihar, zapatua, 'Aske eta berdin Euskal Herria lortu arte!' leloarekin Bilbon egingo den manifestazio nazionalera joateko. Ezkerreko koalizio soberanistak antolatutako martxa 17:30ean abiatuko da, Casillatik

**Julen Iriondo M. de Zuazo** ARRASATE EH Bilduk "Bilboko kaleak betetzera" gonbidatu ditu "berdintasunean oinarritutako Euskal Errepublikan liberean eraikuntzan aurrera egin behar dela uste duten euskal herritarrak". Adierazi dutenez, "independentziaren, politika publiko eta sozial aurreratuen eta euskal presoen eskubideen aldeko manifestazioa" izango da. Koalizioak nabarmendu du ez dela "beste manifestazio bat" izango, eta gogora ekarri pandemia hasi zenez gero antolatu duten "lehen mobilizazio handia" dela, eta "euskal komunitate independentistaren berrelkartze bat", beraz.



Manifestaziora joateko dei egiteko Oñatin ateratako argazkia. OÑATIKO EH BILDU

"Ahuldu eta desagerrarazi nahi duten komunitatea delako gurea, ezkerreko independentismoa gorpuztu eta errotzen duena. Ultraeskuin faxistari, publikoaren pribatizatzailei, prekaritatearekin errezeta bakartzat dutenei, munduaren etorkizuna errausten dutenei, euskara desagerrarazi nahi dutenei eta, finean, euskal herritarron eskubideak murrizten dituztenei aurre egiten dien komunitate konprometitu, askatzaile eta berdinzalea"; horregatik guztiagatik, oso garrantzitsu jo dute "independentismoa ahul dagoela esaten duten guztiei oso erratuta daudela" erakustea. "Nazio librea, justua, feminista, ekologista, antifaxista, euskalduna eta baketsuarekin konprometituta gaude".

## Bilborako autobusak

Izena emateko, Inkernura jo behar da Eskoriatzan; Urbaltzera, Aretxabaletan; Taupara edo Iratira, Arrasaten; Arranora, Oñatin; Arranora edo Pol-Polera, Bergaran; Haizeara, Elgetan; eta Aitz Garbira, Antzuolan. Bazkalostean aterako dira autobus guztiak.

## Gaur hasi eta hilaren 25era arte, elikagai bilketa handia

Gaur, egubakoitza, hasiko da Elikagai Bankuaren urteko bigarren bilketa handia. Gaurkoa eta biharkoa izan ohi dira, berez, egunik indartsuenak, nahiz eta, iraun, hurrengo eguenera arte iraungo duen kanpainak. Oraingoan ere, "osasu egoera dela-eta", laguntza bonuen bidez bakarrik jasotzea erabaki dute.

Aurten iaz baino kopuru txikiagoak ari da jasotzen Elikagai Bankua, Joxemari Beitia kidearen arabera: "2020ko udaberrian jasotakoaren %44 baino ez dugu lortu aurtengo udaberriko janari bilketan". Zehazki, 2.000 elikagai tona baino gehiago lortu zituzten aurreko urtean Gipuzkoan. Beraz, kopuru horietara hurbiltzeko, oraingo kanpainan herritarren aparteko erantzuna jasotzea komeni zaiela nabarmendu dute.

2021ean, 3.000 tona elikagai baino gehiago banatuko ditu Gipuzkoako Elikagai Bankuak, 21.000 pertsona ingururen beharrei erantzunez.

## ETORKIZUNA ERAIKIZ CONGRESS

*Building the Future*

**Kursaal**  
Abenduak  
13-14  
2021

Kongresu honen xede nagusia Etorkizuna Eraikiz ekimena nazioartean aurkeztea eta kontrastatzea da. Izan ere, Etorkizuna Eraikiz gobernantza irekia eta lankidetzazkoa ulertzeko eta ezartzeko modua da. Gipuzkoa Foru Aldundiak sustatua eta finantzatua, Euskal Herriko Unibertsitatearen, Deustuko Unibertsitatearen eta Mondragon Unibertsitatearen parte-hartze aktiboarekin. Hauek dira Kongresua antolatu duten lau erakundeak.



Izen-ematea:  
[www.etorkizunaeraikizcongress.com](http://www.etorkizunaeraikizcongress.com)



# Kamioi bete elkartasun Debagoienetik Greziara

Zaporeak elkarteak oinetakoak jaso ditu Euskal Herriko hainbat herritan, Greziako kanpalekuan dauden errefuxiatuei bidaltzeko. Gurera etorrira, Antzuolan, Aramaion, Aretxabaletan, Arrasaten, Bergaran, Eskoriatzan eta Oñatin egin dira bilketak

**Uxue Igarza Loiola** DEBAGOIENA

Aurreikuspenak "erabat gainditu" direla azaldu du, ezer baino lehen, Zaporeak gobernuz kanpoko erakundeko ordezkari Maria Agirrek. Debagoieneko zenbait herritan egin zen oinetako-bilketa aurreko asteburuan, eta balorazio "oso ona" egin dute. "Ezin dugu kalkulatu zenbat jaso dugun, baina ikaragarria izan da. Kamioi bat alokatu behar izan dugu bildutakoa garraiatzeko", azaldu du Agirrek. Era berean, herritarren elkartasunaz gain, boluntarioen lana ere azpimarratu nahi izan du.

Tamaina guztietako oinetakoak batu dituzte eskualdean, eta asteburuan jasotako aurrez ikastetxeetan batutakoak gehitu behar zaizkie. Denak ondo sailkatu ostean, gaur, egubakoitza, eramango dituzte Zaporeak-en biltegira. Eta ondoren, Atenasera, Lesbosera eta Siria-ko errefuxiatuen kanpalekura bidaliko dira.

**Antzuolatik, 1.584 euro**

Bestetik, Antzuolan, Zaporeak eta Anelkarrek mahaia jarri zuten asteburuan bonuak saltzeko. Guztira, 1.584 euro batu dituzte, Lesbosera bidaltzeko. Horrez gain, arropaz betetako poltsak ere jaso dituzte.



Asteburuan Aretxabaletan egindako bilketaren irudi bat. IMANOL SORIANO

## Ixone Mendizabal Chios-en egon da

Urriari Chios uharterako kanpalekuan izan zen Ixone Mendizabal. Erizaina da Debagoieneko Ospitalean, eta egoera biziki larrian dauden errefuxiatuak artatzen jardun du.

Beste lau profesionalekin batera, 300 lagun artatu dituzte; heldu nahiz haurrak -20 eguneko ume jaioberri bat ere bai-.

"Kanpalekuko baldintza eskasek sortutako gaixotasunak ziren nagusi: gastroenteritisa, ur eta janari eskasiak eragindako gaitzak, sarna bezalako azaleko gaixotasun infekziosoak, zauriak...", azaldu du Mendizabalek.

Erizainak gehitu du neguak nabarmen okertuko duela egoera: "Ez dago baliabiderik egoerari aurre egiteko". Norberaren alea jartzearen garrantzia ere azpimarratu nahi izan du.

## EKINTZAILTZA GARAIA



Astea ixteko hilaren 12an egindako mahai inguruak. GARAIA

## Aditu ugari batu dituzte Garaian egindako ZTIM jardunaldiek

Zientziaren eta teknologiaren egoeraz eta inguruko enpresetan dauden berrikuntzez jardun dute

**U. I. L. ARRASATE**

Zientzia eta Teknologiaren Nazioarteko Astea ospatu zen hilaren 8tik 12ra, eta Garaia Parke Teknologikoan askotariko ertzetatik heldu zioten gaiari.

Egitarraren baitan, hitzaldiak, mahai inguruak eta lehiaketak egin zituzten, eta, gaiei dagokionez, gonbidatuek fluidomekanikaz, aerodinamikaz eta itsasoko energiaren teknologiaz jardun zuten, besteak beste. Horrez gain, Herbehereekin zuzenean konektatu eta 3D inprimatzean eta fabrikazio gehigarrian aditua den Maria Monterorekin hitz egiteko aukera izan zuten; Montero Netherlands Aerospace Center enpresako produktuen diseinu, garapen eta materialez aritu zen.

Antolatzaileek azaldu dutenez, hainbat enpresatako kideak batu dituzte jardunaldiek: "Gure inguruko pertsona askok egiten

dute lan ZTIM-STEM arloetan; Euskal Herrian bertan, hemendik kanpora joanda eta baita atzerriatik hona etorrira ere. Enpresa handi nahiz txikietan eta askotariko postutan eta lan aplikaziotan ari dira".

**Teknologia, geraz eta gertuago**

Jardunaldien ondorioak hiru puntutan laburtu dituzte antolatzaileek. Alde batetik, uste dute zientzia eta teknologia "erabilera arrunt eta gertuetan" aplikatzen dela eta hori handitu egingo dela etorkizunean. Bestetik, zientzia eta teknologia ekintzailtzako "hazi garrantzitsua" direla azaldu dute: "Etor-kizuneko kalitatezko lanerako aukera dira". Bukatzeko, pertsonen, enpresen eta erakundeen arteko loturak eta egindako jardunaldien garrantzia azpimarratu dituzte, "sarea sendotzen" laguntzen dutela iritzita.

## HERRIAREN HAUSPOA

**GOIENA TELEBISTA**

UDA KIROL ELKARTEAREN 75. URTEURRENEKO DOKUMENTALA  
AZAROAREN 19AN, EGUBAKOITZEAN, 21:00ETAN



DESKARGATU  
GOIENA  
APP BERRIA!

**goiena**  
Zu hemen zaude.



## Emakume pentsiodunen deia, azaroaren 25a dela eta

### ITZIAR USANDIZAGA

BERGARAKO PENTSIODUNEN  
IZENEAN  
BERGARA

Emakume eta gizon pentsiodunak: azaroaren 25a Emakumeen Aurkako Indarkeria Desagerrarazteko Eguna da.

Gizonek emakumeek baino gehiago balio dutelako ideian oinarritzen da sistema patriarkala; izan ere, balio sistema horrek bizitzaren esparru guztietan eragiten du, eta emakumeen aurkako mota askotako diskriminazio- eta indarkeria-ekintzetan islatzen da.

Adineko emakumeak ez gaude genero-indarkeriatik salbu. Askotan, familian eta gizartean, baita asistentzia-guneetan ere, tratu txar psikologikoak jasaten ditugu: umiliazioak, sinesgarritasun falta, irainak, diruaren kontrola, abandonua...

Era berean, ez gaude tratu txar fisikoetatik libre, hala nola jipoiak, medikalizazio

jarraitua, sexu-abusuak eta baita hilketa ere.

Duela urte askotatik jasaten dugu indarkeria, hitz egiteko edo salatze beldurrez. Horrek kalte sakonak eragiten ditu autoestimuan, osasunean eta gure bizi-kalitatean. Eta adineko emakume askok indarkeria ekonomikoa jasaten dugu, diru-sarrera propiorik ez dugulako, edo baliabide gutxi.

Emakumeen aurkako indarkeria da bikotekidearen diru-sarreraren mende egon behar izatea, edo

hilabete amaierara beren diru-sarrerekin iritsi ezin izatea. Euskal Herriko emakume askok kotizazio gabeko 400 euroko pentsioak dituzte; 63.000 alargunek 1.080 euro baino gutxiago kobratzen dute eta laurdenek 700 baino gutxiago.

Negoizatzen ari den Pentsioen Erreformak ahaztu egiten gaitu. Ez dago neuririk soldatetan eta pentsioetan genero-arrakala desagerrarazteko. Ez da alarguntza-pentsioa aipatzen, ezta emakume

asko miseriatik ateratzeko behar den gutxieneko pentsioa ere. Etxean eta etxetik kanpo gogor lan egin dugunok baliotsuak gara, eta ez dugu gehiago isilik jarraitu nahi.

Ostegunean Euskal Herriko herri eta hiriburuetan egingo diren manifestazio feministetan masiboki parte hartzera gonbidatzen ditugu emakume zahar eta pentsiodun guztiak. Gizon pentsiodunak eta adinekoak ere etortzea espero dugu, jakin badakigulako gure

aldarrikapenak babesten dituzuela, emakumeek eta gizonek berdintasunean eta askatasunean elkarrekin bizi ahal izateko gizarte baten alde.

## Osakidetzari

**XABIER ORMAETXEA 'TXERREN'**  
ARAMAIO

Kaixo, euskaldunok: Osakidetzarekin dudana harremana, normalean, nahiko ona da. Adibidez, nire medikuarekin dudana bikaina, zeren oso jatorra, euskalduna eta hurbila da.

Baina irailaren 24an urteko errebisioa izan nuen neurologoarekin. Txanda tokatu zitzaidanean, sartu nintzen eta emakume batek artatu ninduen.

Ni euskalduna naizenez, euskaraz hitz egiten hasi nintzen, eta hitzez hitz hauxe esan zidan: "Prefiero hablar en castellano".

Nik erantzun nion: "Pues, yo prefiero en euskera, pero bueno...". Eta berak nahi zuen bezala egin behar izan genuen.

Gogorarazi nahi diot Osakidetzari guk ordaintzen dugula, eta, gure eskubideak baditugunez, nire euskaldun eskubide hori bermatu dezala hemendik aurrera, euskaldun guztiokin.

## Salaketa-gutuna Eskertza-gutuna Eskari-gutuna

Idatzi zure gutuna eta bidali  
[gutunak@goiena.eus](mailto:gutunak@goiena.eus) helbidera!

## Erantzun-gutuna Aldarrikapen-gutuna Kexa-gutuna

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / [gutunak@goiena.eus](mailto:gutunak@goiena.eus)

## HAUXE BAI JENEROA!

### GARBIÑE UBEDA





ZABALIK

OSKAR ELIZBURU

## Aktibatzeke garaia

Udazkenarekin, askotan, geldialdirako garaia heldu dela ematen du, dena apaltzen doalako naturan, moteltzen, deskantsurako edo. Guregan ere izaten du eragina, jakina, baina, zoritxarrez, ez gaude, ez, horrelakoetarako; hemen eta orain, ekimenerako ordua dugu. Ezin gara lo geratu; euskararen normalizazioan aurrerapauso handiak eman ditugu, dudarik gabe, eta gaur egun inoiz baino aukera handiagoa daukagu euskaraz aritzeko: Debagoienean lau pertsonatik hiruk ulertzen du euskaraz gaur egun; aukera horretatik abiatuta, helduko diogu benetako konpromisoari?

Astlehenean ekingo diogu, ilusioz, pauso berri bati: *Haurren aurrean, helduok heldu* ekimenari. Umeen aurrean nagusiok euskara erabiltzeko ekintza-konpromisoa izango da oraingoan; hain zuzen ere, umekin normalean haien denbora librean dabilzan guraso, familiako, hezitzaile edota zaintzaileek haien

### HITZKOAK IZAN ETA HITZ EGITEN HASTEKO ERABAKIA HARTU, ETA GURE INGURUAN EGUNERO ERAGIN

arte euskaraz jarduteko ariketa egingo dute –umeekin ere bai, jakina!–. Nagusiok eredu izan behar dugu, umeek imitazioz guk egiten duguna kopiatzeko joera dutelako. Euskal hiztunok komunitatea


egiteko garaia dugu, euskararen arnaguneak sortzeko eta bertan eroso jarduteko, ohituraz euskaraz bizitzeko. Erabakia hartzeko unea da.

Eta hori bera da, hain zuzen ere, bi ekimen handik ere proposatu berri digutena, asteon, haien aurkezpenetan. 22. Korrikak eta Euskaraldiak leku beretik jo dute, eta mezua argia da bietan: *HITZEKIN, hitz egiteari ekin, bada garaia, oraintxe da momentua...*

Txokoan eta orokorrean aktibatzeke ordua dugu; hitzekoak izan eta hitz egiten hasteko erabakia hartu, aktibatu eta gure inguruan egunero eragin. Bakoitzaren erabakia da, bakoitzak egin dezakeen ekarpena; eta dudarik ez izan, ekarpen txiki askok ekarpen komunitarioa eragiten dute, eta olatua sorrarazten. Helduok helduz gero, umeak euskararen olatuan jolasteko aukera irekiko dugu.

## MARRAZKIZ

ALEX UGALDE



## HANDIK ETA HEMENDIK

### Trantsizio digital eta ekologikoa?

F. JAVIER ARRIETA IDIAKEZ  
'TTAP'-EN ARGITARATUA

Trantsizio digital eta ekologikoaz dihardute munduko gobernu guztiek. Horixe bihurtu dute erlijio.

Diotenez, 4.0 Industriaren garaian gaizki behar dute iraultza digitalera egokitzen ez direnek.

Alabaina, okerrago izango da eraso baten ondorioz hodeian gordetzen diren datu guztiak ezabatzen direnean.

Trantsizio ekologikoa ere beharrezkoa omen da gure planetan bizi ahal izateko.

Aitzitik, ez da bidezkoa herrialde batzuek neurri

zorrotzak hartzea, beste batzuk ezer egiteko prest ez daudenean.

Herrialde guztiek antzera jardun ezean, alferrikakoa da esfortzu oro.

Adibide batzuk besterik ez: berotegi-efektudun gas-emisioek errekor berria egin zuten 2020an; gure atun-ontziak Seychellesko Victoria portuan loturik dauden bitartean, Txinatik milaka tona atun-solomo sartzen da Europar Batasunean zergarik ordaindu gabe eta ia osasun-kontrolrik gabe.

Edonondik begira dakiola ere, zenbait erakundeek salatu dute ezin dela halako trantsiziorik gauzatu

trantsizio sozialik gabe, ezin delako inor bazterrean utzi.

Zinez, trantsizio horien izenean eskubide sozialak murrizten badira, hain zuzen, oinarrizko eskubideak ere errespetatzen ez dituzten herrialdeekin lehartzeko, gizarte-auzi berri baten atarian egon gaitezke.

Trantsizio soziala gauzatu eta gizarte-kohesioa lortzeko, gizarteak heldutasunez eta arduratsu jarduten ikasi beharko du.

COVID-19ak, ordea, argi utzi digu gure gizartea ezaugarri horietatik urrun dagoela, esanak esan, itxuraz eder ager zaiguna sarritan egiaz eskas izaten baita.

goiena<sup>™</sup>  
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

**Argitaratzailea**  
Goiena Komunikazio Taldea  
Kooperatiba Elkarte  
Otalora Lizentziaduna 31  
20500 ARRASATE

**Lehendakaria**  
Monika Belastegi.  
**Zuzendari nagusia**  
Iban Arantzabal.  
**Eduki zuzendaria**  
Eneko Azkarate.

**Erredakzio batzordea**  
Eneko Azkarate, Monika Belastegi, Mirari Altube.

**Zuzendari komertziala**  
Mireia Larrañaga.  
**Administrazio zuzendaria**  
Agurtzane Gaintzarain.

**Diseinu arduraduna**  
Iñaki Iturbe.  
**Hizkuntza arduraduna**  
Sergio Azkarate.  
**Harpidetza eta banaketa arduraduna**  
Igone Osinaga.

**Sailtetako arduradunak**  
Xabi Urtzelai (Kirola),  
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).  
**Maketazioa**  
Imanol Soriano, Aitor Lagoma,  
Amaia Martínez de Arenaza.  
**Publizitatea**  
Mireia Larrañaga,  
Ziortza Martín,  
Amaia Mundiñano.

**Administrazioa**  
Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,  
Nerea Artola.

**HARPIDETZA**  
Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
Tel.: 943 25 05 05  
harpidetza@goiena.eus

**PUBLIZITATEA**  
Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
Tel.: 943 25 05 05  
publi@goiena.eus  
**EGOITZA NAGUSIA**  
Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
132 posta-kutxa  
Tel.: 943 25 05 05  
Telegram eta WhatsApp:  
688 69 00 07  
berriak@goiena.eus

**Lege Gordailua:** SS-965/2014  
**ISSN:** 2174-369X  
**Tirada:** 19.000 ale  
**Difusioa:** 18.723 ale

**Inprimategia:**  
Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiako Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala

**Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua**



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA



## BERBAGAI

# "Sexistak diren esamolde eta atsotitz asko ditugu"

OIHANA JAUSORO AGIRRE EMUN AHOLKULARITZAKO BERDINTASUN TEKNIKARIA

**Larraitz Zeberio Lekuona** BERGARA Martxan da komunikazio ez-sexistari buruzko formakuntza Bergarako Miguel Altuna ikastetxean. Emuneko berdintasun teknikari Oihana Jausorok (Arrasate, 1976) dihardu zeregin horretan, Iraitz Agirre lankidearekin batera.

**Martitzenean hasi zen beste bi saio izango dituen ikastaroa. Ze profileko jendea duzue?**

Formakuntza herritarrei zuzenduta bazegoen ere, gehienak irakasleak dira. Eskola desberdinetakoak, baina hezkuntzako jendea.

**Gaiak gero eta interes handiagoa pizten du. Zergatik, zure ustez?**

Esango nuke kontzientzia maila gero eta handiagoa dela. Badira urte batzuk feminismoak eta genero berdintasunaren gaia gehiago ateratzen direla plaza publikora. Hori dela-eta, gehiago hitz egiten dugu gaiaren inguruan.

**Hizkuntzaren erabilerarekin lotutako gaiak lantzen dituzue,**



Oihana Jausoro Agirre, martitzenean, Bergaran. ENEKO AZKARATE

**eta baita ere gorputz adierazpenarekin lotutakoak.**

Gorputzarekin ere komunikatzen dugulako. Jaiotzen garenetik rol eta jokabide jakin batzuk ikasten, asimilatzen eta garatzen

joaten gara. Generoaren arabera hori asko aldatzen da. Horren inguruan ere hausnarketa egitea oso garrantzitsua da. **Hizkuntza ez-sexistari buruzko gida gero eta gehiago daude.**

Gero eta material gehiago dago, eta gero eta hobe da. Hizkuntza ez-sexistaren inguruko gidak ez ezik, hizkuntza inklusiboaren gainekoak ere sortzen joan dira; izan ere, generoa ez da diskriminazioa eragiten duen aldagai bakarra. Egia da, gero, inkoherentziak ere badaudela. Euskaltzaindiak, esaterako, sexuaren arabera bereizten ditu izenak oraindik ere. Izendegiarekin dagoen polemikak hor jarraitzen du. **Sexismoa eta androzentrismoa sarri aipatzen dituzue.**

Hizkuntza guztietan gertatzen diren bi fenomeno direlako. Komunikatzen dugu geure buruetan eta geure barruetan dagoena, eta, gizartea sexista eta androzentrista bada, hori islatu egiten da hizkuntza erabileran. Euskarak ez du genero gramatikalik, baina behatu behar dugu zer-nolako erabilerak egiten ditugun. Maskulino generikoa erabiltzen dugu, eta esamolde eta atsotitz asko ditugu androzentristak direnak. Gizona da erdigunea, eta gizon klase bat. Esaterako: "Aitor gizon portatu da" edo "Gonbidatu ditugu zinegotzi guztiak eta haien emazteak". Esaldi androzentristak dira. Konturatu gabe bada ere, asko entzuten dira oraindik.

**Nola ezabatzen dira sustraitutako hizkera diskriminatzaileak?**

Lehenengo eta behin, identifikatuta, eta hor, barrura begirako hausnarketak daude. Denbora bat eskaini behar zaio. Gero, entrenatzea da. Garrantzitsua da konplizitate sareak eraikitzea elkarren artean laguntzeko. Saihestu beharko genuke, esaterako, emakumeak ikusez in bihurtzea, mespretxuz tratatzea, mendekotasuna islatzen duten estereotipoak erabiltzea... Gorputz komunikazioarekin berdin. **Hedabideek garrantzia dute eredu izateko funtzio horretan.** Hedabideetan, nire ustez, asko landu da gaia, eragin ahalmenaz kontzientzia maila handia dagoelako. Egia da lerroburoetan, batzuetan, ikusten dela zer hobetu, baina iruditegian garbi ikusten da lanketa egin dela. Kezkagarriagoa da egoera publikitatearen esparruan. Perfumeen salmentako publikitateak, esaterako, oso agresiboak eta sexistak dira. Jostailuen salmentako publikitatean, beste hainbeste. Gehiago saltzen da horrela? Kontsumitzaileok koherentziaz jokatu beharko genuke. Ez erosi, eta, gainera, salatu.

## ITURRI ONETIK

## Santamasak egiteko asmoarekin

Santamasetako azoka antolatzeke ideiarekin aurrera jarraitzen du Arrasateko Udalak, eta lehen batzarrak egiten hasi da, era berean, Santamas Komisiñuarekin. Ikusteko dago pandemiak ze bilakaera hartzen duen, baita ze neurri murriztaile hartzen diren, egoerak okerrera egin duelako, baina santamasetako antolatzaileen buruan dago "feria ohiko" batera hurbiltzea; betiere, "egoerak eskatzen dituen segurtasun neurriekin eta jarrera arduratsurako dei" eginez.

## ALBISTE IZAN ZEN

2005-11-17

## Kooperatiben sortzaileei omenaldia

Munduko Kooperatibaren Egunean, Mondragoeko kooperatiben mugimenduaren sortzaileak omendu zituen Euskadiko Kooperatiben Konfederazioak, Kursaalak. Juan Jose Ibarretxe lehendakaria bertan zela. Konfederazioak garaikurra eman zien Alfonso Gorroñogoitiari, Jose Maria Ormaetxeari, Luis Usatorre eta Jesus Larrañagaren alargunei eta MCCko presidenteari, Jesus Cataniari.



GOIENA

## HAU BE BADOGU!

## Amets Arzallusen hitzak, bolo-bolo sarean

Iparaldeko bertsolariak ETBn "Euskal Herria nola ikusten duen" galderari erantzundakoa gogora ekarri dute azken egun hauetan euskal txiolariek. Hona hemen, aukeraketa bat:

@enekogara: "Ezagunagoa da Belen Esteban, Amets Arzallus baino".

@ibaizabala1: "Norbaitek, egia handiak esanez, ondokoak mutu eta denok txiki uzten gaituenean".

@karmelolanda: "Amets Arzallusen begirada zorrotzetik egia handia".

@txuriya: "Zorionak Amets Arzallus, zoriona gurea da zu entzutean".

# Ailegatzear dago sistema berria

Abenduaren 4an, zapatua, jarriko dute indarrean Arrasateko TAO sistema berria, eta dagoeneko herritar guztien ahotan dagoen gaia da. Hasiera batean, proba modura funtzionatuko du; hau da, tiketa eskuratu beharko da, baina ez da isunik egongo

## Eneko Azurmendi ARRASATE

2018ko apirilko osoko bilkuran, Arrasateko udalbatzak aho batez onartu zuen 2027ra arteko Mugikortasun Iraunkorreko Plan Integrala, orduko mugikortasun joerak aldatzea helburu hartuta. Alde batetik, mugikortasun jasangarriaz bidea indartzea da helburua, motordun ibilgailuen erabilera jaitsiz eta garraio publikoan, oinez eta bizikletan egindako desplazamenduak areagotuz. Bestetik, erdigunean dagoen "agitaziozko" trafikoari

konponbidea ematea lortu gura du planak, eta hor kokatzen da TAO sistema (OTA). "Errotazio eskaririk handiena hemen [erdigunean] kokatzen da, erakarpentzako nagusi asko gertu daudelako, eta honek eskatzen du gatazka konponduko duten neurri ausartak hartzea, udalerriko bizilagunen aparkamendua eta ongizatea bermatzen, beharrezkoa kontsideratzen den puntu haietan errotazioa sustatzen", dio idatziak. Modu horretan, Arrasateko zona batzuentzat

aparkamenduaren erregulazio sistema berri baten proposamena jasotzen du planak; erregulatu nahi diren zonak zehazten ditu eta ezarri daitezken tipologia ezberdinak definitzen. "Ondoren, Arrasateko Udalak izan behar du plazen tipologiak, aparkatzeko gehienezko denbora eta bertakoaren bereizgarria lortzeko baldintzak definitu beharko dituen".

Horri jarraiki, Udal Gobernuak TAO sistema berriaren hasierako proposamena aurkeztu

zuen 2020ko urtarrilaren 9an, eta herritarrei ere bidali zien etxeetara, gune informatiboak jartzearekin batera. Ekarpenak jasotzeko epe bat zabaldu ostean, ekarpen horiek hasierako planteamenduarekin uztartzeko prozesua abiatu zuen Gobernuak, "ausaz aukeratutako herritar talde baten laguntzarekin", eta parte-hartze prozesu horretan 488 ekarpen jaso zituen.

## Ordenantza, 2020ko azaroan

Pandemiak atzeratu egin zituen epeak, eta 2020ko azaroko osoko bilkuran onartu zituen udalbatzak TAO sistema arautzen duten ordenantza eta dagozkion tarifak. Era horretan, onartuta geratu zen Elmako biribilguneetik hasi eta San Andreseinoko aparkalekuek TAO sistema berria ezartzea, ospitalean eta Zalduspe gunean izan ezik, eta Aldain eta Txetaan ere bai. Kontrara, herrigunetik kanpo dauden Zerrajera, Musakola, Erguin, Obenerreka, Makatzena, Santa Marina eta Santa Teresa, besteak beste, salbuetsita geratu dira. Izan ere, zortzi barruti edo gune daude: Otalora-Ferixalekua, Ga-

ribai, Zarugalde-Munar, Arima-zubi, Uribe, San Andres, Zabalgunea-Aldai eta Txaxeta (Ikus eskuineko mapa). Gune horien barruan, halaber, bost tarifa mota egongo dira: Bertakoak, TAO *express*, doako TAO, TAO arrunta eta TAO luzea (Ikus beheko taula).

Egoiliarren txarteletan dagoenak, ohiko egoiliarraren lehen txartelak 35 euro balio du eta bigarrenak, 75 euro. Alde zaharrekoak, berriz, lehenak 30 euro eta bigarrenak 60 euro. Bertako merkataritza txartelari erreparatuta, egoiliarraren lehen txartelak 35 euro balio du, bigarrenak 75 euro eta ibilgailu errotulatuena 35 euro. Alde zaharrean, lehen merkataritza txartelak 35 euro, bigarrenak 60 eta ibilgailu errotulatuena 30. Guztiak ere urtero berritu behar dira, eta egokitu zaien barrutian aparkatu ahaliko dute egoiliarrek eta merkatariek, bai bertako gunean, bai TAO arruntean eta baita TAO luzean ere.

## Urtean 468.144 euro

Horrez gain, 2021eko maiatzeko osoko bilkuran onartu zuen

## Bost tarifa mota izango ditu TAOk abenduaren 4tik aurrera



### Bertakoen gunea

Zuriz margotuta egongo da bertakoen gunea, B/R bereizgarriekin, eta astelehenetik egubakoitzera egongo da indarrean, 09:00etatik 13:30ak arte eta 15:30etik 20:00etara. Zapatu, domeka eta jaiegunetan, berriz, zerbitzua ez da indarrean egongo. Gune horietan bertakoentzako txartela izango dutenek aparkatu ahaliko dute, bizi diren barrutian soilik, denbora mugagabea. Oraindik txartela ez dutenek Olarte kaleko TAO bulegoan eskuratu beharko dute. Bestalde, 943 10 10 06 telefonora deituta ere egin daitezke kontsultak.

### TAO 'express' gunea

Gune zuri-urdinak. Ordutegi jarraitua izango dute. Astelehenetik egubakoitzera 09:00etatik 20:00etara aplikatuko dira tarifak eta zapatuetan, 09:00etatik 13:30era, gehienez 30 minutuz aparkatzeko aukerarekin. Bertakoen txartelak bakarrik ez du balioko. 15 minutu 0,20 euro ordaindu beharko dira eta 30 minutu, 0,40 euro. Arrasaten erroldatutako ibilgailuek 15 minutu doan izango dituzte. TAO *express*-etik mugituz gero, ezingo da barruti berean aparkatu bi ordu igaro arte. Domeketan ez dira tarifak aplikatuko.



### Doako TAO gunea

Urdinez eta gorritz markatuta dauden guneak izango dira doakoak. Gune horiek ere ordutegi jarraitua izango dute; hau da, astelehenetik egubakoitzera 09:00etatik 20:00etara eta zapatuetan 09:00etatik 13:30era. Gune horietan, gehienez, 90 minutuz aparkatzeko aukera egongo da, ordu eta erdi. Bertakoen txartelak bakarrik ez du balioko, eta, ondorioz, tiketa eskuratu beharko da makinan. Edozelan ere, esan bezala, ez da ordaindu beharko, doakoa izango da. Era berean, domeketan ez da tiketik eskuratu beharko.

### TAO arrunta

Urdinez margotutako guneak dira. Astelehenetik egubakoitzera 09:00etatik 13:30ak arte eta 15:30etik 20:00etara aplikatuko dira tarifak: 0,80 euro orduko. Gehienez, 180 minutuz aparkatu ahaliko da, hiru ordu, eta Arrasaten erroldatutako ibilgailuek 30 minutuko tarifa onura izango dute aparkaldi bakoitzeko. Bertakoentzako txartela daukatenek TAO arruntean aparkatu ahaliko dute, haien barrutian soilik, denbora mugagabea. Barruti bateko TAO arruntetik eta TAO luzetik autoa ateraz gero, hiru ordu pasa arte ezingo da barruti berera bueltatu.



### TAO luzea

Berdez eta urdinez margotutako guneak dira TAO luzeari dagozkienak. Astelehenetik egubakoitzera 09:00etatik 13:30ak arte eta 15:30etik 20:00etara aplikatuko dira tarifak. Modu horretan, goizeko zein arratsaldeko txandak 1,5 euro ordaindu beharko dira eta egun osoko tarifak, aldiz, 3 euroko prezioa izango du. Era berean, bertako txartela daukatenek denbora mugagabea aparkatu ahaliko dute gune horietan. Barruti bateko TAO arruntetik eta luzetik autoa ateraz gero, hiru ordu pasa arte ezingo da itzuli.

## Arrasateko erdigune osoan jarriko dute indarrean



udalbatzak TAO sistemaren kudeaketan asistentzia emateko zerbitzua. Modu horretan, Arrasateko Udalak Gertek Sociedad de Gestiones y Servicios SA enpresari esleitu zion zerbitzua, urtean 468.143,86 eurogatik –BEZa barne–, sei urte eta sei hilabete epean.

### Bi hilabete, proba modura

Azken bi urte hauetan "lanketa sakona" egin dutela nabarmendu du Maria Ubarretxena alkateak, eta kontrako hainbat ahots irten diren arren, erabakia "ir-moa" dela baieztatu du. "Prozesu parte-hartzaile izugarri bat egin genuen, hilabeteak iraun zuena. Bilera irekiak ere egon dira eta arrasatear askok eta askok hartu dute parte. Beraz, uste dugu prozesu hori errespetatu egin behar dela".

Hori hala izanik, bi aste barru jarriko dute indarrean sistema berria. Herritarrak apurka egokitzen joan daitezela gura du Udal Gobernuak, eta abenduan eta urtarrilean proba modura funtzionatuko du. "Erabilpen arrunta izango du; hau da, tike-ta ateratzea beharrezkoa izango da eta ordaindu beharrezkoa ordaindu beharko da. Edozelan ere, TAO guneak zaintzeaz arduratuko diren langileek ez dute isunik jarriko. Pedagogia lana egingo dute, eta, kasuan kasu, dagozkien azalpenak emango dizkiete herritarrei", adierazi du Anuska Ezkurak, Udal Gobernuaren bozeramaileak.

Ezkurrak gaineratu du konziente direla gauza berria dela eta egokitzapenak beharko dituela. "Bizirik dagoen prozesu bat da. Martxan jarri ahala, egoera berriak sortuko dira. Gertuko jarraipena egingo diegu gaiari eta egin beharreko egokitzapenak egingo ditugu".

### Herri osoko sistemaren alde

EH Bilduk herri guztia eta auzo guztiak integratzen dituen TAO sistema bat gurako luke, mugikortasun planean oinarritutakoa. "Mugikortasuna herri osoan bermatu behar da". Halaber, TAO sistemaren lehenengo orduak dohainik izan beharko lirakeke, koalizio abertzalearen ustez, "eta ondorengoak oso prezio murriztuetan". Horrez gain, sistemaren gestio publikoa babesten dute: "Askoz merkeagoa izango litzateke eta langileen baldintzak duinagoak izango lirakeke". Hori dela eta, aurka bozkatu zuten zerbitzuaren esleipenaren bozketan. Izan ere, kudeaketa publikoarekin sistema "defizitarioa" izango litzatekeen arren, "herritarren onurarako" baldin bada, ahalbidetu egin beharko litzatekeela uste du koalizio abertzaleak.

## BI HILABETEAN "PEDAGOGIA" LANA EGINGO DUTE TAO GUNEAK ZAINDUKO DITUZTEN LANGILEEK

### "Lan sakonagoa" behar da

Elkarrekin Arrasateko uste du Gobernuak ez duela aurreikusitako sistemak inguruko auzoetan izango duen eragina. Era berean, salatu du herri osoaren egunerokotasunean "eragin zuzena" daukan gaia izanik ezin dela garatu "herritar zati txiki baten" parte-hartzearekin, eta mugikortasun eredu aldatzeko "lan sakonagoa" egin behar dela ere nabarmendu du, "garraio publikoa are gehiago indartuz eta zerbitzu irisgarriagoak eginez gehien behar dutenei". Azkenik, gestio publikoaren defentsa egin du ezkerreko koalizioak ere –aurka bozkatu zuten esleipenean–.

### Auzotarrak eta merkatariak

Sistema aplikatuko ez den auzotako ordezkariak, Musakolako, Erguingo eta Santa Teresa-ko, esaterako, kezka bizi dute gaia, horrek aparkalekuen arazoa "lekualdatu" besterik ez duela egingo argudiatuz.

Hainbat merkataria ere kezka dira. "Ez dugu eskatzen TAOrik ez ordaintzea. Baina ordenantza oso zurruna da eta kasu asko eta asko ez ditu kontuan hartzen. Komertzioa dugunon auto partikularretarako txartel edo baimen berezi bat eskatu dugu, baina Udalaren erantzuna ezezkoa izan da. Ez da gure kasua bakarrik, merkataria asko egoera berean daude, eta kalte egiten digu", dio Auzokide enpresako jabe Barbara Lamasek. Ibai-arteak, oraingoz, ez du iritzirik eman gura izan.



TAO sistemaren kartela Oñatiko erdiguneko Portu kalean. E.A.

## Bergaran eta Oñatin ere TAO dago

Geroz eta udalerrri gehiago ari dira TAO sistemaren aldeko apustua egiten dutenak. Udalerrri bakoitzak bere testuingurua bizi du eta askotariko arazoak egon daitezke aparkatze sistema hori ezartzeko, baina arazo nagusia da errotazio eskari handia dagoen lekuetan, gehienetan erdigunean, autoak denbora luze aparkatuta egotea saihestea.

Debagoienari dagokionez, Bergara izan zen TAO sistema ezarri zuen lehen udalerria, 2010ean, eta gaur egun ere indarrean jarraitzen du. Kasu horretan, doakoa da, baina tike-ta beharrezkoa da, eta iraupenak gunearen arabera da.

Gerora, 2016an, Oñatik ere ezarri zuen aparkatze mugatzen duen sistema hori, lehenik kiroldegi azpiko aparkalekuetan, eta ondoren, erdiguneko hainbat kaletan. Doakoa da hor ere.



Herritar bat, sinatzen, udaletxeko arkupeetan jarritako mahaian. E.A.

## Aurkako 1.000 firma batu dituzte

Eragin Arrasate plataforma sortu zuen herritar talde batek, eta TAO sistema ezeztatze sinadura bilketa bat abiatu zuen. Udal Gobernuak ezarri nahi duen sistema "inposaketa" dela salatzeaz gain, TAOren moratoria eta erreferenduma eskatzen dituzte, eta jada 1.000 sinadura baino gehiago batu dituztela adierazi dute. "Gobernuak ez du herritarrengan pentsatu sistema diseinatze orduan, nahasmen handia da", dio Placi Garciaik, ekimenaren sustatzaileak. Hain zuzen ere, bera izango da astelehenean, azaroaren 22an, ordura arte batutako sinadurak BAZen entregatuko dituenak, 18:00etan. Plataformatik dei egin dute hari "babesa ematera" joateko. Aurrez, baina, sinadurak batzen jarraituko dute, gaur, egubakoitza, 11:00etan Azoka plazan eta 17:00etan Portaloian jarriko dituzten mahaietan.



84 taldek hartu dute parte lehiaketan, eta hamazortzi taldetako ordezkariak harrera egin zieten martitzenean. TXOMIN MADINA

# Ekintzaile kooperatiboak, esperientziatik ikastera

Mondragon City Challenge lehiaketan parte hartu duten hainbat gazte talde Arrasate, Debagoiena eta kooperatibismoa bertatik bertara ezagutzen aritu dira asteon. Izan ere, martitzenean egin zieten ongietorria eta gaur egingo dute sari banaketa, Amaian

**T.M./E.A.** ARRASATE

Arrasateko Udalak, Eusko Jaurlaritzak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Mondragon Taldeak, Mondragon Unibertsitateak, Konfekoek, Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluek eta *El diario vasco*-k lehen aldiz antolatu duten Mondragon City Challenge izeneko lehiaketa azken fasera heldu da. Ekintzailetza kooperatiboan oinarritutako lehiaketa da, eta, Maria Ubarretxena alkatearen esanetan, gizarteak dituen hiru erronka nagusie erantzutea da helburua: klimatiko-energetikoa, digitalizazioarena eta soziosanitarioa.

Alkateak azaldu duenez, herriaren eta Debagoieneko kooperatibismoak duen garrantzia ikusita, gazteei eredu hori zabaltzea eta, era berean, ekintzailetza sustatzea du helburu lehiaketak, eta "oso gustura" daude izandako erantzunarekin. "Euskal Herriko, Espainiako eta Amerikako hainbat herrialde-tako ordezkariak hartu dute

parte; Txilekoek eta Kolonbiakoek, esaterako. Beraz, pozik gaude, horrek munduan kokatzen gaituelako eta oihartzun bat edukitzea ahalbidetzen digulako".

84 taldek hartu dute parte ekimenean. "Taldea bakoitzak proiektu bat aurkeztu du, eta esan beharra dago landuak izan direla", adierazi du alkateak. Gaineratu duenez, finalera heldu ala ez, horietako hainbat proiektu martxan daude dagoeneko. "Benetako kooperatiba izateko prozesuan daude; beraz, lehiaketa batetik harago doa eta oso albiste pozgarria da hori".

**Hiru sari banatuko dituzte**

Gaur, egubakoitza, 11:00etan egingo dute final handia, Amaian

**GAUR, EGUBAKOITZA, AMAIA ANTZOKIAN EGINGO DUTE SARI BANAKETA EKITALDIA, 11:00ETAN HASITA**

antzokian, baina aste osoan Arrasaten izan dira parte-hartzaileetako batzuk, hemezortzi taldetako ordezkariak, Debagoieneko askotariko eredu kooperatiboak ezagutzen.

Sei izango dira gaurko finalean parte hartuko duten taldeak eta hiruk jasoko dute saria. Bi kategoriatan banatu dituzte parte-hartzaileak, eta, 16 eta 18 urte artekoen kategorian, Europara bidaia izango da saria. 19 eta 24 urte artekoen kategorian, Hego Koreara bidaia izango da saria, Seulgo Nazioarteko Kongresu Kooperatiboarekin batera. Azkenik, proiektu originalenak ere saria izango du, 800 eurokoa. Edozelan ere, azken hori finalistak ez diren proiektuen artean aukeratu dute.

Datorren urtera begira beste edizio bat egitearen alde azaldu da Ubarretxena: "Gure nahia da egitasmoarekin jarraitzea; are gehiago, aurtien izan duen arrakasta ikusita. Elkarlanean jarraitu beharko genuke".



Iturriaren barrualdean bi arku daude, eta ikusgai jarriko dituzte. E.A.

## Iturriotzeko iturria birgaitzen ari da Arrasate Zientzia Elkarteak

Zerrajera kaleko iturria "altxor historikotzat" dute; ura ez dute berreskuratuko, baina ikusgai jartzea da asmoa

**E.A.** ARRASATE

Iturburua galduta dauka eta ez dute ura berreskuratzerik izango, baina barruko guztia garbitu egin dute, eta elkartearen asmoa da barruan argi batzuk jartzea, argiteria publikoarekin koordinatuta, barruko ondarea beirate batekin babestuz eta ikusgarri eginez. Era berean, inguruan mantentze-lanak egingo dituzte, egungo baranda berdea aldatu eta altzairu herdoilgaitzekoa jarri, eta panel informatibo batzuk ere jarriko dituzte, ondo bidean, azaro bukaerarako.

**1390eko dokumentuak**

Garai batean, arrasatear askori ematen zien ura iturriak. Pedro Velez de Guevararen eta Arrasateko hiribilduaren arteko auzietako autoetan, 1390ean, aurkitu dituzte iturriari buruzko lehen dokumentuak. "Gerora, 1457an, 1536an, 1592an eta 1752an, iturri horretan hainbat garbiketa eta bestelako lan egin zituztela dioten dokumentuak ere aurkitu ditugu". 1942an, Union Cerrajerak lursailak erosi eta pabiloi industrial batzuk jarri zituen inguru horretan.



**NIRE USTEZ**

**MARIXE RUIZ DE AUSTRI**

### Ez naiz ni izan

Denok oroitzen dugu txikitzen nola zirikatzen genuen elkar. Zela arkatza kaxoian gordez ondokoak aurki ez zezan, zela haserretuz gero besteari txirikordatik tiratuz. Beste batzuetan albokoari behar zuen plastilina kolorea ezkututzen genion bere obra amaitu ez zezan. Eta askotan egiten genuen zera: atzamar puntarekin bestearen bizkarra ukitu eta gero honek buelta ematean zer gertatu den jakingo ez bagenu bezala beste nonbaitera begiratu, eta ukitua izan denak zerbait leporatuz gero neurona pare batzuk faltako balitzaizkio bezala begiratu.

Nago Europar Batasuna oraintxe egiten ari dena ez ote den hori. NATOk demokraziaren izenean herrialdeak bombardatu eta barne gatazkak areagotu, herritarrek bertatik ihes egiteko beharra sortu, eta gure mendebaldeko integrazio prozesu perfektu honetan atea jotzen ari zaizkigunean beste aldera begiratu, zerikusirik izango ez bagenu bezala. Baina halako jendetza ate joka ari denean harresiei metro pare bat gehitzea ez da nahikoa, hatz puntarekin ukitu eta ezikusiarrena egitea urrun eraman dutelako, urrunegi.

# Denboran atzera egiteko azken txandak Bionan

Joan den asteburuko saio arrakastatsuek erdiguneko taberna beste asteburu batez irekitzera bultzatu dituzte Ez Donk Amaitu ekimeneko antolatzaileak. Beraz, gaur, bihar eta etzi arratsaldean ere bisitatu ahalko da Biona, Kulturaten aurrez izena emanda



Adin guztietako bisitariak, argazki zaharrekin osatutako bideoari begira. GOIENA

## Hasier Larrea ARRASATE

Begiak zabal-zabalik zituztela ibili ziren tabernako zoko guztiak arakatzeko joan den asteburuan zehar Zurgin kantoiko elkargu-nera joan ziren bisitariak. "Hustuta baina esentzia galdu gabe" aurkitu zuten askok Biona, ez mahai-futbolik ezta komunik ez zegoelako; bai, ordea, zabalik zegoenean paretetan jarritako kartelak eta poteora animatzen ziren lagunen eta zerbitzarien argazkiak.

Tabernaren izkina batean dagoen pantailan ere ikus daitezke argazkiok, bideo eran, punk taldeen abestiek lagunduta: "Ordu erdiko txandak direnez, saiatu gara itxura kurioso bat ematen tabernari, bestela aitarien batean amaituko baikenituzke bisitak", adierazi du Txerra Bolinagak, Ez Donk Amaituko kideak.

## Biona, "denona"

Tabernaren izenak Maria Luisa y Marilu Bengoa ahizpek egin-

dako elkarlanean dauka jatorria. 60ko hamarkadan, eraberritu egin zuten lokala, eta, 15 urteren ostean, 1977ko lehen Maritxu Kajoi egunean, gazte talde bati pasa zioten testigua. Haien artean zegoen Sagrario Lopez, Bionak 2008an ateak itxi zituenera arte establezimenduaren kargu egin zena.

Bat etorri dira asteburuko bisitariak urte haietan tabernan "aparteko giroa" zegoela baieztatzean. "Bigarren etxea bezala zen guretzat; sukaldian sartzen ginen edonoiz, kontzertu ugari egiten ziren... Bereizgarri ugari zeuzkan", gogoratu du Bolinagak.

## Itxiera, "pena handia"

Arantzazu Ginartek Bionaren azken urteetan egin zuen bertan lan: "Ez ginen lankideak, lagunak baizik; plazer hutsa izan zen esperientzia hura. Azken eguna oso gogorra izan zen, baina gauzak datozen bezala onartu behar... Historiarako geratu da".

## Emakume isilduei ahotsa emango die azaroaren 25ak

Kontzientziazioa eta sentsibilizazioa handitzea izango dute oinarri aurten ere Indarkeria Matxistaren Kontrako Nazioarteko Egunaren baitan Arrasaten antolatu diren ekintzek. *Nik sinisketan dotzut, eta punto leloa aukeratu dute datorren eguenera begira herriko eragile feministek eta Udalak, "zalantzan jarritako emakumeen kontaktuzunei eta isildutako bizipenei ahotsa emateko helburuarekin". Egun horretan, 19:00etan, Seber Altube plazan egingo duten elkarretaratze eta ekitaldian parte hartzera deitu dituzte arrasatearrak. Abenduaren 2an, 19:00etan, irakurraldi kolektiboa egingo dute Kulturaten.*

## OHARRAK

### Gaztaina erreak

Gaur, 17:00etan, Biterin, Herri Eskolaren ekimenez. Txosna eta erosteko eskolako materiala ere jarriko dute.

### Jostailu bilketa

Gaur, 17:00etatik 18:30era, Santa Marinako ludotekan; bihar, 12:00etatik 13:30era, Santa Teresako parkean.

### Baserritarren azoka

Bihar goizean, Seber Altuben; 11:00etan, babarrun dastaketa.

### Lizentzia eskaerak

Arbolapetan kamioi-denda bidez ogitartekoak, patata frijituak, txurroak, gaztainak eta bestelakoak saltzeko. Azaroaren 30era arteko epea.

EROSKI club-ekoa baldin bazara azaroaren 22tik 28ra arte

# BEZa

OPARITZEN DIZUGU ASTE OSOAN ZEHAR

elektronikan eta etxetresnetan\*

\*Kontsultatu baldintzak dendan.

Bazkidea bazara

## OPTIKAN

BEZa oparitzen dizugu

Azaroaren 25etik 28ra

vittae EROSKI/óptica

IRITSI DA UNEA

# BLACKFRIDAY

DESKONTU BEREZIAK

ARRASATE

Musakola z/g ARRASATE,

Tel.: 943 71 10 30



Talde bakoitzari banan-banan argazkiak ateratzeaz batera, familia erretratua ere egin zuten. ARGAZKIAK: IMANOL SORIANO

# 'Danon artien' errugbia sustatzeko lanean

Arrasate Rugby Taldeak iaz "galdutako" urtea errekuperatzen hasteko ekimena egin zuen zapatuan Seber Altuben. Herritarren aurrean taldeak aurkeztu zituzten, eta klubean abian jarri duten 'Danon artien' ekimena hauspotu zuten

## Xabier Urzelai ARRASATE

Normalean, Mojategin janzten dituzte elastiko zuri-moreak, baina zapatuan *berdegunea* Seber Altubera eroan zuten ART-ko lagunek. 10 urtez azpikoetatik hasi eta senior mailako taldeetaraino, errugbi inklusibokoak barne, batu ziren Arrasateko erdialdean. Izan ere, tarteka, beharrezkoa da taldeak euren kirol instalazioetatik atera eta herritarren aurrean "hemen gaude" aldarrikatzea. "Iazko urte gogorren ondoren gu ere aurrera goazela esateko modua izan zen", adierazi dio GOIENARI Julen Barrutia kirol zuzendariak.

## Asteburuan partidua

Asteburuan etxean jokatu dute senior mailako gizonezkoek: "Bilbotarrak datoz zapatuan (16:00) eta badakigu partidu zaila izango dela. Baina jokatu dugu lau partiduetatik hiru irabazi egin ditugu, gu ere ondo gaude". Emakumezkoek, kontrara, Ordizian jokatu dute, bertako taldekideekin, Hernaniren kontra: domekan, eguerdiko hamabietan.

## "Herritarren aurrean klubaren indarra erakutsi gura genuen"


JULEN BARRUTIA ARRASATE RUGBY TALDEKO KIROL ZUZENDARIA

### Zer moduz taldeen aurkezpena?

Oso ondo; jokalaria mordo batu ginen, eta, hala ere, jende asko falta da talde erretratu horretan, asko ezin izan ziren etorri. Horrekin batera, badakit *Danon artien* ekimenaren bueltan kamisetak, garagardoak eta halakoak ere salgai egon zirela.

### Helburu konkretua izaten dute halakoek.

Bai; errugbia kalera ekartzea, besteak beste. Beste urte batzuetan, esaterako, Garagardo Jaiarekin egiten dugu hori, plazan karpa jarri eta asteburu osoko jai antolatuta. Baina iaz ezin izan genituen halakoak antolatu; COVIDa tarteko urte gogorra izan da, eta taldeak jendartean aurkeztea bada gu ere aurrera goazela erakusteko modu bat.



GOIENA

### Pandemiak ez ditu zapuztu abian jarri berri zenituzten zenbait proiektu: errugbi inklusiboa, emakumezkoen taldea...

Hala da; lanean ari dira denak, poztekoa da. Errugbi inklusiboko entrenamendu saioetan 15-20 lagun inguru batzen dira, behar berezia duten jokalaria, jokalaria beteranoak, gurusoak... Eta emakumezkoendako esperientzia hartzeko urtea da.



Senior mailako emakumezkoen argazkia.



Senior mailako gizonezkoen argazkia.



Errugbi inklusiboko taldea.



Giltzarri abesbatzako kideak. 'ERRAN.EUS'

# Kantu korralen oholtza izango da San Frantzisko

Seber Altubeko elizak Lesakako Giltzarri abesbatza jasoko du bihar, hilak 20, arratsaldeko zazpitan. Txorbela Otxoteak gonbidatuta etorriko dira nafarrak, ekainean abesteko aukera eman baitzieten arrasatearrei Bortzirietako herrian

**Hasier Larrea** ARRASATE

Pandemiak gogor astindu du kultura, baina poliki-poliki badabilta martxa hartzen askotariko alorretan aritzen diren taldeak. Hala ere, hilabete luzeetako etenak eragingo dituen ondorioak oraindik ez dira begi bistakoak. Kantu taldeek, esaterako, urduritasunez bizi dituzte garaioak, kide asko erretiratuak ohi direlako, eta jakina da ohitura aldaketetara moldatzea nekagarriagoa izaten dela adin batetik aurrera.

Hala ere, ahaleginak egin dituzte afizio eta ohiturak mantentzeko. Dozena bat kide baino gehiagoz osatuta dagoen herriko Txorbela Otxoteak, esaterako, modu telematikoan entseatzeko pausoa eman zuen, aurrez aurre gelditzea debekatuta egon zenean. Urtebeteko etenaren ostean, joan den apirilean egin zuten pandemia garaiko lehen entsegua euren lokalean. Eta behin elkartzan hasita, ezin kontzertuak egiteko gonbidape-

nei muzinik egin. "Oso garrantzitsua da kontzertuak antolatzen jarraitzea; izan ere, bi urtez geldirik egoten bagara, zenbat talde egongo dira prest ikuskizunetara bueltatzeko gero?"; galdera hori bota du Txorbelako kide Jose Julio Herizek.

## Zirkulua ixtera

Hala, Lesakan abestu zuten publiko aurrean lehenengoz 16 hilabeteren ostean, ekainaren 11n: "Ez geunden oso prestatuta, baina sekulako gogoz geunden". Kantu taldeko zuzendariak, Xabier Badiolak, Bortzirietako Giltzarri abesbatzarekin duen harremanaren fruitua izan zen hitzordu hura. Orain, faborea bueltatzeko aukera dute. "Gure

**40 KIDEK OSATZEN DUTE GILTZARRI, ETA KANTATU EZ EZIK MUSIKA-TRESNAK ERE JOTZEN DITUZTE**

artean oso ohikoa dugu halako trukeak egitea, ez dugu-eta aukera askorik izaten bestela", aipatu du Herizek.

Ondorioz, urtean zehar behin baino gehiagotan egiten duten lez, San Frantzisko eliza ahots korda landuen agertoki bilakatu dute bihar. Aldarera ez dira edonolako kantariak igoko, Giltzarri abesbatzak mende laurdeneko ibilbidea baitauka; gaur egun, Baztan eta Bidasoa inguruko partaide ugariz osatuta dago.

Txorbelakoek azaldu dutenez, Giltzarrikoek errepertorio zabala daukate: "Antzinako musikatik gaur egungo konposaketara, Amerikako, Europako eta Euskal Herriko kantauk aukeratzan dituzte".

Gainera, kontzertuak berezigo egiteko asmoz, hainbat musikariren laguntza ere izaten dute momentu batzuetan: piano, organo, saxofoi, klarinete, flauta eta tronpetekin apaintzen dituzte ahots kantarien doinuak.

## Punk-rock estiloko kontzertua gaztetxean, debut eta guzti

Kontralde taldeak lehen emanaldia egingo du, Rebel Noise eta Sustrai Berriak-ekin, bihar, 22:30ean hasita

**H.L. ARRASATE**

Arrasateko punk-oi! mugimenduaren bueltan sortu diren taldeen zerrenda luzeari beste izen bat gehitu behar zaio: Kontralde. *Hala bazan* saioko bideo-inkesta bateko erantzun xelebrean inspiratu dira 112, Rebel Noise eta Bloom taldeetako zenbait kide eratu berri duten laukoteari titulua jartzeko. Horietako bat da Mikel Bolinaga gitarra-jolea, eta aipatu du "ezagutzera emateko asmoz" hitzartu dutela zapatu gauekoa: "Bloom bukatu zenean abesti batzuk neuzkan bueltaka, eta proiektu berri bat osatu nahi zuten musikariekin berba egin ostean hasi ginen batzen eta entseatzan".

Beraz, abesti propioak eta bertsiok joko dituzte, Rebel Noiseren antzera. Azken horiek ilusioz gainezka dauden musikari gazteak dira, oholtzetan



Bolinaga, Bloom-ekin. IMANOL SORIANO

esperientzia dezente pilatzen dabilzanak, bailaran zehar makina bat kontzertu jo baitute.

Eta hirugarren talde gonbidatua Iruñeko Sustrai Berriak da. *Garun setiatuak* bigarren diskoiko kantak eskainiko dituzte, besteak beste.

## Haurrentzako ipuinen kontaketa hilaren 24an eta 25ean

Arrasateko Udal Bibliotekak etxeko txikienei begirako pare bat ekitaldi antolatu ditu datorren asterako. Hasteko, eguaztenean, Santa Marinako bibliotekak Lur Korta jasoko du, arratsaldeko seieta hasita. Oiarzuarrak 20 urte baino gehiagoko eskarmen-tua dauka haurrei zein helduei ipuinak kontatzen. Oraingoan, 5 urtetik gorakoei egokitutako

istorioak kontatuko ditu, bere ohiko estiloan, antzerkigintzari ere atek irekiz. Udalaren webgunean eman behar da izena aurretik.

Hurrengo egunean, ordu berean, Ines Bengoa izango da 3 eta 4 urte artekoen arreta bereganatuko duena. Aberingo kontalaria 2002an murgildu zen mundu horretan, eta trebea da umeak hitzen, soinuak eta abestien bidez entretenitzen. Kulturaren izango den emanaldirako sarrerak agortu dira jadanik.

## Portaloiko elkarteak abesteko entsegu berrekingo die

Saio irekia egingo du domeka honetan, Iturriotz kaleko Harreri aretoan, Portaloiko kultur elkartearen abesti taldeak, 18:00etan hasita: "Bi urtez geldirik egon ostean, abestu nahi duen oro gonbidatzen dugu entsegura, kanta zaharrak erreperatuzko, dakizkigunak abesteko eta berriak ikasteko". Maskara jartzea derrigorrezkoa izango da.

## OHARRAK

### Serge Irati tabernan

Domekan, hilak 21, Serge bakarlariak *Leihotik mundura* diskoa aurkeztuko du, 18:30ean hasita.

### 'Bookface' lehiaketa

12 eta 16 urte artekoek hilaren 30era arte izango dute argazkiak *kulturate@arrasate.eus*-era aurkezteko epea. Elkar liburu-dendan erosteko 150 euroko bonua dago jokoan.



Gaztetxo bat barazkiak zuritzen. A.E.G.

## Sukaldeko epelean, gazte aisialdia sortzen

12 eta 16 urte arteko gazteei zuzendutako 'Masterchef' ekimena egingo dute bihar, zapatua. Eskolako jantokian elkartuko dira, 11:30ean, eta pintxoak prestatu beharko dituzte. Nerabeek elkartu eta elkarrekin ondo pasatzeko ekimena izango da

**Arantzazu Ezkibel Galdos** ARAMAIO Bada denbora bat Aramaian nerabeen aisialdiaren inguruko hausnarketa egiten hasi zirela. Hainbat gabezia ikusi, eta nerabeen beharrei erantzuteko asmoz hasi zuten prozesua. Uda aurretik, Txatxilipurdi elkar-tearekin hainbat bilera egin zituzten. "Prozesu hark ekarri zuen hainbat gazte elkartzea, aisialdi taldea osatzeko. Horrela sortu zuten, besteak beste, udako *Gazteuda* eskaintza", azaldu du Oihana Ameskua zinegotziak. Gazteek nerabeekin batera diseinatutako ekintzak egin zituzten udan, uztailean.

Prozesu horrek jarraipena izan du, eta orain beste ekimen batetik datoz.

**'Masterchef': sukalde kontuak** Oraingo honetan, sukaldaritzakontuekin datoz Aramaioko gaztetxoak: *Masterchef* lehiaketa egingo dute. 12-16 urte bitarteko gazteei zuzendutako lehiaketa izango da.

Eskolako jantokian elkartuko dira, 11:30ean. Ekintza horretan parte hartu nahi duenak aurrez izena eman beharko du, online dagoen galdetegia beteta. Gazteek, taldeetan banatuta, pintxoak prestatu beharko dituzte. Epaimahai lanak hezitzaileek egingo dituzte. Hala, gazteek prestatutako pintxoak dastatu eta puntuazioa eman beharko dute.

Platerean aurkezteko modua, itxura, zaporea... izango dituzte kontuan, sukaldaritzak lehiaketa ezagunean bezala. Hala ere, nabarmendu behar da sukaldaritzak lehiaketa bat baino gehiago izango dela Aramaioko *Masterchef*. Izan ere, *Gazte aisialdia sortzera goiez!* lelopean egindako lehiaketaren helburu nagusia nerabeak

**GAZTETXOEK PINTXOAK PRESTATU BEHARKO DITUZTE, TALDEETAN BANATUTA, ESKOLAKO JANGELAN**

elkartu, elkarrekin ondo pasatu eta aisialdi talde hori gorpuzteko topaketa izatea da.

### Hainbat bilera ireki

Apiril erdialdean hasi zuten nerabeen aisialdia antolatzeko prozesua. Bilera irekia egin zuten udaletxean, eta 17 lagun elkartu ziren. 12 urtera arte "Aramaion haurtzaro osasuntsu, duin eta aberatsa" izateko aukera dutela azaldu zuen Ameskua orduan; baina 12 urtetik aurrera herriarekiko eta baita hizkuntzarekiko "desafektazio handia" gertatzen dela. Horrez gain, azkeneko urte honetan nabarmenago egin da nerabeek duten espazio falta.

Apirilko bilera irekiari maiztekoak hartu zion lekukoa. 16 urtetik gorakoei zuzendutako formakuntza-saioa egin zuten, lau ordukoa. Dinamika horien bitartez, aisialdi aukerak aztertu eta belaunaldi ezberdinak elkarrekin aritzeko proposamenak garatu nahi dituzte.

## AHTak kaltetutako errepideak konponduko ditu Adif-ek

Kontratua 2.213.303,81 eurokoa izango da, BEZa barne, eta 12 hilabeteko epean egin beharko dira lanak

### A.E.G. ARAMAIO

Espainiako Trenbide Azpiegituren Administrazioaileak (Adif) lizitazioa atera du Aramaioko zenbait gunetan errepidea konpontzeko lanak. Hain zuzen ere, Abiadura Handiko Trenaren lanek kaltetutako eta hondatutako errepide zatiak konpontzeko lanak izango dira.

### Hiru gunek

Hiru gunetan egingo dituzte hobekuntzak: Untzillan, A-3920 eta A-4021 errepideetan; Zabolan, A-4021 errepidean; eta A-3920 errepidean 32/360 eta 32/720 puntu kilometrikoetan.

Kontratua 2.213.303,81 eurokoa izango da, BEZa barne, eta eskuratzen duen enpresak 12 hilabeteko epea izango du jarraian aipatuko diren lanak egiteko.

Untzillan, A-3920 errepidean, bidegurutzean, 250 bat metro



A-3920 errepidea. A.E.

hobetuko dituzte; Zabolan, La-saba baserriaren aurrealdean, hiriguneko zeharbidea konponduko dute, bihurtzeko espazio gehiago emanda. Azkenik, A-3920 errepidean, Aramaio erreka zeharkatzeko egitura berri bat egingo dute.



SAN MARTIN ESKOLA

## Eguzki taldekoak, Zumaian

San Martin eskolako bigarren zikloko ikasleak, hain zuzen, Eguzki taldekoak, Zumaian izan ziren joan den egubakoitzean. Gizarte ikasgaietan landutakoak bertatik bertara ikusi zituzten; besteak beste, plana eta paisaia landu dituzte proiektuan. Egun ederra pasa zuten Zumaiara joandako gaztetxoak eta irakasleak.



# "Iazko urteak eguneroko dinamika apurtu zuen"

**HERIBERTO ARRIOLABENGOA** PILOTAKO ZUZENDARITZAKO KIDEA

San Martin pilota txapelketa bukatu berri dute, eta zuzendaritzan pozik daude izan duen erantzunarekin. Federatu mailan pilotari kopurua jaitsi egin da Aramaion

**Arantzazu Ezkibel Galdos** ARAMAIO

Eskolartekoan lan txukuna egin dutela-eta pozik daude Aramaio-ko pilota elkarteko kideak. Orain, Arabako Lurralde Txapelketa-rekin dabilta.

**Nola baloratzan duzue txapelketak emandakoa?**

Oso pozik gaude; azkenean, pilotari asko etorri ziren, nahiz eta orain dela urte batzuk baino kopuru txikiagoa izan. Hain zuzen, zuzendaritza taldekook balorazio oso positiboa egiten dugu. Gainera, finalaren egunean oso lehia politak ikusi genituen. Eskolarteko pilotariak dira San Martin txapelketa jokatzen dutenak.

**Eskolartekoa bukatuta, Arabako Lurralde Txapelketa duzue Aramaion orain?**

Bai; martitzenetan izaten dira partiduak. Arabako Lurralde Txapelketa da, eta txapelketa horretan Markel Arriolabengoa aramaioarra dugu. Hain zuzen, martitzenean jokatu zuen, hemen, Aimar Kintanaren aurka, eta 22-19 irabazi zuen. Horrenbestez, finalerdietako txartela lortu du.

**Aurten, hainbat pilotarik utzi dute pilota. Zer gertatu da?**

Iaz, oso urte txarra izan zen; horrek dakar eguneroko dinamika, entrenamenduak partiduak... hori guztia galtzea. Ape-



Heriberto Arriolabengoa. A.E.

**"FEDERATU MAILAN BI PILOTARIK JARRAITUKO DUTE: ARRIOLABENGOAK ETA OLAIZOLAK"**

nas jokatu zuten partidurik. Hori horrela, oso zaila da federatu moduan jarraitzea. Zaleatasun handia izan behar duzu aurrera egiteko.

**Nortzuek jarraituko dute federatu mailan?**

Bi pilotarik jarraituko dute: Markel Arriolabengoa Legutioko elkartearen jokatu du eta Julen Olaizolak, azkeneko urteetan moduan, Orozkoko taldean jarraituko du. Olaizola eskutik txarto ibili da azkenaldian, baina aurrera egin du eta seniorretara pasa da. Pilotari serioa da eta nahiko ondo dabil. Bestalde, Arriolabengoa Legution jokatuko du. Arabako Lurralde Txapelketa dabil jokatzen, 22 urtez azpikoen kategorian. Martitzenean garaipena lortuta, finalerdia jokatuko du.



JULEN AXPE

## Onena, Julen Axperen argazkia

Udalak antolatutako argazki lehiaketako irabazle nagusia Julen Axpe da. Urtarrilean egindako argazki batek irabazi du saria. "Larrazabal deitzen den txoko baten aterata dago, Kruzetatik Orixol aldera. Denok ilaran jartzea pentsatu nuen, politagoa izateko", dio Axpek. Julen Abarrategi, Iñaki Lasaga, Maite Mateo eta Ane Arrizabalaga ere saritu dituzte.

## 'Xala' liburua aztertuko dute azaroaren 29an

Irakurle klub feministak azaroaren 29an izango du hurrengo hitzordua. *Xala* liburua irakurri eta aztertuko dute hurrengo saioan. Nahi duenak Aramaio-ko liburutegian eskura dezake liburua; maileguan hartu besterik ez du.

KZgunean izango da saioa. 18:00etan hasiko da eta 20:00ak arte iraungo du.

Gorbeialdeko Kuadrillaren eta Laia eskolaren ekimena da feminismoa eta irakurketa batzen dituen kluba. Ainhoa Aldazabal da taldearen dinamizatzailea eta berak proposatutako liburuak irakurtzen dituzte, saioetan aztertuko. Saioetan parte hartzeko interesa duenak mezu bat idatz dezake [berdintasuna@gorbeialdea.eus](mailto:berdintasuna@gorbeialdea.eus) helbidera, edo telefonoz deitu 945 43 01 67 zenbakira. Cynthia Ozick idazlearen lana da *Xala* -Koro Nabarrok euskaratua-.

## Finalerdia jokatuko du martitzenean

2020ko Arabako Lurralde Txapelketan, gazte mailan, txapela irabazi zuen Markel Arriolabengoa. Aurten, 22 urtez azpikoetan dabil lehiatzen, eta txapela berriro ere jantzea du helburu. "Lehia gaizki hasi nuen, 3-9 galtzen, baina 12-12 egin eta irabaztea lortu nuen", dio pilotariak martitzeneko lehiatz. Finalerdia azaroaren 23an izango du, Aramaion.



Markel Arriolabengoa 2020ko txapelarekin. ASIER DEL CAMPO

## Aramaio-ko futbol jokalariek domekan jokatuko dute

Domekan 18:00etan jokatuko du Aramaio Tropikala futbol klubak Aldaben, Pub La Comarca taldearen aurka. Ligako hirugarren jardunaldia izango da. Lehen bi partiduak jokatuta, aramaioarrak seigarren postuan daude, partidu bat irabazita eta beste bat galduta. Pub La Comarca, berriz, bederatzigarren postuan dago.

## Mendiko aseguruak berritzeko epea zabaldu du Orixolek

Orixol mendizale elkarteak 2022ko mendiko aseguruak berritzeko edo aldaketak egiteko aukera eskainiko du abenduaren 3ra arte. Horretarako, bi bide ipini dituzte: mezua idaztea [orixolme@hotmail.com](mailto:orixolme@hotmail.com) helbidera edo kultura etxeko bulegora joatea, egunetan, 19:30etik 20:30era. Ezer egiten ez duenari gaur egungoa berrituko diote.

# Indarkeria matxistaren aurka jarduteko gertu

Emakumeekiko edozein indarkeria mota desagerrarazteko aldarrikapena kalera aterako dute Udalak eta Mugimendu Feministak, eta azaroaren 25eko mobilizazioetan parte hartzera gonbidatu dituzte herritarrak; beste ekintza batzuk ere izango dira

**Mirari Altube** ARETXABALETA

Indarkeria Matxistaren Kontra Nazioarteko Eguna argitara atera eta emakumeekiko edozein indarkeria mota desagerrarazteko lanean jarraitu beharraz sentsibilizatu gura ditu Udalak herritarrak. Hori erakusteko, puntu morea jarriko dute udal txeko balkoian, eta hainbat ekintza antolatuta dituzte azaroaren 25aren bueltan. Egun horretarako Mugimendu Feministak deitutako mobilizazioarekin bat egin du, eta herritarrak ere gonbidatu ditu bertara; Azbetik irtengo da manifestazioa, 18:30ean.



Udal ordezkariek, Mugimendu Feministako kideak eta herritarrak, 18:30ean. M.A.

## Sentsibilizazioa lantzen

Udal talde politikoetako ordezkariek osatuta dagoen Berrintasun Batzordean adierazpen instituzionala adostu dute. Emakumeen aurkako indarkeria mota guztiak gaitzetsi ditu horren bitartez Udalak, eta "konpromiso irmoa" berretsi du emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko gizarte bat lortzeko lanean jarraitzeko. Era berean, gogorazi nahi izan dute aurten bost emakume hil dituztela Euskal Herrian eta 2003tik –emakumeekiko indarkeriari buruzko datuak jasotzen hasi zirenetik– 112 emakume eta 11 haur izan direla eraildakoak. "Gizarte osoaren arazoa" dela jakitun, jendartearen eraldaketa osoa lortzea dela helburua adierazi dute. Horregatik, azaroaren 25erako antolatutako ekitaldiekin bat egin du eta herritarrak ere horietara gonbidatu dituzte.

Era berean, adierazpenean jaso dute "prebentzio eta sentsibilizazio ekintzak proposatzen eta eskaintzen" jarraitzeko Udalaren asmoa. Ildo horretatik, *Nerabe eta gazteen arteko indarkeria matxistaren aurkako protokoloa* sortu berri dute, Udaleko sail batzuen eta herriko

## Azaroaren 25a dela-eta antolatutakoak

Aretxabaletako Udalak eta Mugimendu Feministak egunotarako zehaztutako mobilizazioak eta ekintzak.

### Azaroak 19 eta 26

- **18:30** Dokumentala: *Chhaupadi*. Nepalgo emakumeen egoera jasotzen duen Eburne Pasabanen filma.

### Azaroak 25

- **Goiz partean** Neska\* gazte ikasle tailerra ikastetxeetan.
- **18:30** Mobilizazioa, Azbetik irtenda.

### Azaroak 28

- **19:00** Antzezlanak: *Adela eta Martirio Bernarda Albaren etxean*. Garcia Lorcaren klasikoaren moldaketa Naita Produzioak-en eskutik.

hainbat eragileren arteko elkarlanari esker.

### Dokumentala eta antzezlanak

Egunotako kultura ekitaldiek ere bat egingo dute gaiarekin. Hala, Nepalgo emakumei ahozta jartzen dien Eburne Pasaban mendizalearen *Chhaupadi* dokumentala emango da azaroaren 19an eta 26an, Arkupen (18:30). Antzinako tradizio hindu bat da *chhaupadi*, eta emakumeak behartzen ditu hilerokoarekin dauden bitartean txabola batean egotera, nahiz eta ohitura hori legez kanpokoa izan. Erljio hinduistaren kultura matxista eta tradizionalagatik protesta egitea erabaki duten emakumeekin izan da Pasaban.

Azaroaren 28an, ostera, antzezlanari egingo diote lekua Arkupen. *Adela eta Martirio Bernarda Albaren etxean* antzerki ikuskizuna izango da (19:00). Umore ukituak dituen drama, musikal grotesko eta poetikoa da, Federico Garcia Lorcaren antzezlanean oinarritua. Naita Produzioak-en proiektua da, eta genero ikuspegitik landuko du klasiko hori, aldarrikapen feminista ginez.



1890 urte betetako bazkide batzuk mahaiaren bueltan Basotxon. MIRARI ALTUBE

## 1890 urte betetako bazkideak omendu dituzte Basotxon

Guztira hamasei baziren ere, zortzi joan ahal izan ziren erretiratuen egoitzan egindako ospakizunera

**M.A.** ARETXABALETA

Pandemiak atzeratutako omenaldi ekitaldia egin zieten joan den egubakoitzean Basotxo erretiratuen elkartekoek 2020an 90 urte bete zituzten bazkideei. Hamasei ziren deitutakoak, baina zortzi elkartzu ziren; hona hemen: Maria Concepcion Eriz, Maria Josefa Garciaetxabe, Maria Begoña Olazabal, Carmen Errasti, Julian Mendo, Ascension Rodriguez, Elvira del Canto eta Mari Carmen Los Santos.

Ohi baino gonbidatu gutxiago izan ziren, jende pilaketarik ez zedin gertatu, baina ospakizunek

ez zuten hutsik egin. Unai Elkoro alkateak zoriondu zituen lehenengo, eta elkarteko zuzendaritzako kideek opariak banatu zizkieten. Basotxoko kantu taldeak hainbat abestirekin girotu zuen ekitaldia, eta, bukatzeko, txokolate beroa hartu zuten elkartutako guztiek.

### Aurtengoak, abenduan

Omenaldi ekitaldi hori Santa Luzia egunez egin izan du beti Basotxok. Ildo horretatik jarraituz, aurtengo bazkideak abenduan omentzea da asmoa, osasun egoerak uzten badie, behintzat.

## Almodovarren 'Madres paralelas' filma aste bukaeran

Emakumeak protagonista diren bi film izango dituzte helduek datozen egunetan. Almodovarrek zuzendutako *Madres paralelas* emango dute egubakoitzean (22:00), zapatuan eta domekan (19:30) eta astelehenean (16:00). Eta hurrengo aste bukaeran, Iciar Bollainen *Maixabel*; azaroaren 25ean (22:00), 26an eta 27an (19:30) eta 29an (16:00). Zinemarako sarrerak 5 euro ordaindu behar dira eta astelehenean emanaldirako, 3 euro.

Haurrei bideratutako film artean, *La familia adams 2: La gran escapada* izango da zapatuan eta domekan (17:00) eta azaroaren 27an *D'Ortagnan eta hiru mosketxakurrak*.

## Frontenis txapelketan izena emateko azken eguna da gaur

UDAK antolatutako bikote mistoen arteko frontenis txapelketan izena emateko epea gaur, azaroak 19, bukatuko da. Dagoeneko sei bikote agertu dira parte hartzeko gertu, eta antolatzaileen gogoa da gehiago izatea; hona hemen horretarako helbide elektronikoa: [udafrentenis@gmail.com](mailto:udafrentenis@gmail.com). Prezioa 10 euro da bikoteko, eta hori ordainduko dute lehen partidua jokatzera.

Txapelketa azaroaren 27an eta 28an jokatu dute, Iturrigorri pilotalekuan, eta UDAREN asmoa da giro polita sortzea horren bueltan. Izan ere, txapelketa berria ez bada ere, elkartearen 75. urteurrenaren egitarau barruan sartu dute aurten.



Angel Barandiaran zuzendaria entsegu saioa zuzentzen parrokan, eguazten iluntzean. MIRARI ALTUBE

# Abesbatza, kantuan hasteko ezin gogotsuago

2020ko martxoan ezker ez dute jendaurrean abestu, eta domekan, Santa Zezilia bezpera, meza nagusian egingo dute kantuan. Gabonei begira bi emanaldi gertatzen dihardute: bata bakarlariek egingo dute eta bestea, urteroko kontzertua

## Mirari Altube ARETXABALETA

2020ko martxo hasieran erabaki zuen Aretxabaleta Abesbatzak isiltzea, eta, orduetik, apenas egin dute entsegurik, aurtengo urri-ara arte. Pozik elkartu da berriro taldea, eta jendaurrean abesteko gogoz dago. Domeka honetako meza nagusian (12:30) Santa Zeziliaren omenez egingo dute kantuan.

## Neurriak beteta

"40 urteren ondoren bat-batean isildu behar izana ez da gustukoa izan; eta, gainera, ia bi urte eman behar horrela. Hortaz, pozik elkartu gara berriro", adierazi du Javier Marcos presidentek, eta gaineratu: "Herritarrek ere esan digute faltan igarri gaituztela elizkizunetan zein bestelako ekitaldi batzuetan". Orain,

itzultzeko erabakia hartu dute eta lanean ere hasita daude, nahiz eta jakin ez noiz arte izango den: "Ikusi egin behar zer datorren". Abesbatzan bertan ere izan dituzte COVID-19 kasu batzuk, eta, horregatik, osasun neurriak zorrotz betetzearen alde egin dute: "Larri ere egon dira kide batzuk. Entseguekin hastean taldearen osasuna lehe-

netsi dugu eta arauak zaintzen ahalegin handia egiten gabilta; maskararekin abesten dugu, distantziak zainduta, eta txertoa hartutakoak elkartzen gara".

## Gabonetako kontzertua

Santa Zeziliari kantuan eginda bueltatuko dira jendaurrean domeka honetan. "Ea mezak abestera itzultzen garen hementik aurrera. Oraingo, zaindaria-riaren eguna ospatuko dugu", dio Angel Barandiaran zuzendariak.

Aurrera begira, Gabonak dituzte begiz jota, eta bi emanaldi gertatzen hasita daude. Abenduaren 19an, domeka, bakarlarrien kontzertua izango da: "Musika eskolan ikaste dihardutenek eta abesbatzako bakarlariek elkarrekin emango dute". Eta abenduaren 26an, Gabonetako

kontzertua eskainiko du Aretxabaleta Abesbatzak, urte askoan egin izan duen legez: "Betiko abestiak izango dira; euskaldunak, amerikarrak eta euskaraz abestutako alemaniarren bat ere badago. Musika eskolako umeen abesbatzak ere hartuko du parte, kantu batzuk bakarrik eta beste batzuk elkarrekin eskainiko ditugu". Aretxabaleta Abesbatzaren parte izandako hainbat kide ere gogoan izan gura dituzte kontzertu horretan: "Isilik egon garen denboran hainbat hil dira, baita

**ABENDUAREN 19AN BAKARLARIEN EMANALDIA IZANGO DA ETA GABONETAKO KONTZERTUA, 26AN**

## Plan Orokorra lantzen hasteko lehen saioa eguaztenean

Herritarrek parte har dezaten hainbat bide zabaldu dituzte, eta galdetegi bat prestatu dute

## M.A. ARETXABALETA

Hiri Antolamenduko Plan Orokorra (HAPO) definitzeko prozesuari ekin berri dio Udalak, *Nahi dugun Atxabalta* leloarekin. Lehen fasean udalerraren egungo egoeraren diagnostikoa jaso-

ko da, eta udal ordezkariekin batera eragileek eta herritarrek esku hartuko dute. Horretarako bideak zabaldu dituzte, eta eguaztenean, hilaren 24an, parte-hartze saio bat egingo da Arkupen (18:00). Horrez gain, galdetegi

bat ere prestatu dute herritarrek erantzun dezaten. Udalaren webgunean [aretxabaleta.eus](http://aretxabaleta.eus)-dago zintzilikatuta eta abenduaren 3a arte erantzun ahal izango da.

Plan Orokorrean bederatzi arlo landuko dituzte: ingurumena; mugikortasuna; espazio publikoa; etxebizitza; jarduera ekonomikoa; ekipamenduak; ondarea; jasangarritasuna eta klima aldaketa; eta inklusibotasuna eta osasuna. HAPOren gaineko informazioa [www.hapo-aretxabaleta.eus/eu](http://www.hapo-aretxabaleta.eus/eu) webgunean jasoko dute.



Durana kalea. M.A.

Jou Díaz  
  
 Harakina  
 Durana 15  
 Tel.: 943 79 71 69  
 20550 ARETXABALETA

# "Odol berria gura dugu Ametzueta lagunartean"

**SALVA RODRIGUEZ AMETZUETA TALDEKO PRESIDENTEA**

2005eko azaroan 149 bazkiderekin sortu zuten eta Realeko lagunartean gidaritza daroa ordutik; hainbat urtean ezer antolatu barik egon ondoren, "gogotsu" datoz

**Mirari Altube** ARETXABALETA

Ametzueta lagunartean hamasei urte beteko ditu datorren astelehenean. Hainbat realzale aretxabaletar elkartu eta ilusio handiarekin sortutako taldea lo egon da azken urteetan. Salva Rodriguez presidentea hori esnatzea erabaki du, eta lagunartean beste bultzada bat emateko gogotsu agertu da.

**Ametzueta bizirik dago?**

Bai, bai. Azken urteotan ez dugu ezer egin, baina realzaleak hemen gaude eta bueltan gatoz.

**Etxeko partiduak ikustera joateko autobusa egongo da domeka honetatik aurrera.**

Hori da. Eskaera egin genion Realari eta baietza jaso genuen. Hortaz, domekan, Valentziaren aurkako partidua ikustera joateko autobusa Aretxabaletan bertan hartuko dute realzaleek, aspaldiko partez.

**Ametzuetak egindako eskaera izan da, orduan?**

Egia esanda, neure burutazio bat izan da; pentsatu eta egin. Aitor Mendibilek lagundu dit apur bat, eta neure partetik beste apur bat jarrita aurrera egin du kontuak.

**Eta zelako harrera izan du?**

Oso ona; garaia zela horretarako esan didate askok eta askok. Aretxabaletarrak gustura eta Eskoriatzako hainbat ere bai. Orain, autobusa betetzea espero dut partidu guztietan. Gainera, betez gero eta jendea kanpoan geratu, Arrasatekoa etorriko litzateke horien bila. Txartelak Arlutz tabernan hartu beharko dira eguen gauerako bi euroren truke, eta autobusa irtengo da partidua hasi baino bi ordu lehenago.

**Probintziatik joaten diren zaleak estimatzen dituzte?**

Bai, bai. Autobusen ardura-duna gogoratu egiten zen gurekin, eta esan zidan: "Aretxabaleta eta Eskoriatza aldean zale ugari daudela esan didate, eta



Salva Rodriguez, bazkideen erregistro-liburua aurrean duela. MIRARI ALTUBE

**"KANPOKO PARTIDUETARA ERE JOAN GURA DUGU; NORA? REALAREKIN EDONORA!"**

oraindik autobus barik?". Bazkide gazte gehienek, gainera, *Bultzada* egoten den harmailan dute lekua, zale animatuenak dauden tokian.

**Ohiko partiduez gain, beste ezer egiteko asmorik baduzue?**

Bai, bai. Realarekin kanpora ere joan gura dugu. Nora? Edonora! Oraingoz, Vallecás aipatu didate; ikusiko dugu.

**Bakarrik ez zara ibiliko halako lanetan, ezta? Lagunarteko bazkideen babesik baduzu?**

Bai, noski. Nirekin batera daude antolatze lanetarako gertu Iker Iturrikastillo, Alberto Calvo, Mikel Iturbe, Ekain Andres eta Ander Hernandez.

**Aipatutako gehienak Ametzuetan daude sorreratik; jende gaztea sartzeko asmorik baduzue?**

Hori gurako genuke. Ekain Andres, adibidez, Arlutzeko lagunartekoa da, eta orain Ametzue-

tan sartu dut. Bazkide gazte asko dago, eta horiek ekarri gura ditugu lagunartera, odol berria behar dugu eta.

**Zu zeu joaten zara partiduetara?**

Ez. 2008an utzi egin nion bazkide izateari, denborarik ez kentzeko familiari. Baina datorren urtean semearekin batera egingo naiz bazkide.

**Gustuko du futbola semeak ere?**

Oraindik umea da, baina bai; UDAn dabil entrenatzen.

**Eta realzalea izango da, ezta?**

Horixe! Gure etxean realzalea izan behar da, *legeak hala aginduta*. Argi gero! Athleticzalea izanez gero, etxetik botako dut! **Lagunartean sorreran hainbat jokalariren bisita izan zenuten.**

Bai; 2006ko otsailean etorri ziren Lopez Rekarte, Barkero eta Morten Skoubo daniarra. Elkarte bataiatzeko egindako agerraldia izan zen.

**Oraingoz ez da halakorik egongo, baina jardunari berrekingo diozue.**

Bazkideen zerrenda berritzeko asmoa dugu; bakoitzak 10 euro jarriko ditugu eta ekintzak antolatu: kanpora joateko autobusak, elkarte berrinauguratu... Gogotsu gatoz, baina pentsatuta egin gura ditugu gauzak.

## Finalurrekorako bi mailetan sailkatu da Taberna Berri

Aretxabaletako tomatearekin egindako brushetekin eta buztan-biribilkiekin, epaimahaia txunditzera

**I.B. ARETXABALETA**

Azaroaren 23an, Gipuzkoako Ostalaritza Elkarteko Egoitzan, I. Gipuzkoako Pintxo, Banderrilla eta Miniaturazko Sukaldaritzaaren Txapelketaren Finalurrekoa egingo da, Donostian. Epaimahaiak urrian zehar aukeratu ditu finalurreko hautagaiak, *mystery shopper* -bezero ezezagun bat, kalitatea egiaztatzeaz arduratzen dena-formatuan 40 establezimendu baino gehiago bisitatu ondoren. Parte hartzeko oinarrietan ezarritako jarraibideei jarraituz,

finalurreko aukeratuen artean da Taberna Berri jatetxea; pintxo eta banderillen sailean, eta baita miniaturazko sukaldaritza sailean ere. Batean, Aretxabaletako tomatearekin egindako brusheta pintxoarekin, eta bestean, buztan-biribilkiekin. Horiek egiteko ardura izango du Jose Maria Etxebarrieta sukaldariak.

Finalurrekoan erabakiko da zein establezimendu pasatuko den abenduaren 15ean Maria Cristina hotelean egingo den finalera.



MIRARI ALTUBE

## Gaztaina erreak Mitarten

Asteon martitzenean egin moduan, datorren astean, hilaren 23an, eta 30ean ere gaztaina errean postua izango da Mitarte kalean, Aretxarte Merkataritza Elkartean eskutik. Aretxabaletako dendetan erosiz edota kontsumituz, urtaro honetako fruituak, gaztainak, dohainik eskainiko dizkiete bertaratuak.

### Etiketa nutrizionalak irakurtzen ikasteko saioa antolatu dute

Etiketa nutrizionalak irakurtzen ikasteko tailerra izango da azaroaren 24an, Ibarra kiroldegian, 18:00etan. Garazi Abasolo nutrizionistak eskainiko du, eta pertsona bakoitzak zer erosten duen jakiteko asmoz antolatu du Atxabalta Mugik hitzaldia. Saioa doakoa eta euskaraz izango da, eta alde aurretik eman behar da izena kiroldegian.

### Domekan egitekoak ziren kultura arteko bazkaria, atzeratuta

Jatorri askotariko bizilagunek elkarrekin bazkaltzeko asmoa zuten domekan, azaroaren 21ean, komentuan, Gu Haziak Gara eta Yaakar elkarteek antolatuta. Kultura arteko topaketa hori, baina, bertan behera uztea erabaki dute, Osasun Sailak emandako gomendioei kasu eginez. Antolatzaileek adierazi dute aurrerago egingo dutela.



Bonu laranjak eta horiak, eta ostalaritzakoak; azken fasean horiak erabiliko dituzte. IMANOL BELOKI

## Azaroaren 22tik aurrera, azken fasea: bonu laruak

'Eskoriatza bizirik' ekimenaren baitan, tokiko kontsumoa sustatzeko bonuen kanpainak beste fase bati ekingo dio azaroaren 22an, eta abenduaren 31ra arte iraungo du. Hala, interesa duenak Ibarraundi museoa erosi ahal izango ditu

**Imanol Beloki** ESKORIATZA

*Eskoriatza bizirik* ekimenarekin jarraituz, azaroaren 22tik aurrera tokiko kontsumoa sustatzeko bonuak salgai jarriko dira berriro. Oraingo aurtengo bonuen hirugarren fasea izango da, 2021eko azkena, eta abenduaren 31ra arte iraungo du. "Orain arte ondo funtzionatu du kanpainak, aurreko faseetan berehala gastatu dira bonuak, eta azken fase honetarako 700 bonu atara ditugu, horiak guztiak", adierazi du Saioa Altzuak, Eskoriatzako Ibarraundi museoko langileak.

**Aurreko bonuen iraungitzea**

Aurreko kanpainako bonu laranjak azaroaren 30ean iraungiko dira. Hala, Eskoriatzako Udalak jakinarazi du oraindik ez direla saldutako guztiak erabili, eta gastatu gabeko bonuak dauzkaten herritarrek azaroaren 30etik aurrera ezin izango dituztela erabili eta dendetan data horretatik aurrera ez dituztela

jasoko. Ostalaritzako bonuei dagokienez, berriz, abenduaren 31ra arte erabili ahal izango dira.

**Erabiltzeko modua**

*Eskoriatza bizirik* kanpainako bonuak erabiltzeko modua orain arte bezalakoa izango da. Hau da, oinarriko baldintzak betetzen dituen eskoriatzar bakoitzak hamabost euroko balioa duen *Eskoriatza bizirik* bonu bat erosi ahal izango du. Hamabost euroko bonuek hogeita hamar euroko gastu-balioa dute eta bonu horiek bost euroko, hamar euroko eta hamabost euroko frakzioetan banatuta daude; erosketa bakoitzean frakzio oso bat erabili beharko da, gutxienez.

**AZKEN FASE HONETAN 700 BONU JARRIKO DITUZTE SALGAI, IBARRAUNDI MUSEOAN**

**Ezinbesteko baldintzak**

Bonuak erosi ahal izateko, ezinbestekoa da interesdunak bi baldintza betetzea: Eskoriatzan erroldatuta egotea eta adinez nagusia izatea. Bonuak Ibarraundi museoa jarriko dira salgai, azaroaren 22tik aurrera, bukatu arte, egunero, honako ordutegi honetan: goizez 11:00etatik 13:30ak bitartean eta arratsaldez 17:00etatik 19:30era bitartean. Horrekin batera, Eskoriatzako Udalak gogorarazi du edozein arrazoi dela medio bonua erostera bertaratu ezin den herritarrek hirugarren bati eskatu diezaikeela hura erosteko, bere nortasun agiri zerbakia emanda, baina pertsona bakoitzak gehien ere bi bonu erosi ahal izango ditu, orain arte ez bezala. Ordainketa, berriz, kreditu-txartelarekin edo eskuko telefonoarekin egin beharko da, nahitaez. Edozein zalantza argitu nahi duenak 943 71 54 53 telefono zenbakira deitu dezake, eta museoa bertan galdetu.

## 'Haurren aurrean, helduak heldu' ekimena, lau esparrutan

Almenen, Jose Aranan, Luis Ezeizako bi eraikinetan eta Tortolis ludotekan gauzatuko da egitasmoa

**I.B. ESKORIATZA**

Euskararen aldeko aktibazio ekimena da *Haurren aurrean, helduak heldu* egitasmoa, azaroaren 22tik abenduaren 5era gauzatuko dena. Ekimenaren helburua da Euskaraldian sustatzen diren portaerak sozializatzen jarraitzea eta praktika horiek herritarren egunerokoa integratzea. Parte-hartzaileek hiru arau izango dituzte oinarri: euskaldunak euskaldunari euskaraz; lehenengo hitza beti euskaraz, ezagunei nahiz ezezagunei; eta ulertzen duenari euska-

raz egin, nahiz eta berak gazte-leraz erantzun.

Ekimena 0 eta 12 urte arteko haurrekin harremana duten pertsona heldu erreferenteei zuzenduta dago –guraso, hezitzaile, senide...–, eta Eskoriatzan honako lau esparru hauetan gauzatuko da: Almenen, Jose Aranan, Luis Ezeizako bi eraikinetan eta ludotekan. Herriko ikastetxeak, gurasoak eta ludoteka ari dira ekimena sustatzen eta egiten, eta guztiak animatu nahi dituzte hizkuntza ohitura egokiak praktikan jartzera.

## Kontzertuak izango dira gaur, Santa Zezilia ospatzeko

Azaroaren 22an ospatzen da Santa Zezilia eguna, baina Beheko Errota musika eskolako kideek eta Eskoriatzako bandako kideek gaur ospatuko dute, eta, horretarako, arratsalderako egitaraua prestatu dute.

17:30ean, *Musikalean* izenpean, Beheko Errota musika eskolako ikasleen kontzertu txikia izango da, lehenbizi, Fernando Eskoriatza plazan. Saioa amaitzean, 19:00etan, berriz, Eskoriatzako bandaren Santa Zezilia kontzertua izango da, Zaldibar antzokian, urtero moduan, eta eskainiko dituzten piezetako batzuk hauek dira: *Russian dance suite*, *Cote D'or*, *In the mystic land of Egipto*, *Bohemian Rhapsody*...

## 'Hasta los tacones' antzerkia izango da domekan

Panico Escenico Teatro taldearen *Hasta los tacones* antzezlanak izango da domeka honetan Zaldibar antzokian, 19:00etan. Aurtentz estreinatutako obra da, eta Arantxa Lopez de Letona eta Mertxe Hernandez arituko dira oholza gainean antzeztzen. Ordu bete irauten du, eta sarrerak bost eurotan daude salgai Manuel Muñoz kiroldegian eta *bibe.me* webgunean.

Lopez de Letonak eta Mertxe Hernandezek interpretatuko duten papera beren burua aurkitzen duten emakume batzuen izango da; berdintasunik ezari, bidegabekeriei eta beraientzat egina ez den sistemari aurre eginez.





Asier Hernandez, Jon Regaño, Ibai Gorosarri eta Liher Armendariz, Klineks musika taldeko kideak. KLINEKS

# Hamabost urte lozorroan egonda, bueltan da Klineks musika taldea

2006an egin zuten azken kontzertua, eta, bizitzaren gorabeherak tarteko, entseatzeko zailtasunak izan dituzte urte hauetan, baina, gogoia dutenez, berriz hasi dira elkartzen, eta kontzertua emango dute azaroaren 27an Bergarako gaztetxean

**Imanol Beloki** ESKORIATZA

Ibai Gorosarri –gitarra-jolea–, Jon Regaño Zeke –abeslaria eta gitarra-jolea–, Asier Hernandez Ax –bateria– eta Liher Armendariz Baresi –baxu-jolea– laukoak osatzen dute Klineks musika taldea. 1998. urtean sortu arren, 2000. urtean eskaini zuten lehenengo emanaldia, eta punk-rock estiloko kantuak eskaintzen sei urtez aritu ziren oholtza gainetan.

Taldea desegin arren, hasierako ilusioa eta musika eskaintzeko gogoia beti izan dute presente, eta errautsetatik berpiztea erabaki dute. Duela urtebete hasi ziren serio eta erregularki entseatzeko, kantuak gogorarazten eta bertsioak prestatzen, eta, Bergarako gaztetxeko ardura-dunekin hitz eginda, kontzertua emango dute azaroaren 27an kartzela zaharrean.

**Izen bitxia, istorio gabekoa**

"*Izorratu* izenpean batailatua genuen taldea, bat jartzearen, baina lehenengo emanaldia eskaintzeko Klineks bezala igo ginen eszenatokira", dio taldekide Jon Regaño, eta, taldearen izena nondik datorren galdetuta, berriz, istoriorik gabekoa dela dio. "Garai hartan, ingelesezko taldeen izenak jartzen zituzten musikari askok, edo, bestela izen lerdo edo makarra bat. Beraz, bi ezaugarri horiek nahastuz, Klineks jartzea erabaki genuen, eta hala geratu zen".

**EUREK SORTUTAKO HAMAR ABESTI INGURU DITUZTE PRESTATUTA, BERTSIOEZ GAIN**

**Punk-rock melodikoa, euskaraz**

Klineksek lau kantu batzen dituen diskoa atera zuen Arrasateko Shot! estudioan, eta bertatik 1.000 kopia egin zituzten, tabernetan, gaztetxeetan eta bestelako establezimenduetan salgai jartzeko. Ordutik, kantu gehiago ere atera dituzte, eta beste disko bat grabatzeko asmoa ez dute baztertzen. "Eskoriatzako Udalak disko bat grabatzeko aukera eman zigun, eta hiru edo lau kantu aukeratu behar genituen. Gure abestiak iraupen motzekoak zirenez, lau kantu grabatu genituen. Garai hartan jotzen genituen kantu haiekin batera, eta atera ditugun berriekin, hamar kantu inguru izango ditugu, bertsioez gain. Estiloari dagokionez, punk-rock melodikoa da egiten duguna, euskaraz abesten dugu, nahiz eta ingelesezko kanta bat ere badugun. Berga-



Fernando Eskoriatza plazan emandako kontzertu batean. KLINEKS

## Eskoriatzako Gazte Eguna

2006an, Gazte Egunean, *Lokaletako hotsak* izeneko diskoa aurkeztu zuten, herriko hiru musika taldek elkarlanean egindakoa: Klineks, Arianrod eta Lukas Prest taldeek. Diskoa aurkezteko, kontzertuak eman zituzten Fernando Eskoriatza plazan.



Ax, Baresi eta Zeke, Eskoriatzako txosnaguneko eszenatokian. KLINEKS

## Estreinaldia, txosnagunean

Eskoriatzako Klineks musika taldeak egindako lehenengo kontzertuko irudi bat, 2000. urtean. XXI, Kañeria 13, Ofset, Nekez eta Klineks taldeen kontzertuak zeuden prestatuta, baina, azkenean, hiru talderen emanaldiak bakarrik izan ziren.

rako gaztetxeko kontzertuan, berriz, gure kantuez gain, bertsioak ere eskainiko ditugu: Rancid, NOFX, XXL... taldeenak. Beti izan ditugu bertsio asko entseatuta, eta egunean bertan erabakiko dugu zeintzuk joko ditugun".

**URTEBETE DARAMATZATE MUSIKA LOKALEAN ERREGULARKI ENTSEATZEN**

**Irratian oihartzuna**

Makina bat istorio dute oroi-menean gordeta; kontatu ezin diren horietakoak gehienak. Hala ere, Regaño gogoan du bitxikeria lauso bat: "Kontzertuak egiteari utzi genionean, *Gaztezulo* aldizkarian irakurri genuen Ipar Euskal Herriko irrati baten kantu-zerrenda sailkapenean bigarren postuan egon ginela *Itxurakeria* kantuarekin. Taldekideok ez dugu gogoratzen zein irrati zen, baina gure lorpen handiena izan zela esan dezakegu; kar, kar, kar".



Kableekin bagoia mugitzen, traktorearen laguntzarekin. SANCHO EL SABIO FUNDAZIOA



Istripua izan zuen trenaren bagoietako bat maldan. SANCHO EL SABIO FUNDAZIOA

**Imanol Beloki** LEINTZ GATZAGA

Egun tristea bizi izan zuten Gatzagan 1961eko azaroaren 12an, eta herritar askok gogoan dute ezbeharra gertatu zen eguna eta ondorengo egunetan egin beharreko lanak. Domeka hartan, 06:15ean, Gasteizetik irten zen Vasco-Navarro trenak, eta Bergarako Mekolaldeko geltokiko linea egiten ari zen; Gatzagan, gaur egun Gure Ametsa jatetxea dena pasa eta Venta Fria atzetik metro gutxira, Eskoriatzarantz jaisten hasi zela, orduan gertatu zen ezbeharra.

**Euriteak egun haietan**

Bihurgune ugari zeuden tramu hartan, eta horietako baten irteeran, trenbidea estaltzen zuen lur-jausi baten aurka talka egin zuen trenak. 2002an *Ahotsak.eus* Euskal Herriko hizkerak eta ahozko ondarea batzen dituen proiektuko kideek egindako elkarrizketetan jasotako soinu-artxiboetan Victoriano Zubillaga eta Martzelina Plazaola gatzagarrek kontatu zutenenez, "eguraldi txarra izan zen egun haietan, eta euriteengatik lurrak ikara egin, eta lur-multzoa erori zen trenbidera. Horregatik gertatu zen istripua". Bagoi bat maldan behera erori zen, trenbidetik 200 metro inguru; bigarren bagoia ere askatu zen, baina trenbidetik hamabost metro ingurura geratu zen, eta hirugarren bagoi bat ere askatu zen, baina trenbidearen gainean inklinatuta geratu zen.

# 60 urte Vasco-Navarro trenaren istripu lazgarria gertatu zenetik

1961 ean Vasco-Navarro trenak Leintz Gatzagan izan zuen istripuan hiru hildako eta sei zauritu izan ziren; hildakoak treneko ikuskatzailea eta Eibarrera bataio batera zihoazen aita eta semea izan ziren. Herritarrek gogoan dute oraindik ezbeharra

**Istripuaren kokapena**

Herritarrek gogoan dute trenak izandako ezbeharren eguna. Ikusmin handia sortu zuen istripuak berak, baina baita hurrengo egunetan bagoiak ateratzeko egin behar izan zituzten lanek ere, dio Juanito Bengoa herritarrek: "9 urte nituen nik, eta istripua gertatu zen lekuan ez nintzen egon, baina gogoan ditut gertatu zena eta orduan kontatu zizkidatenak. Asier Ugarte herritarra bizi den baserritik 100 metro Arlaban aldera egin eta gero gora berrogeita hamar metro inguru egiten badituzu, istripua dagoen lekura iritsiko zara. Gaur egun, eremua aldatuta dago, baina bertaraino autoz joateko moduan dago bidea; Beginarrutik sartu zaitezke trenbidera, edo Gure Ametsatik bidegorriarekin bat egiten duen lekutik".



Bagoia trenbidera igo eta zuzendu zuten unea. SANCHO EL SABIO FUNDAZIOA

**Trenbidera igo zuten bagoia**

Trenbideko errailetatik atera zen bagoietako bat ez zen maldan behera jausi. Hala, metro batzuk gora igo zuten, eta bagoia zuzendu trenbidera. Sancho el Sabio Fundazioko iruditegiko argazki honetan, bagoia trenbidera igo zuten unea agertzen da.

**Bagoia ateratzeko lanak**

Trenaren bi bagoi zuzendu eta trenbidera igo zituztela eta maldan behera eroritakoa behera jaitsi behar izan zutela dio Bengoak: "Dorletako errota deitzen dioten bihurgunera jaitsi zuten maldan behera erori zen bagoia. Gomazko gurrpil batzuk jarri zizkieten eta traktore txiki baten laguntzarekin harilkatuta Marulandaraino jaitsi zuten. Bide horretan, udaletxe aurretik plazatik pasa zuten, eta Marulanda aldera eramateko unean, aldapa jaisteko, traktorea arrastatu egiten zuten bagoiaren pisuak, eta, atzetik *dos caballos* auto bat lotuta, frenatzen jaitsi zuten, orain gogoan ez dudana zinta edo kable batez. Ikuskizun izugarria izan zen; izan ere, traktoreak urte haietan ez ziren ohikoak, eta ekarri zutena guk ezagutzen ditugun Pasqualiak baino pixka bat handiagoa izango zen, baina ez askoz handiagoa".

**Hiru hildako eta sei zauritu**

Trenaren gidariak, trenbideko langile batek eta sei bidaiarik betetzen zuten lehen bagoiak sufritu zuen kolpe latzena. Izan ere, hiru hildako izan ziren. Istripuaren unean bi bidaiarik salto egin zuten trenetik euren bizitza salbatzeko asmoz, baina, zoritxarrez, hil egin ziren, istripuan bizirik irten ziren bidaiarien esanetan; aita-semeak ziren, Fidel Gomez San Miguel 23 urteko gaztea eta aita, Fidel Gomez Antolin, mekanikaria. Istripuan hildako hirugarren pertsona, berriz, Jose Antonio Lopez izan zen.

Ospitaleratutako gainerako zaurituak, berriz, hauek izan ziren: Pablo Camacho, Gasteizko trenbide-langilea; Antonio Vergara, Maria Blanca Duranako bizilaguna; Tomasa Zabaleta, Bergarako bizilaguna; eta Purificacion Fernandez. Zauri arinagoak izan zituzten bidaiariak, berriz, Gatzagan artatu zituzten Arrasatetik joandako medikuek. Istripua gertatu eta sei urtera, 1967ko abenduaren 31n, Vasco-Navarro trenak bere azken bidaia egin zuen.

**"EURITEEN ONDORIOZ, LURRA TRENBIDERA ERORI ZEN, ETA HORREK ERAGIN ZUEN ISTRIPUA"**

# Zubieta berritzeko obren hasiera antolatu beharra

Zubieta eta Masterreka urbanizatzeko obrei urte bukaeran ekingo dietela eta makinak urtarrilean lanean izango direla dio Gorka Artolak; eta Larramendiko plantaren afera "kezka" bizi dutela eta proiektuari "jarraipen zorrotza" egiten jarraituko dutela berretsi du

## Jokin Bereziartua BERGARA

Bergarako alkate Gorka Artola Goiena telebistako *Harira* saioan izan zen martitzenean. Goienak udalbatza osatzen duten talde guztiei egin zien saioan parte hartzeko proposamena, baina EAJk eta PSE-EEK ez dute onartu. Agintaldi erdira heldu berri, argi utzi du Bergarako alkate Gorka Artolak pandemiak "asko" baldintzatu dituen "hainbat proiektu" egon direla. Aldi berean, baina, COVID-19ak "hainbat aukera" ere sortu dituela deritzo: "Gauzak beste era batera egiteko beharrak sortu ditu. Zer egin inportantea den moduan, lan egiteko modua ere oso inportantea da. Udalak hainbat lan esparru ditu eta horietan guztietan modu kolaboratzaileago eta komunitarioagoan lan egiteko apustua da, oro har, gure lehentasuna. Ahaztu berrik, noski, proiektuak aurrera eramateko beharrei erantzun behar zaiela".

## Larramendi: Udalaren alegazioa

Paper-fabriken hondakinak kudeatzeko Larramendin egitea aurreikusuten duten plantari dagokionez, azken nobedadea da asteon onartu dutela batzordean Udalaren alegazio eredu; hilaren 29ra arte dago alegazioak aurkezteko. "Joan den astean



Gorka Artola, martitzenean, Goiena telebistako platoon. JOKIN BEREZIARTUA

herritarrek egindako bilera irekian aurkeztu genuen, eta gertu dugu Jaurlaritzari bidaltzeko; alegazioan argi dago jasota udal planeamendua ez dela orain bertan halako aktibitate batekin bateragarria".

Azaroaren 2an hirigintza-baimena indargabetu eta sustatzaileari eta Jaurlaritzari jakinarazi ostean, tramitazio berriak "bere prozesua" eroango duela dio Artolak: "Ez dago gure eskuetan proiektuak aurrera egin edo ez; sustatzaileak tramitazio berrian araudi guztiak beteko balitu,

aukera izango luke aurrera egiteko; berme juridikoez eta urbanistikoez gain, ingurumen eta osasun berme guztiak eskatuko ditugu, ahalik eta parametro seguruenak". Hein handi baten hutsik dagoen Larramendiko industrialdearen garapena baldintzatzeak ere "asko" kezkatzen du Artola buru duen Udal Gobernua: "Bergarako garapen ekonomikora begira traktore bat da Larramendi, eta planta honek eragin dezakeen zalapartak izan ditzakeen ondorioek asko kezkatzen gaituzte". Sustatzaileak Uda-

lean eta Jaurlaritzan "inkongruenteak" diren eskaerak egin izanak ere Udalaren jarduna baldintzatu du: "Tramitazioan gorabeherak batzuk izan dira; gaia oso sakon aztertu behar izan dugu, eta sortzen ziren kezkei aurre egin. Aktibitate pribatu baten ezarpenak ez luke horrenbeste baldintzatu beharko".

## Zubieta eta Masterreka, epeetan

Zubieta eta Masterreka kaleak berriro urbanizatzeko proiektua esleitu berri dute eta asmoa da lanak urtea bukatu aurretik abiatzea: "Enpresa adjudikatzaile esleitura dago eta obraren zuzendaritzaz arduratuko den enpresa laster esleituko dugu. Datozen egunotan elkartuko gara bi enpresekin, lanak nola gauzatu definitzeko. Planteamendua da lanak Gabonen aurretik hasia, eta makinak urte hasieran hasiko lirake obretan". Urte eta erdi inguru iraungo dute hiru faseek: "Enpresa eraikitzailearen eta zuzendaritzaren koordinazioaren eta trafikoaren antolaketaren arabera izango da, hein baten, obraren beraren garapena". Hori bai, halako taimako obra batek eragozpenak sortzea saihestezina dela ere gaineratu du Artolak: "Saiatuko gara ahalik eta kalte txikienak eragiten bizilagunengan eta trafikoan". 2.350.000 euro inguruko aurrekontu osoa du obrak, eta 2022ko eta 2023ko aurrekontuak ere baldintzatuko ditu.

## Arrizuriaga, agintaldi honetan

2020ko urrian *Harira*-n emandako elkarrizketan esan zuen Artolak Miguel Altuna zaharra eragileendako erabilgarri jartzea zela lehentasunetako bat, eta asteon zehaztu du oraingo lehentasun izateari utzi diola, Jaur-

lartzarekin urrats berriak egin arte: "Duela urtebete pasatxo, ikusten genuen eraikinari erabilera bat emateko beharra zegoela, eta Eusko Jaurlaritzari proposatu genion eraikinaren erabilera Udalari pasatzea eta bertan egokitzapen lanak egitea, herrian lokal beharrean daudenei begira. Egoera hobetu aztertu eta egungo araudira egokitzeak zekarren kostua ikusita, ohartu ginen zentzu handiagoa zuela gerora begira egonkorragoa izango zen proiektuaren bat gartzera bideratzea diru hori; horregatik erabaki genuen Udalaren jabetzakoa den Arrizuriagara bideratzea, behin betiko proiektu baten barneratuta". Arrizuriagarako inbertsioa agintaldi honetan egingo dela dio alkateak: "Ia 600.000 euroko poltsa dugu aurreikusita eraikina kanpotik berri eta egonkor-tzeko eta barrutik askotariko erabilera emateko egokitzen hasteko; barrukoa hutsik lagata, 2022an partaidetza prozesu baten definituko dugu erabilera".

## 2022rako, %7,7 gehiago

Amaitzeko, Artolak argitu zuen 2022rako aurrekontu proposamena 27.212.333 eurokoa izango dela, iazkoa baino %7,7 handiagoa -gizarte zerbitzuetara, esaterako, %6,3 gehiago bideratuko litzateke-. EAJk eta PSE-EEK azaroaren 24ra arte izango dute ekarpenak egiteko aukera, eta aurreikuspena da abenduaren 20ko osoko bilkuran onartzea.

**PANDEMIAK "HAINBAT ASMO" BALDINTZATU ARREN "HAINBAT AUKERA" ERE SORTU DITUELA DIO ARTOLAK**

## Euskaraz irakurtzera animatzeko ekintzak Jardunen eskutik

Euskarazko irakurzaletasuna bultzatzeko ekintzak antolatu ditu Jardunek: hilaren 28an, familiendako ipuina sortzeko tailerra izango dute, Oxirondon (11:00); hilaren 22tik 28ra, euskarazko liburuak merkeago erosi ahaliko dira Elkarren; eta liburuen truke azoka azaroaren 22tik abenduaren 17ra izango da. Argibide gehiago: 605 71 24 69.

**Kabutzia**

ARRANDEGIA

Fraiskozuri 6  
BERGARA  
Tel.: 943 76 56 62

Aitor Zabaleta  
Tel.: 606 58 18 10  
www.txipi.com

**TXIPI**

LEIHO ISOLATZAILEAK

Amillaga 5, behea - BERGARA

**Sugoi**

ERLOJUAK,  
ARTIKULU  
ELEKTRONIKOAK,  
KALKULAGAILUAK...

Fraiskozuri plaza 8.  
943 76 59 54 BERGARA



# EH Bildu: sorrera gogoan, etorkizunari begiratzeko

Martitzenean erakutsi zuten EH Bilduren hamar urteotako ibilbidea laburtzen duen 'Hamar urte baino ez' dokumentala, Iralako Bilgunean; proiektioaren ostean, hitza hartu zuten diputatu nagusi ohi Martin Garitanok eta Bergarako alkate ohi Jaione Isazelaiak

**Jokin Bereziartua** BERGARA

Martitzenean heldu zen Bergarara EH Bilduren hamar urteko ibilbidea laburbiltzen duen *Hamar urte baino ez* dokumentala. Bergarako EH Bilduk Irala kalean kokatuta duen Bilgunean jarri zuten dokumentala eta proiektioa baliatu zuten antolatzaileek 2011-2015 agintaldian Gipuzkoako diputatu nagusi izan zen Martin Garitano eta agintaldi bereko amaieran Bergarako alkate izan zen Jaione Isazelaiari solasaldi bat proposatzeko.

Aurtengo martxoan aurkeztu zuten dokumentala, Hiru Damatxo ekoiztetxeak egin duena, eta EH Bilduren sorreratik zeresana izan duten 26 laguni egindako elkarrizketak erakusten dituen. Dokumentala eta solasaldia aprobetxatu zuten, aldi berean, bihar Bilbon egingo den manifestazioan parte hartzeko dei egiteko (Ikus 5. orria).

**Madriren eragiten jarraitu**

Martin Garitanok "argi" dauka EH Bilduk Espainiako Gobernuaren eragiten jarraitu behar duela: "Etorkizunera begirako epe luzeke ikuspegiak ez daukat, baina Madrilgo egoera oso interesgarria iruditzen zait. Gure jardun politikoan Madrilgo ikuspegiak eta sentsazioak, hainbat arrazoiengatik, ez dira onak. Baina uste dut ona dela Espainiako Gobernuaren jardunean eragitea, eta horrek lagunduko digu gure helburu estrategikoetatik gertuago egoten. Beste hainbat adibide jar ditzaket, baina, esaterako, presoen hurbilketa edo presoekiko beste politika bat lortzea gure taldeko diputatu eta senatarien lanari zor diogu".

**Formakuntzaren garrantzia**

Udaletan agintaldi hartan egin zen lanari eta gaur egun egiten den lanari ere balio handia ematen dio Garitanok: "Hainbat



Hamar urte baino ez dokumentalaren proiektioa, martitzen iluntzean. EH BILDU

udal garrantzitsutan determinanteak izan ginen eta gara gaur egun. 2011-2015 agintaldian formakuntza-lan izugarria egin zen; ezin dugu ahaztu apenas esperientziarik gabe sartu ginela gu instituzioetan, horretaz

zekitenak ilegalizatuta zeudelako... Bada, orduan egin zen formakuntza-lan hark bere fruituak eman ditu; garai hartan ikasi genuena transmititzen jakin izan badugu, horixe izan da gure ekarpen handienetakoa".

## "Kartzela edo Diputazioa ziren gure aukerak"

**MARTIN GARITANO** AHALDUN NAGUSIA 2011-2015 ALDIAN

**Nola gogoratzen duzu EH Bilduren sorrera?**

2011ko maiatzaren 5eko Bilboko Areatzako gau hura magikoa izan zen, gau hartako hainbat irudi ditut iltzatuta. Gau hartan erabakitzen zen gu kartzelara edo Diputaziora joango ginen, oso muturrean zeuden bi aukera. 00:30ean konfirmatu zigutenean hauteskundeetarako aurkeztu ahalko ginela, ondoko kideei esan nien hauteskundeak



MIREIA BIKUNA

irabaziko genituela. Inork ez zidan sinistu, Rufi Etxebarriak izan ezik; hain zuzen ere, gogoan daukat Rufi Pello Urizarri honako hau esan ziola: "Pello, hartu oporrak, kanpaina eginda dago eta". **Eta aurrera begira zer?** Egun ardurak dituzten kideak lan ona ari dira egiten. Madrilgo Gobernuaren jarduna baldintzatzen ari gara eta horrek gertuago kokatzen gaitu gure helburu strategikoetatik.

## Erretiratuen eta pentsiodunen "dei berezia" hilaren 25erako

Asteburuko 'Memoria eraikiz' ikuskizunaren ostean, dei egingo dute Martxanteren kale ekintzan parte hartzeko

**J.B. BERGARA**

Indarkeria matxista salatzen duen bueltan asteburuan Seminarioko patioan ikusi ahalko den *Memoria eraikiz* ikuskizunaz gain, erretiratuen eta pentsiodunen Duintasuna elkarrekin elkarretaratze "berezia" antolatu du hilaren 22rako; San Martin plazan, 12:00etan: "Azaroaren 25erako prestatutako idatzia irakurriko da, eta udal txeko balkoian pankarta bat jarriko da. Dei berezia egingo dugu Martxanteren kale ekintzarako".



Elkarretaratzearen berri ematen. GOIENA

**Martxanterak, suaren bueltan**

Ekintzaren antolakuntzari azken ukituak ematen ari badira ere, Martxantere aurreratu dute azaroaren 25erako antolatu duten kale ekintza San Martin plazan izango dela, 19:00etan hasita. "Aurtengo gaia antolakuntza, elkar-babesa eta autodefentsa

feminista izango da. Ekintza parte-hartzailea izango da. Suaren bueltan egingo den ekintza izatea aurreikusten dugu, beste urte batzuetan egin izan dugun moduan. Suak sinbolismoa handia dauka eta egin izan dugunean oso indartsu aterata da".

## Larramendiko planta: debatea, bi aldeak aurrez aurre direla

Larramendiko plantaren bueltan mahai-inguru interesgarria antolatu du Erraustegirik Ez! taldeak azaroaren 22rako: Seminarioan, 18:00etan. Debatean honako galdera honi erantzuten saiatuko dira: *Euskadiko paper fabriketako hondakinak tratatzeko proiektua, material berriak ekoizteko?* Debatean parte hartuko dutela ziurtatu dute Eko-

logistak Martxan taldeko Carlos Arribas Ugartek (Bergara, 1953) eta Greene enpresako zuzendari Juan Jose Hernandez Samaniegok (Alacant, 1975). Bergaran jaio arren, ia 25 urte daroatza Alacanten Arribasek; Zientzia Fisikoetan lizentziatua da eta duela bost urtetik hondakinen arloko arduraduna da Ekologistak Martxan konfederazioan. Valgreene Paper BC enpresaren oinarrian dagoen Greene enpresako zuzendari Hernandez kimikaria da, besteak beste.

**UGARTE**  
ARROZTEGIA - ALTZARIK

Proiektuak · Koltxoak  
Horma-armairuak  
Altzariak neurria  
Ateak · Eskailerak ·  
Leihoak · Tarimak ·  
Egur lanak

**ALTZARI DENDA**  
Ikerleku zeharbidea  
Tel.: 943 034630

**ARROZTEGIA**  
San Juan 1a  
Tel.: 943 765491

**BERGARA**  
aroztegia@ugartearoztegia.com

**I21**  
KALITEA

Enpresa legezko 1190/025

# Senegal eta Bergara are gehiago lotzeko bisita

Senegalgo Dionewar herriko lau gazte atzo iritsi ziren Debagoienara, elkarbizitza eta elkartasuna sustatzeko Diputazioaren programa baten barruan; askotariko ikastetxeak eta enpresak, landa eremua, Aspace eta Goiena bisitatuko dituzte, besteak beste

**Jokin Bereziartua** BERGARA

Senegalgo Dionewar herriaren eta Bergararen eta Debagoienaren arteko harremanak sendotzeko urrats berriak egiten ari dira Ndank Ndank elkarte eta Gipuzkoako Foru Aldundia. Izan ere, Diputazioak finantzatu duen elkarbizitza eta elkartasun programa baten barruan, Debagoienan bizi diren senegaldarren, Dionewarko biztanleen eta debagoiendarren arteko "elkar ezagutza, kulturartekotasuna eta lankidetzak" bultzatzeko ekintzak antolatu ditu, baita migrazioari buruzko hausnarketarako ekintzak ere. Hain zuzen ere, 2021ean askotariko ekintzak burutu dira Debagoienan; besteak beste, ikastetxeetan hainbat lanketa egin dira, *Kulturartekotasuna modan* proiektua zabaldu zen maiatzean eta Mondragon Unibertsitateko Ikus-entzunezko ikasleekin elkarlanean sortu zen *Teranga* dokumentala ere eskaini zuten ekainean.

**Euskal kultura, bertatik bertara**

Ceed Sangomar elkarteko lau gazte etorri dira bisitan ekimenaren barruan; atzo iritsi ziren, eta abenduaren 4an itzuliko dira. Ndank Ndank elkartekoek adierazi dutenez, "era guztiatako ekintzak" gauzatuko dituzte. Alde batetik, euskal kultura ezagutzeko aukera izango dute: aizkolari txapelketa, euskal dantza, esku pilota, erraldoi taldeari bisita eta Ttakun elkartearekin txalaparta tailerra izango dituzte, esaterako. Baserri eremua ere ezagutuko dute, eta, hori guztia gutxi balitz, Pasaiaiko Albaola ere ezagutuko dute, euskal ontziola eta arrantza ezagutu eta Senegalgo arrantza egoeraz hausnartu dezaten. Pasaiaira egingo duten bisita baliatuko dute, aldi berean, herri hezitzaileen Oinherri proiektua ere ezagutzeko; Bergara sare horretan dago.



Elí Dominguez, Bergarara etorri berri diren senegaldar gazteekin, atzo. NDANK NDANK

## LAU GAZTEEK HEMEN IKASI DUTENA HANGO GAZTEEKIN PARTEKATZEA DA HELBURUETAKO BAT

**Hezkuntza eta lan mundua**

Gainera, lau gazteek hezkuntza entitateekin ere elkartrukeak egingo dituzte. Alde batetik, MUko Galarretako eko-teknologiako ikasle eta irakasleekin bi programa egingo dituzte. Galarretako ikasleak Dionewarera eramango diren plastikoa txikitze eta eraldatzeko makinak sortzen ari dira. Makina horiek erakutsiko dizkiete, baita ordenagailuko hainbat software erabiltzen irakatsi ere. Bestalde, MUko irakasleekin Eureka Zientzia Museoa eta Basque Culinary Center bisitatuko dituzte. Horrez gain, Bergarako Miguel Altuna Lanbide Heziketa zentroan ere egongo dira.

Lan mundura gerturatzeko, Oñatiko Elkarzabal elkartean ortu proiektua ezagutuko dute eta Fagor Industrialen fabrika bisitatuko dute. Fatou Diang

gazte senegaldarrak Bilbon zabaldu duen *Ker Fatou* dendara ere egingo dute bisita, eta baita Bergaran bizi diren aniztasun funtzionala duten bi gazte senegaldarrei ere, Bergarako Aspace zentrorra. Elikagai bankuan arituko dira, boluntario gisa, goiz batez. Migrazioaren aferaz hausnartzeko, pelikula bi eskainiko dituzte Irizar jauregian: azaroaren 19an, *Binta y la gran idea* film laburra proiektatuko dute, 18:00etan; abenduaren 2an, berriz, *Origen* filma ikusi ahalko da, 18:00etan.

**Goiena ere bisitatuko dute**

Lau gazteetako bat kazetaria denez, Goiena Komunikazio Taldearen Arrasateko egoitza ere bisitatuko dute, azaroaren 24an. Ndank Ndankekoen arabera, "esperientzia ikaragarria" izango da lau gazteendako: "Halako proiektu baten baitan izango ez balitz, oso zail izango lukete. Europarako bisa lortzeko tramitazioa oso konplexua da. Abenduaren 4an motxila esperientzia aberasgarri beteta bueltatuko dira eta hemen ikasitakoa eta euren hausnarketak gainontzeko gazteekin konpartituko dituzte".



San Martin Agirre eskolako patio berritua, goitik ikusita. B.U.

## Patio inklusiboa zaintzeko deia, "erabilera desegokia" dela eta

San Martin eskolako jolas parke berriaren agertzen den zaborrak eta askotariko apurketek kezka eragin dute

**J.B. BERGARA**

Ikasturte berriarekin inauguratu zuten San Martin Agirre eskolako "patio inklusiboa". Eskolako guraso elkartearen ekimenez abiatu eta eskolako zuzendaritzarekin eta Udalarekin elkarlanean eta auzolanean berritutako patioak, baina, ez du esperotako hasiera izan erabilerari dagokionez: "Ikasle guztiei jolaserako askotariko aukerak eskaintzen zaizkie kanpo espazio inklusibo honetan, eta baita eskola orduetatik kanpo herriko ume guztiei ere. Azkenaldian, baina, konpontze

lanetan jarri behar izan ditu eskolako komunitateak indarrak, hainbat pertsonak egiten duten espazioaren erabilera desegokiagatik: zaborrak uzten, apurketak egiten edota belardia, ortua... behar bezala ez zaintzen".

**Patioa zaintzeko deia**

Eskolak eta Udalak dei egin dute ingurua zaintzeko: "Jolas libre-rako patio honekin abiatutako bidearekin jarraitu nahi dugu, proiektuari eta lan egiteko moduari dagokionez. Dei egiten diegu herritarrei helburu horietan partaide izan daitezen".

## OHARRAK

### ZTB: hidrogeno berdearen gaineko erakusketa

Atzo ireki zuten, Laboratoriumen, *Hidrogeno berdea klima aldaketaren konponbidea* erakusketa. Panelez gain, besteak beste, hidrogenoa lortzeko voltmetro bat dago, eta baita egunerokoan gizakiak zenbat CO2 sortzen duen kalkulatzeko duen bitarteko bat ere: [ztbergara.eus](http://ztbergara.eus). Otsailaren 15era dago zabalik.

### Indarkeria matxista salatzen ikuskizuna

*Memoria eraikiz* ikuskizunaren lau emanaldi izango dira gaur -16:00etan- eta bihar -12:00etan, 13:00etan eta 14:00etan-, Seminarioko patioan. Izena emateko: [berdintasuna@bergara.eus](mailto:berdintasuna@bergara.eus).

### San Joxepe elkarteko abesbatza, kide bila

20 urte baino gehiago dituen korua "egoera zailean" dago, kide faltagatik. Hala, erretiratu elkarteko batzarrak herritarrek animatu nahi ditu izena ematera: 943 76 21 40 edo 685 75 74 02.

### Odol emaleak: hurrengo ateratzea eta loteria

Azaroaren 24an izango dute hurrengo odol ateratzea. Bestalde, aurten ezin dutenez Gabonetako loteria saldu, dezimoa honako webgune honetan erreserbatu behar dela jakinarazi dute: [www.elanden28.com](http://www.elanden28.com). Argibide gehiago: 747 42 99 20 (Dulce).



Ezkerretik hasita Ruiz de Larramendi, Aldai, norgehiagokako epailea, Bergara eta Larrarte, martitzenean. M.BIKUÑA

# Ibarrekoak aurrez aurre Bergara Hirian, finalean

Martitzenean jokaturako bigarren finalerdietan lortu zuen Leire Galeano antzuolarrak –Miriam Arraizarekin batera– finalerako txartela. Martitzenean etxeko zaleen aurrean jokatu duen Maddi Barrocal eta Enara Gaminde izango dituzte aurrean

## Xabier Urzelai BERGARA

Azaroaren 9an hasi zuten Ema-kumezkoen Bergara Hiria iritsi da unerik garrantzitsuenara, finalera. Hamasei pilotarik hasi zuten torneooa, promesen eta nagusien kategorietan banatuta, eta datorren martitzenean, hilak 23 –19:00etan hasita, sarrera doan da– erabakiko dute,

Bergarako udal pilotalekuan, ze bikotek jantziko dituzten aurtengo Bergara Hiria torneo-ko txapelak. Hala, finalistak dagoeneko gertu daude. Izan ere, joan den martitzen iluntzean jokatu zituzten txapelketako bigarren finalerdiak, eta joan den astean jokatu zituzten lehenengo finalerdiekin alderatuta,

partiduak gainditu zituzten bikoteek gogotik bota behar izan zuten izerdia kontrarioa mendean hartzeko; izan ere, emozioz betetako jaialdia izan zen martitzenekoa.

Promes mailan Miriam Arraizak eta Leire Galeanok 22-19 irabazi zieten Irati Zabalari eta Uxue Osesi. Finalerdi hartan

bistan zegoen debagoiendar bat finaleraino iritsiko zela: Galeano antzuolarrak da eta Oses, oñatiarra. Eta, kostata, baina antzuolarrak lortu zuen helburua. Norgehiagoka parekatua eta borrokatua izan zen, bi bikoteek izan zuten finalerdia irabazteko aukera, baina Arraizak eta Galeanok lortu zuten 22ra iristea.

## Nagusiena, emozioz betetakoa

Promesen mailako partiduan lehia estua izan bazen, zer esan nagusien partiduen gainean. Tanto bakarreko aldegatik garaipena Amaia Aldaik eta Olatz Ruiz de Larramendik lortu zuten, Miren Larrarte eta Arrate Bergarari 22-21 irabazita. Eta pena da, Bergararen kaleratzeak debagoiendar barik utzi du-eta senior mailako finalerdi kategoriako finala.

Aurreratu moduan, azken tantora arte ez zen irabazlea nor izango zen aurreraterik egon. "Bereziki, partiduko bigarren zatian tanto ederrak ikusi genituen. Ordura arte, bikote bakoitzak boladaka jardun zuen, tanto takada handiak egin zituzten", adierazi du torneoko antolatzaile den Bergara Pilota Elkartearen ordezkari Julen Aramburuk. Hala, gozatu ona hartu zuten pilotalekuan batu zirenek.

Dena dago gertu datorren martitzeneko finalerako. Go-goan izan lehenengo finalerdie-

tan, promes mailan, Maddi Barrocalek eta Enara Gamindek erraz egin zutela aurrera, eta nagusien mailan Olatz Arrizabalagak eta Nora Mendizabalak lortu zutela finalerako txartela.

## Final erakargarriak

Martitzenean, promesen kategorian debagoiendarren arteko finala ikusi ahal izango da, Miriam Arraiza bikotekide izango duen Leire Galeano antzuolarrak Bergarako Maddi Barrocal eta harekin bikotea osatzen duen Enara Gaminde izango dituzte-eta aurrean. Alde horretatik, Barrocalek etxean jokatzearekin batera 2019an kategoria berean irabazitako txapela defendatzea tokatuko zaio.

## Seniorretan ordezkariarik ez

Jaialdiko bigarren partiduan, berriz, senior mailako pilotarien txanda izango da, eta hor ez da ibarreko ordezkariarik egongo, aipatu moduan Arrate Bergara finalerdian finaletik kanpo geratu zelako. Horrenbestez, Amaia Aldai eta Olatz Ruiz de Larramendi Olatz Arrizabalagaren eta Nora Mendizabalaren kontra lehiatuko dira.

## PROMESEN KATEGORIAN DEBAGOIENDARRAK IZANGO DIRA FINALEAN

## Kirol argazkiak ikusgai, gaurtik hasita, Aroztegin

Bergarako Kirol Argazkien Lehiaketak urteurren borobila bete zuen iaz, 30 urte bete zituzten lehiaketa antolatzen, eta ekimenak aurrera segitzen du. Hala, gaur, hilak 19, inauguratuko dute Aroztegin (19:30) aurtengo lehiaketako argazkiekin egindako erakusketa. Izan ere, pandemia urteari aurre eginda, 2020ko lehiaketak ez zuen kalerik egin –argazkilaritza ihesbide izan zen askorendako–, baina sari banaketa ekitaldia berezia izan zen, segurtasun neurriak zaindu behar izan zituzten eta. Esaterako, iazko irabazleak ezin izan zuten saria bertan jaso. Aurtun, emakumezkoen parte-hartzea sustatu nahi izan dute.

## Soraluce BKEko mutilak garaipenaren bila doaz Donostiara

Sailkapenaren erdialdean dago senior mailako Soraluce BKE eskubaloitza taldea; ez dute aparteko estatusunik, baina, liga ondo hasi eta gero –bi garaipen jarraian–, azken lau jardunaldietan ez dute garaipenik eskuratu. Saiekoren eta Donibaneren kontra partidua berdintzea lortu zuten, eta joan den astean 27-31 galdu zuten Hondarribia Bidasoaren kontra.

Hain zuzen ere, bergararrak garaipen bila joango dira zapatuan (18:00) Egiaren kantxara. Donostiako taldea atzealdeko postuan dago; izan ere, horiek ere bi norgehiagoka irabazi dituzte jokaturako bost norgehiagoketan.

## Liderraren bisita dute saskibaloiko seniorrek

Inter de Mitente taldea dago Gipuzkoako senior mailan agintzen, eta oraindik ez dute partidurik galdu, jokaturako zazpiak irabazi dituzte. Hala, Bergara Soraluceko mutilek euren kontra jokatu dute zapatuan, 16:00etan, Labegarrietan.

Mahoneroei dagokionez, bergarrek zapo oso ona utzi zien garaipena eskuratu zuten joan den astean STL Azkuneraren kantuan (66-69). Jarraian eskuratzen duten bigarren garaipena izan zen, astebete lehenago erraz irabazi zioten-eta Cafes Aitonari. Hortaz, bi garaipen horiei esker, bergarrek sailkapenaren erdira egin dute salto, eta bolada onean jarraitu gura dute.



J.E.

## Elexpururen azkena ote?

Espainiako duatloi txapelketa jokatu zuten zapatuan Sorian, eta beteranoetan Juan Martin Elexpuruk irabazi zuen. "70 eta 74 urte artekoen taldean bakarra nintzen, eta, amaitu egin nuenez proba, neu geratu nintzen lehenengo", azaldu du. Distantzia horretan egiten duen azken lasterketa izan daitekeela iradoki du, baina ikusteko dago hori...



Mikel Etxeberria eta Asier Elorza; Diablues Ta Bluezifer taldeko bi kideek Bergaran aurkeztuko dute disko berria. A.E.

# Mimoz prestatutako kontzertu berezia bihar

'Gure urdina' diskoa kaleratu zutenetik, lehen kontzertua emango du Diablues Ta Bluezifer bikoak zapatuan Seminarixoan. Sorpresak egongo direla eta "emanaldi berezia" izango dela aurreratu dute, herrian bertan eta musikatik harago joango dena

**Jone Olabarria** BERGARA

Beren ohiko formatutik aldendu eta, "ilusioz", erronka berri bati egin beharko diote aurre Diablues Ta Bluezifer taldeko kide Asier Elorzak eta Mikel Etxeberriak zapatuan. Izan ere, diskoa kaleratu zutenetik eskainiko duten lehen emanaldia izango da bihar-koa, Seminarixoan: "Gure musika dela-eta, ohituago gaude lokal eta taberna txikiagoetan eskaintzera kontzertuak, zutik, leku zaratatsuetan eta jendea zerbait hartzen dabilen bitartean. Oraingoan, baina, Seminarixora datorrena gu ikustera dator, eserita, eta hori beste erronka bat da".

Nahiz eta beste emanaldi batzuk aurreikusita izan, eta bailarako herrietan jotzeko asmoa duten, argi zuten lehen kontzertuak herrian behar zuela, Bergaran.

**Musika baino gehiago**

Hala ere, azaldu dute bihar Seminarixora joaten denak ez duela aspertzeko tarterik izango:

"Ez da soilik bi musikariren emanaldi bat izango, hortik harago joango da. *Gure urdina* diskoko kantuez gain, beste hainbat ere prestatu ditugu kontzerturako. Mimo handiz gabiltza emanaldia prestatzen, eta berezia izango da, bai publikoarentzat, baita guretzat ere".

**Aurkezpenerako kontzertua**

Urrian kaleratu zuten *Gure urdina* lana bergararren bigarren diskoa da eta zortzi abesti ditu, guztiak euskal kantuen letrak eta blues doinuak nahastuz.

Aurkezpenerako baliatuko dute bihar kontzertua, nahiz eta aitortu duten herritarren artean nahiko harrera ona izan duela. Herritarrek animatu di-

**"ABESTI GUZTIAK EZAGUNAK DIREN ARREN, ZAILA DA BATZUK AZKAR IDENTIFIKATZEA"**

tuzte bihar kontzertura joatera, eta, diotenez, "ez dira damutuko".

**Disko "bitxia"**

"*Triste bizi naiz, eta hilko banintz hobe*. Bururutzen zaizue blues kantu baterako izenburu hobetik?". Gogoeta hori izan zen *Gure urdina* diskoaren abiapuntua, eta hari horri tiraka iritsi ziren gainerako abestiak: "Jendeak kalean esan izan digu disko bitxia dela. Euskal abestien bertsioak dira, baina abesti guztiak ezagunak diren arren, zaila da batzuk azkar identifikatzea. Bertsio originaletik nahiko aldatuta ageri dira asko, bestelako doinu eta erritmoekin, moldaketa ugari egin ostean".

Hala ere, bikotea "pozik" agertu da egindako lanarekin eta azken hilabeteetan diskoak herritarren partetik jasotako babesagatik. Sarrerak eskuragarri daude [www.seminarixoa.eus](http://www.seminarixoa.eus) webgunearen bitartez, baita egunean bertan Seminarixoko leihatilan.



Banda Gazteko kideak, 2019ko Santa Zezilia eguna ospatzeko kalejiran. B.M.E.

## Santa Zezilia eguna ospatzeko, bueltan datoz kalejirak

Domekan, Bandak kontzertua emango du, eta, eguraldia lagun, kalejira ere bai; Musika Eskolak, aldiz, egunean

**J.O. BERGARA**

Hogeita bat hilabetez geldirik egon ostean, joan den zapatuan eman zuten Orkestrak pandemia garaiko lehen kontzertua. Frontoian batuta, bai ikusleak baita musikariak ere sentsazio onarekin irten zirela azaldu du Enrike Txurrukak: "Iaz ere hasi ginen udazkenean Santa Zezilia kontzertua prestatzen, baina ezin izan genuen egin. Orain, udaberria ezker gabilta entseguetan, eta, baldintzarik onenak ez diren arren, pozik gaude".

**Domekan, bandaren txanda**

Banda ere frontoian arituko da, domekan, 12:30ean, Santa Zezilia ospatzeko. Eguraldiak laguntzen badu, aurretik kalejira egingo dute: "Askotariko estiloak egongo dira: klasikoa, euskal musika, modernoa... Gustu guztientzat, eta gauza berriak eza-gutzeko aukerarekin".

**Txikiak, 'photocall' eta guzti**

Iaz ere ezin izan zuten kalejirarik egin Bergarako Musika Eskolako txikiak, baina, dena ondo bidean, azaroaren 25ean beteko dituzte herriko kaleak musikaz, Banda Gazteko kideek lagunduta. 17:30ean hasiko dira, plazan, eta eguraldiaren arabera izango da ibilbidea. Hala ere, bukaeran kontzertu txiki bat emango dute.

Musika Eskolako zuzendari Marije Ugaldek azaldu duenez, iaz lehenengoz egindako hainbat ekintza ere berreskuratuko dituzte: "COVID-19a zela-eta, Santa Zezilia egunaren bueltan egiten ditugun ohiko ekintzak moldatu egin genituen. Eskolan bertan antolatu genuen egitaraua, eta aste osoan zehar egin genituen ekintzak. *Photocall*-a eta pegatinak ere egin genituen orduan, eta aurten kalera aterako ditugu, denen eskura".

## 'Magia parrastan' ikuskizuna gaur kartzela zaharrean

*Magia parrastan* saioa egingo du Imanol Ituño magoak gaur, 22:30ean: "Umerez eta magia betetako ikuskizuna". Kartzela zaharrean izango da, 5 euroren truke. Kartek, bolatxoek, sokek eta agerpenek eta desagerpenek hartuko dute protagonismoa bertan, saio parte hartzaile eta dinamikoan. Ikuskizun familiarra da, haurrentzat aproposa.

## Musika Eskolako ikasleak, Nazioarteko Kontzertu Solidarioan

Mugarik Gabeko Musikariak Elkarteak *streaming* bidezko Nazioarteko Kontzertu Solidarioa antolatu du azaroaren 25erako, 19:00etan. Hainbat herrialdeko musikariek hartuko dute parte zuzenean; tartean, Bergarako Musika Eskolako trikiti eta pandero taldeak. Taldeek beren herrialdeko egoera azaldu eta bertako musika eskainiko dute.

# **Okm:** *batzen gaituen distantzia*

---

**Egin zaitez goienakide!**

**goiena<sup>“</sup>  
kide**



[www.goiena.eus/kideak](http://www.goiena.eus/kideak)





Astean hornitu dute gimnasioa Exercycle enpresako teknikariek. M.A.

## Gimnasioa makinaz hornituta, irekitzeko zain

Antzuolako udal gimnasioan makinak jarri berri dituzte. Guztira, 50.682,54 euroko aurrekontua dute, eta Udalak erosi egin ditu. Gimnasioa kudeatzeko ardura ere bere gain hartuko du Udalak. Urtarriletik aurrera egongo da bazkide egiteko aukera

### Maidar Arregi ANTZUOLA

Antzuolako udal gimnasioa denbora luzez egon da ez aurrera eta ez atzera. Orain, baina, gimnasioan kirola egiteko askotariko makinak jarri dituzte, eta, dena ondo bidean, 2022an antzuolarrek gimnasioaz gozatuko dute. "Gimnasioa kudeatzeko hainbat lizitazio ez zuten aurrera egin, ez baitzen inor aurkeztu. Horregatik, norabidea aldatu eta Udalak kudeatzeko erabakia hartu genuen. Hala, guk hornitu dugu eta guk kudeatzeko erabakia hartu dugu", azaldu du Beñardo Kortabarria alkateak.

Hala, asmoa da ikastaroak antolatzea eta une jakin batzuetan monitorearen zerbitzua eskaintzea. "Aholkularitza eta mantentze-lanak egiteko egun batzuetan monitorea egongo da. Ondoren, bazkideek euren kabuz gimnasioa erabiltzeko aukera izango dute. Kontrol sistema jarriko dugu, eta kameraz zainduta egongo da gimnasioa. Baz-

kide bakoitzak bere giltzarekin etortzeko aukera izango du eta bere ardura hartu beharko du".

### Ate irekiak

Aste honetan amaitu dituzte makinak muntatzeko lanak, eta Udalaren asmoa da herritarrei erakustea. "Ate irekiak antolatuko ditugu, herritarrek ikusi eta proba dezaten; eta behin sormen batzordean gimnasioaren erabilera arauak eta kuota aztertuta, abenduko osoko bilkurara eroango dugu proposamena, onar dadin. Dena ondo bidean, urtarrilean zabalduko da eta bazkide egiteko aukera egongo da".

Bestalde, azken urteetan herritarrek beste herri batzuetako

**SORMEN BATZORDEAK ERABILERA ARAUAK ETA KUOTA ZEIN IZANGO DEN AZTERTUKO DITU**

kiroldegietara joan direla jakitun, alkateak berriro herriko zerbitzuari balioa emateko eskatu die: "Negu sasoirako halako instalazioak edukitzea garrantzitsua da, eta badakit herritarrek inguruko kirol instalazioetara joaten direla. Eskatu nahi diet *zero kilometro* filosofian alde egiteko, eta herrikoa erabiltzera animatu nahi ditut".

### Punta-puntako makinak

Guztira, 50.682,54 euroko aurrekontua dauka gimnasioa makinaz hornitzea. Punta-puntako makinak direla kontatu du muntaketa lanetan ibili den Exercycle SLko teknikari Jorge Martinek: "Gorputz osoa lantzeko aukera ematen duten makina sorta oso ondo aukeratuta dago. Hankak, besoak, bihotza.. Dena lantzeko aukera dago. Hamahiru bizikleta, bi zinta, bi eliptiko, arrauna egiteko makina... Indarra eta muskulua lantzeko ere makina sorta zabala izango dute aukeran erabiltzaileek".

### Beñardo Kortabarria eta Basilio Ormazabal, 'Harira'-n

Debagoieneko udaletan ordezkatuta dauden alderdi politikoe-tako ordezkariak ahotsa eman eta mahai-inguruak egiten ari da Goiena telebistaren *Harira* saioa denboraldi berrian, Eneko Azkarate eta Goiatz Arana kazetarien gidaritzapean.

Datorren astean, hilaren 23an, Antzuolari eskainiko diote solaslaldi saioa. Beñardo Kortaba-

ria Antzuolako alkatea eta Basilio Ormazabal bozeramaile jeltzalea izango dira mahaiaren bueltan, hurrenez hurren.

Herritarrek ere, nola ez, izango dute euren intereseko gaiak edo galderak proposatzeko aukera.

Horretarako, bi aukera daude: batetik, mezu bat bidalita *berriak@goiena.eus* helbidera; eta, bestetik, Whatsapp eta Telegram bidez: 688 69 00 07. Galderak bidaltzeko azken eguna domeka da, hilaren 21a.

### Elkarretaratzea eta antzezlan indarkeria matxista salatzen

Azaroaren 25a ate joka dagoen honetan, emakumeen aurkako indarkeria salatzen egunaren baitan bi elkarretaratze egingo dituzte Antzuolan: batetik, eguerdian, 12:00etan batuko dira herritarrek, plazan. Eta arratsaldean, Andramanuelak emakume taldeak antolatuta, 19:00etan, bigarren elkarretaratzea egingo dute, honako hau ere plazan.

Azaroaren 27an, zapatua, berri, *Panpina* antzezlan izango da ikusgai, 19:00etan, Torresoroa aretoan. Sarrera doakoa da, eta aurrez eskatu behar da, liburutegian edo *labur.eus/sarrera-kantzuola* helbidean. Erika Olaizolak antzeztu eta zuzendutako antzezlan da *Panpina*, eta gai sakonak lantzen ditu bertan. *Noiz bilakatzen da norbera panpina eguneroko bizitzan? Noiz behar dugu begiratu gaitzaten eta zergatik?* Halako galderak jasotzen ditu.

### Lesbosera 1.584 euroko dirulaguntza bideratuko dute

Anelkarrek eta Zaporeak elkarrekin antzuolarren eskuzabaltasuna eskertu nahi izan dute. "Oraingo honetan, Lesbosko errefuxiatuekin herritarrek erakutsitako eskuzabaltasuna eskertu gura dugu. 1.584 euro batu ditugu neguko arropak erosteko. Honez gain, hainbat arropa-poltsa ere jaso ditugu", azaldu du Anelkarrek.

### 2022ko otsailaren 20an egingo dituzte Antzuolako 8 Miliak

Osasun larrialdiaren ondorioz, Antzuolako 8 Miliak lasterketa ere ez da egin. Antolatzaileek, ordea, jakinarazi dute dena ondo bidean 2022ko otsailaren 20rako antolatuko dutela mendi lasterketa. "Urtebeteko geldialdia egin ostean, indarberrituta gatoz! Gorde data eta hasi entrenatzen. Laster emango dizuegu informazio gehiago".

MUJIKA  
HARATEGIA



Berezitasunak:  
Etxean hazitako  
zekorrek eta oilaskoak

Kalebarren 1  
ANTZUOLA  
Tel.: 943 76 64 34

**LARREA**

**TABERNA**

Kalebarren 17  
ANTZUOLA



Aiherrako ordezkariak kalejiran. OIHANA ELORZA

## "Hitzekin jaio zen harreman sendoa dugu"

ANA MARI MARTINON  
AIHERTARRA

Ana Mari Martinonek eta senarrak 1984an Izarraitz mendian Juan Antonio Iturbe eta familiarekin topo egin zuten. Orduetik, Antzuolaren eta Aiherraren arteko harremanak sendo dirau.

**Zer moduz senidetza egun hau?**  
Oso ondo, Antzuolan beti primeran. Lagun handiak ditugu, eta pozik heldu gara.



GOIENA

laz, gainera, ezin izan ginen etorri, pandemia zela eta.

**Nola jaio zen harreman hau?**  
Oporrak euskaraz jarduten zuen herri batean igaro nahi genituen, eta Azpeitira joan ginen. Hala, Izarraitzera igo, eta han Juan Antonio Iturberekin elkartu ginen. Orduan jaio zen bi herrien arteko harremana. Hizketan hasi, eta harreman sendoa eraiki dugu. Handik urtebetetera, hamar lagun etorri ginen Antzuolara, eta gaur arte.

# Bihotza uzkurtzerainoko momentuak elkarrekin

Pandemiak etendako ohitura berreskuratu eta urteroko hitzorduari eutsita, jaialdia egin zuten Antzuolak eta Aiherrak zapatuan. Iazko etenaldiaren ostean, senidetzak 37 urtean indarrean dirauela ospatu dute, hunkituta; orainoan, Antzuolan

### Maidar Arregi ANTZUOLA

2019an egin zuten azkenekoz Antzuola eta Aiherra herrien arteko senidetza jaialdia. Baina zapatuan, pandemiak etendako ohitura berreskuratu zuten.

Aspaldiko harremana dute herri biek, eta besarkada estuak izan ziren bateko eta besteko herritarren artean. Momentu hunkigarriak eta emozioz bete-

rikoak bizi izan ziren berriro elkar ikusita.

Goizeko hamaiketan heldu ziren, autobusean, Aiherrakoak Antzuolara. Hamaiketako eskolako jolastokian egin ostean, ongiatorria egin zien plazan Beñardo Kortabarria Antzuolako alkateak, eta kalejiran ibili ziren gero, dantzan, txistulariek lagunduta. Herri-bazkaria izan

zuten, eta tertulia ostean. "2019an elkartu ginen azkenengoz Aiherran egindako kabalkadan. Iaz, ordea, pandemiaren ondorioz, ezin izan genuen ezer egin". 1984an abiatu zuten bi herriek senidetza harremana. "Euskarak batu gintuen, eta elkarrekin egoteko gogoak, orain ia lau hamarkada", nabarmendu zuten Antzuolako alkateak.

Zehazki, 37 urte dira Aiherrako eta Antzuolako familia banak Izarraitz puntan topo egin zutela, bakoitza bere kasa egun-pasa joanda.

### Harremanari jarraipena

Urte hauetan guztietan, ordea, ez dira harremanak urteko jaialdietara bakarrik mugatu. Urtean zehar ere badute telefonoz hitz egiteko ohitura, eta, jaialdiaz gain, beste ekimen batzuk ere egin izan dituzte elkarrekin. Adibidez, Aiherrako umeak Antzuolan izan dira udalekuetan eta Antzuolakoak ere joan dira hara egun batzuk pasatzera. Eta horrelakoak eginez gura dute, hain zuzen ere, orain arteko harreman honek gerora ere jarraipena izatea, belaunaldi aldaketa gertatu arren herri bien artean sortutako adiskidetasunik etenik izan ez dezan. "Urte osoan

eusten diogu harremanari. Ekin-tzak antolatzeke elkartzen gara, eta Aiherrako haurrak udalekuetara ere etorri dira. Harreman naturala dugu oinarri".

"Antzuolara beti pozik gatoz; 20 urte genituela hasi ginen etortzen. Betiko lagunekin elkartu, eta ederra izan da. Naturren bakoitzean bihotza uzkurtzen zait. Gauza asko egin dugu elkarrekin: antzerkia, bertso-saioa, korrika... Sentipen eta momentu asko partekatu ditugu, eta hori ezin da ahantzi", azaldu zuten Jamattitt Duhalde aihertarrak, hunkituta.

## HIZKUNTZAK ETA ELKARREKIN EGOTeko GOGOAK BATU ZITUEN HEGOA ETA IPARRA DUELA 4 HAMARKADA

## HARIRA ANTZUOLA

GOIENA TELEBISTA, 'HARIRA'

BEÑARDO KORTABARRIA (ALKATEA) ETA BASILI ORMAZABAL (EAJ)  
AZAROAREN 23AN, MARTITZENEAN, 21:00ETAN ETA 23:00ETAN

BIDALI ZUK ERE GALDERA:

berriak@goiena.eus 688 69 00 07

EPEMUGA: AZAROAK 21



DESKARGATU  
GOIENA  
APP BERRIA!

goiena  
Zu hemen zaude.





Komiki-albuma eta *Elgeta*-rena izandako soinu txiki bat, irailean Donostian egindako aurkezpenean. IKASTOLEN ELKARTEA

## 'Elgeta'-k jotako piezak domekan Espaloian

Soinu txikia ogibide egin eta errepertorioa aberasteaz gainera, ikasle asko izan zituen Jazinto Rivas *Elgeta*-k. Euskal Herriko Trikitixa Elkarteak irailean argitaratu zuen haren ibilerak jasotzen dituen komiki-albuma. Domekan aurkeztuko dute Espaloian

**Larraitx Zeberio Lekuona** ELGETA  
"Musikaren munduan ikono handi bat izan beharko luke Jazinto Rivas *Elgeta*-k". *Xabiroi* aldizkariko ilustratzaile Dani Fanoren hitzak dira. Intxuzabal baserrian hazitako soinu-jolearen ibilerak jasotzen dituen *Sasi artean Elgeta* komiki-albuma irailean iritsi zen liburu dendetara, eta orduko aurkezpenean

egindako adierazpenak dira. Elgetan ere egingo dute ekitaldia. Domekarako iragarri dute, 18:00etan. Bertan izango dira azken bi urteotan komiki-albuma egiteko langintzan ibilitako Koldo Izagirre gidolaria, Dani Fano ilustratzailea eta Ekaitz Agirre *Garluk* kolorista. "Hiru-erok bertaratuko gara. Guretzat oso oso garrantzitsua da komi-

ki-albuma Elgetan aurkeztea. Non bestela? Jazintoren lekutara itzuliko gara".

Komiki-albuma aurkezteaz gainera, lanketa prozesua zein izan den azalduko dute hiru egileek, eta jatorrizko marrazkiak ere ikusgai jarriko dituztela aurreratu dute. "Musika ere izango da. Trikitia, jakina! Eta sinatze saioa ere egingo dugu

## "Elgeta"-k sekulako gaitasuna zuen entzundakoa belarriz ateratzeko"

ADOLFO JAINAGA TRIKITI IRAKASLEA

Jainagaren trikiti doinuek jantziko dute komiki-albumaren aurkezpen ekitaldia. **Jazinto Rivas *Elgeta*-ren piezak joko dituzu domekan?**

Lau bat pieza joko ditut. Horrela eskatu didate, eta hori da nire asmoa. Tamalez, ez dakigu ziur *Elgeta*-k sortutakoak diren edo ez; izan ere, garai hartan soinu-joleek ez zituzten egiletza kontuak idatziz jasotzen. Horrelakoetarako txistulariek beste sentsibilitate bat izan dute, tradizioz eskolatutako jendea zelako, soinu-joleen kasuan ez moduan.

**Errepertorioa handia da.** Ehunka kanta daude. Batez ere, fandangoak, arin arinak eta biribilketak. Baina bestelakoak ere badaude. Joko ditut *Elgeta*-k bere ikasleei erakutsi izandako piezak. Guk ikasle



L.Z.L.

haiengandik jaso ditugu. Ez daukat oraindik guztiz erabakita ze lau pieza izango diren. *Euskal gazteak dantzan* fandangoa eta *Hasiera* arin arina bai, adibidez. ***Elgeta*-k ez zekien musika idazten.** Ez. Gauza handia egin zuen piezak erakusten, baina ez zekien musika irakurtzen. Hori bai, sekulako gaitasuna zuen entzundakoa belarriz ateratzeko, eta hori meritu handia da.

nahi duenarentzat", gaineratu du Dani Fanok.

### Musika, Jainagaren eskutik

Jazinto Rivas *Elgeta*-k bizimodu oso gorabeheratsua izan zuen. Apenas dago haren ibileren inguruko informazio argirik. Soinu txikirako utzitako pieza errepertorioa, ordea, oso aberatsa da eta jakintza hori makina bat ikasleri transmititu zien. "Ez zeukan musikarik, baina gai zen edozein instrumenturakin entzundakoa pieza soinu txikiarekin ateratzeko. Hori

gauza handia da", azaldu du Adolfo Jainagak. "Ikasle asko izan zituen. Horien artean daude Iñaki Garmendia *Laja*, Faustino Azpiazua *Sakabi*, Juan Garate *Maltzeta*... Horiengandik ikasi dugu guk. Hirugarren belaunaldia gara".

### KOMIKIRAKO EGINDAKO JATORRIZKO MARRAZKIAK ERE IKUSGAI IZANGO DIRA

## Indarkeria Matxistaren Kontrako Egunean, elkarretaratzea

Ione Larrañaga *Larrago* artista antzuolarrak zapatuan amaitu zuen gimnasioan egindako horma-irudia

L.Z.L. ELGETA

Handia izanagatik, egun gutxian egin du horma-irudia artista antzuolarrak. Elgetako Udalak Bideberri Mankomunitatearen bitartez egindako eskaera izan da, eta lan fina egin du Larraña-

gak. Egitasmoak 1.872 euroko aurrekontua izan du.

Horma-irudia gertu egongo da Indarkeria Matxistaren Kontrako Egunerako. Elkarretaratzea ere deitu dute egunerako. 19:00etan izango da, Mendizaleen

plazan. "Aurretik, bihar bertan, plazan mahaia jartzeko asmoa dugu. Iaz ateratako puntu morea duten poltsak banatuko ditugu, eta baita ere esku morea duten banderatxo zuriak. 50 bat banderatxo ditugu banatzeko", azaldu du Gizarte Ongizateko zinegotzi Garbiñe Irazabalek.

Indarkeria matxistaren inguruko sentsibilizazioan eragiteko eta gaia gizarteratzeko askotariko mezuak ere ipiniko dituzte plazaren bueltan kontzentrazioaren egunerako.



Puntu moredu poltsak banatuko dira, aurrean ere, Udalak. L.Z.L.



# Mendi lasterketa izango da Elgetan martxoan

Intxortako Ahuntzak taldeko kideek antolatu dute. Martxoaren 27rako iragarri dute eta honezkero 90 lagunek eskatu dute dortsala helduen probarako. Zaletasuna bultzatzeko helburuarekin 12-16 urte arteko gazteendako lasterketa ere egongo da

**Larraitz Zeberio Lekuona** ELGETA

"Elgetarako egun handia izatea espero dugu", adierazi du Intxortako Ahuntzak taldeko Eleder Lozanok. Orain dela bi urte sortu zen Intxortako Ahuntzak taldea, eta hasieratik azaldu zuten Elgetan mendi lasterketa bat antolatzeko asmoa. Badator. Martxoaren 27rako iragarri dute, eta, helduendako proba ez ezik, 12-16 urte arteko gazteendako ere proposatu dute. "Helduen lasterketa 10:00etan abiatuko da. Hamabost kilometroko ibilbidea izango du, 900 metroko desnibelarekin", zehaztu du Lozanok. "Plazatik abiatu, Goi-komendi zapaldu eta Aixolako presara jaitsi beharko da, ondoren Erdellara igo -Flomatek saria gizonetan zein emakumeetan- eta Intxorta zapaldu ostean plazara itzuli".

Gazteen probak, aldiz, lau kilometro izango ditu, eta 200 metroko desnibela. "10:30ean abiatuko da, plazatik, eta Goi-komendira igo ostean lasterkariak Larrabilburuko pistara jaitsi beharko dute, eta atzera ere plazara itzuli". Nagusien lasterketa *Ahuntzen lasterketa* izango da eta gazteena, *Antxumeen lasterketa*. "Hasieratik izan dugu argi helduen lasterketak hamabost kilometro izango zituela, eta Intxorta moduko ton-tor enblematiko batek bai ala bai egon behar zuela ibilbidean".

**Oihana Kortazar ere lasterketan**

Proba nagusirako 200 dortsal egongo dira. "Baldintza egokietan egin nahi dugu lasterketa, eta muga hori jarri dugu lehen urterako", azaldu dute antolatzailleek. Izen-ematea zabalik da dagoeneko *herrikrosa.eus* atarian, eta lehen astean 90 izen-emate izan dira.

Horien artean da 1 zenbakidun dortsalarekin parte hartuko duen Oihana Kortazar mendi lasterkari elgetarra. Bera da kartele-



Intxortako Ahuntzak taldeko kideetako batzuk lasterketa berria aurkezten. L.Z.L.

## ASTELEHENA EZKERO DAGO ZABALIK IZEN-EMATEA 'HERRIKROSA.EUS' ATARI DIGITALEAN

ko irudia, eta gogotsu azaldu da lehiarako. "Egia bihurtuko den amets bat; Elgetan, nire herrian, mendi lasterketa antolatu dute! Zenbat ordu pasa ditudan mendi hauetan! Nik bezala gozatuko duzuelakoan, bertan ikusiko dugu elkar!", adierazi du sare sozialen bidez Kortazarrek.

**Gazteendako pizgarri**

Antolatzailleek garrantzi berezia ematen diote 12 eta 16 urte arteko neska-mutikoendako lasterketari, neurri handi batean, mendi lasterketarako zaletasuna ere piztu nahi dutelako. "Adin tarte horretan hutsune handia dago. Askok dira mendi lasterketan parte hartu nahi duten gazteak, eta adinagatik ezin dute. Nahiko genuke informazioa hel-tzea inguruko herrietako instituetara ere. Ea denon artean lortzen dugun!", esan du Lozanok.

**Auzolanean**

Eguna jarrita dago, ibilbidea erabakita... Hurrengo erronka handia lasterketaren antolaketa izango da. "Elgetak aukera paregabeak eskaintzen ditu halakoak egiteko. Laguntzaile asko beharko ditugu; boluntarioak bidezidorrak garbitzeko, bideak markatzeko, kanpotik helduko diren autoak bideratzeko, dortsalak banatzeko, irten aurretik lasterkariak antolatzeko, ibilbideetako bidegurutzetan egoteko, anoa puntuetan egoteko, plazako mokadutxoak, dutxak... Baina hori ez da oztopo izango Elgeta moduko herri batean. Badago gaitasuna lasterketa hau auzolanean antolatzeko. Elgetan gauza handiak egin daitezke", esan du Lozanok.

Babesleen parte hartzea eskertu du, eta jendea animatu du lasterka egitera. "Edozein kirolarik egiteko moduko lasterketa da. Gainera, martxoaren 27ra bitartean nahiko denbora dago hankak eta bihotza ondo prestatzeko. Animatzen ditut halako lasterketetan parte hartu ez dutenak, eta, batez ere, gazteak. Adin polita da mendi lasterketak ezagutzeko".



L.Z.L.

## Mediku kontsulta berrituko dute

Aspaldiko eskaera da, eta Osakidetza laster egingo ditu berritze lanak Elgetako kontsultan. Horiek egin bitartean, medikuak eta erizainak aldameneko lokalean artatuko dituzte elgetarrak. Lokal hori egokitu bezain pronto egingo da aldi baterako aldaketa. Osakidetza ez du, oraingoz, data zehaztu, baina lehenbailehen izango dela esan du.

## Energia krisiaren gakoak Goienerreko kideen eskutik

Elgetako Udalak antolatuta, energia krisiari buruzko hitzaldia egingo dute Goiener kooperatibako bi kidek eguztutenean. Oier Etxebarria eta Leire Astigarraga izango dira hizlariak, eta saioa 18:30ean hasiko da, Espaloia kafe antzokian. Energia krisiaren gakoak eta etorkizuneko aukerak izango dituzte hizpide. "Hitzaldian

fakturaren igoeraren arrazoienguz inguruan arituko gara, eta autokontsumoaren aukeraz eta energia komunitateei buruz hitz egingo dugu", aurreratu du Etxebarriak.

Iaz Elgetan egindako Aste Berdea jardunaldietan ere izan zen Oier Etxebarria. Orduan, berriztagarria den energiari buruz aritu zen, etxeko kontsumo energetikoari eta autokontsumoari buruz. Orduetik hona, gora egin du energiaren prezioak; batez ere, argindarraren kasuan.

## OHARRAK

### Ipuinen ordua liburutegian gaur

Liburutegiko ipuin kontalari taldeko lagunak eskutik bi saio izango dira aste honetan. 16:55ean, LH-3, 4 eta 5 geletako neska-mutikoendako kontaketa izango da; eta 17:35ean, HH-5 eta LH-1 eta 2 taldekoendako.

### Bidelaguna zure zain eguztutenean

Euskarazko mintzapraktika egiteko gertu izango da bidelagun bat liburutegian, eguztutenean. 18:30etik aurrera bertaratu daitezke interesatuak.

### Hika ikastaroa

Eguenean, azaroak 25, emango diote hasiera Juan Martin Elexpuruk gidatuko duen hika ikastaroari. Kultura etxean da hitzordua, 18:30ean. Bina orduko lau saio izango dira, eta honako hau izango da lehenengoa.

### Plastiko bilteta eta garbigune ibiltaria

Martitzenean, baserrian sortutako plastikoa jasotzeko zerbitzua emango du Mankomunitateak. Telefonoz eskatu behar da aurrez: 943 76 25 47. Eguaztutenean, berriz, Salvador kalean izango da garbigune ibiltaria, 10:00etatik 21:00etara.

# Manifestaziorako deia azaroaren 25ari begira

Udalaz gain, herriko talde feministak eta beste eragile batzuek ere parte hartu dute azaroaren 25aren bueltako egitarauan. Indarkeria matxistaren aurkako borroka guztiona eta gaurtik dela sinetsita, 'Indarkeria matxistaren aurka elkarEKIN' mezua aukeratu dute

## Oihana Elortza OÑATI

*Indarkeria matxistaren aurrean, elkarEKIN* leloarekin dator aurtengo azaroaren 25a Oñatira. Joan den urteko mezu bera da, eta, aurreko urteetan moduan, herriko eragileek elkarrekin edo elkarren berri izanda antolatatu dituzte ekintzak, bata besteaz bestea oztapa ez dezan.

## Konpromisoa eta laguntza

Egunean bertan, datorren egunean, adibidez, manifestazioa egingo dute herrian zehar, plazan abiatuta, eta bertara joateko deialdia egin dute Udalak, Bargastak taldeak eta Oñatiko Sare Feministak elkarrekin. Bezperan, Antixena gaztetxean, tailer irekia egingo dute, manifestazio horretarako kartelak prestatzeko. Lagun Leku erretiratu elkarteak ere batu da ekitaldietara, eta egubakoitzean Olakuako urmaelean egin behar zuen elkarretaratzea egun bat lehenago egingo du. Zineklubeko azaroko azken emanaldian, berriz, genero indarkeriaren aurkako gaia lantzen duen dokumentala emango dute.

Puntu lila duten posterrak etxeko leihoetan jartzeko gonbidapena ere egin du Udalak egun horretarako; hala ere, egitarauaz gainera, indarkeria matxistaren aurka aritzeko konpromisoa erakutsi gura dute egunaren antolaketan aritu diren taldeek, eta euren laguntza eskaini behar duenari. Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeen arreta hobetzeko erakunde arteko koordinazio protokoloa eta Oñatin indarkeria sexista kasuen aurrean erantzun publiko instituzionala emateko protokoloa martxan dago Oñatin. Gizarte Zerbitzuak, Udaltzaingoa, Berdintasun Saila eta Xirrika sexu aholkularitza zerbitzua, besteak beste, eskura dituzte herritarrek, eta baita herriko talde feministak ere.



Puntu lila duen posterra itsasten. GOIENA

## Bost, urte hasieratik

Indarkeriaren inguruko aurtengo datuen harira, bost emakume joan dira Oñatiko Udaleko Gizarte Zerbitzuetara urtarrietatik urrira bitartean. Azaroko eta abenduko datuekin

batera, Ertzaintzaren eta Osakidetzaren datuak ere urte amaieran jakingo ditu Udalak, eta, joan den urtean egin moduan, datu guztiekin ebaluazio bat egiteko eta azterketa jasotzeko asmoa du.

## Hainbat eragilek antolatutakoak

Eguaztenean eta egunean izango dira antolatutako ekintzak:

### Azaroak 24

- **18:00** *Fabricando mujeres 2.0. ¿Consumimos violencia?* dokumentalaren proiektzioa eta solasaldia. Setemek eta Udalak. Zinema aretoa.
- **19:30** Manifestaziorako kartelak egiteko tailerra. Bargastak eta Oñatiko Sare Feministak. Gaztetxean.

### Azaroak 25

- **Egun osoan** etxeko leihoetan puntu lila duten posterrak jartzeko ekimena. Udalak.
- **12:00** Elkarretaratzea Olakuako urmaelaren ondoan, Lagun Leku erretiratu elkarteak deituta. Pentsio duinen alde eta adineko pertsonen jasaten duten indarkeriaren kontra.
- **18:30** Manifestazioa, plazatik abiatuta. Udalak, Bargastak eta Oñatiko Sare Feministak.
- **20:00** Zinekluba: *Lo que no te mata* dokumentala. Udalak, zineklubak eta Oñatiko Sare Feministak.



Umeak herriko plazan helduek lagunduta. A.T.

## Helduek umeen aurrean euskaraz berba egiteko ariketa

Topaguneak egin duen proposamena da eta 0 eta 12 urte arteko umeen hezitzaileei dago zuzenduta

### O.E. OÑATI

Datorren urtean egingo da berriro Euskaraldia, baina aurtengo tarterako, hizkuntza ohi-turak ez galtzeko, ariketa bat proposatu die Topaguneak 0 eta 12 urte bitarteko umeen hezitzaileei: *Haurren aurrean, helduok heldu* du izena.

Euskal Herri osoan egingo da, baita Oñatin ere. Herriko Euskaraldiko taldearen eta ikastetxeen zein guraso elkarteekin laguntzarekin gauzatu gura da hemen. Asteaz aurkeztu zaie ekimena eragile horiei, Euskaldun Berria gelan, eta asmoa zein

den azaldu: adin horretan dauden umeekin harreman zuzena duten eta hizkuntza transmisioan eragina duten helduen hizkuntza-praktika aldatzea eta euskara gehiago erabiltzeko aktibazio ekimena gauzatea.

Proposamena da ariketa hau azaroaren 22tik abenduaren 5era egitea, baina epe luzerako ekimena izatea da, berez, asmoa, Xabier Zabaleta Udaleko Euskara teknikariak azaldu duenez, eta orain sare txiki bat osatu eta gero ere landu eta indartu daiteke, helduek euskara erabiltzeko umeen aurrean.

## GORA ETA BEHERA



## Aspaldiko zuloa, konponduta

Ugarkaldeko jolas parkearen hasieran zegoen zuloa konpondu egin dute, eta pozik dago erabiltzaile bat, baina ziburuak zikinak egoten direla ere badio, eta garbitzeko eskaera egin du.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? [berriak@goiena.eus](mailto:berriak@goiena.eus) edo 688 69 00 07.

# EAJk dio kuoten igoera "neurrigabea" dela

Kiroldegiko tasa aplikatzeko egindako berregituraketak abonamenduen prezioen igoera orokorra dakarrela uste du alderdi jeltzaleak, pentsiodunetan "neurritz kanpokoak" dela iritzita. Errenta baremoak ez duela herriko errealitatea islatzen ere badio

## Oihana Elortza OÑATI

Datorren urteko kirol tasaren hobariak etxe unitatearen diru-sarreraren eta bizi diren kideen araberakoa izatea onartu zuen udalbatzak, EH Bilduren aldeko botoekin, 2022ko udal zergak onartzeko urrian egindako ezohiko osoko bilkuran. EAJk uste du, ordea, hobariak eskuratzeko aplikatutako errenta-baremoek ez dutela Oñatiko errealitatea islatzen, egindako berregituraketak abonamenduen igoera orokorra dakarrela, eta salatu du kiroldegiko kuoten "hazkundearen desproporzioa".

Igoera hori, pentsiodunen kasuan, adibidez, "neurritz kanpokoak" izateraino iritsi daitekeela gehitu dute jeltzaleek prentsa oharrean. Diote egoera horretan dagoen herritar batek egungo 78,40 euro ordez, 180 euro ordaintzera iritsi daitekeela pentsioa beste diru-sarrerarik ezean. EAJk dio hobariak aplikatzeko sistema hori ondo ikusten duela, baina errenta baremoak ez datozela bat Oñatiko errealitatearekin: "Kuotak erabiltzaileen errentan oinarrituta antolatzearen aldekoak gara, baina uste dugu erabilitako baremoak eta aplikatutako hobariak ez datozela bat Oñatiko errenten errealitatearekin. Horren isla da

abonu gehienek igoera handia izango dutela. Eustat-en arabera -2018ko datuak-, Oñatiko herritarren batez besteko errenta 25.880 eurokoa da. Hori kontuan izanda, Oñatiko herritar gehienek ez dute hobaririk jasoko edo hobari oso txikia izango dute; eta horrek kuotaren igoera handia ekarriko du".

## Tasa igoerarik ez

Kiroldegia berritzeak Udalarri ekarri dion "inbertsio eta ahalegin handiak" ez lukeela erabiltzaileengan eraginik izan behar

uste dute jeltzaleek, eta "akatsa" dela tasa igotzea, "kostuak ezagutu gabe dauden honetan. Uste dugu ez dela tasak igotzeko unea. Gainera, EH Bilduren argudioari jarraiki, uste dugu akats bat dela tasak handitzea, kiroldegi berriaren ustiapenaren kostuen igoeran oinarrituta. Izan ere, oraindik ez ditugu kostu horiek ezagutzen; urtebete igaro behar da datu objektiboak lortu ahal izateko, eta kiroldegiaren autofinantzaketa maila zein izan beharko litzatekeen aztertze eta definitzeko".



Zubikoa kiroldegiaren sarrera. GOIENA

## Datorren astean da Hezkuntza Mahaiaren lehen hitzaldia

Gurasoen formakuntzarako hiru hitzaldi eta tailer bat antolatu ditu Hezkuntza Mahaiak ikasturte honetarako. Seme-alaben adinaren araberakoak izango dira, azarotik maiatzera bitartean. Lehenengoa, hain zuzen ere, hilaren 26an egingo dute eta Haur eta Lehen Hezkuntzako ikasleen gurasoei zuzendutako hitzaldia izango da, frustrazioei eta horiek kudeatzeari buruzkoa. Bigarren Hezkuntzako ikasleen gurasoendako, sexualitateari buruzko hitzaldia egingo dute martxoan. Maiatzean jorratuko dituzten gaiak dira, liskarrak eta haurtzaro zein nerabegaroko nahaste psikologikoak.

## Dituen helburuak eta lan ildoak aurkeztu ditu Oñatiko Ernaik

Taldeak 2021-2022 ikasturterako dituen helburuak eta asmoak aurkeztu ditu asteburuan Oñatiko Ernaik. Helburu nagusien artean "herri mugimendua indartzea eta aktibatzea" dauka, eta aurrera begira zenbait gai jorratzen jarraituko dutela aurreratuko dute, hala nola "presoen egoera plazaratuz, borroka feminista elikatuz eta ekologismo landuz". Egun osoko egitaraua prestatu zuten gaztetxean zapatutako aurkezpenaren bueltan, mahai-ingurua, bazkaria eta musika emanaldiak barne, eta balorazio positiboa egin dute, eguna posible egiten lagundu zien "komunitateari" eskerrak ematearekin batera.



OLAKUA LAGUNARTEA

## 'Sobri'-rengana bisitan

Jose Maria Sobrino *Sobri* bisitatzen izan dira Olakua lagunarteko kideak Casalarreinan (Errioxa). Egun Eltzia dagoen eraikinean zegoen tabernako zerbitzaria izan zen *Sobri* hainbat urtez. 66 urterekin, erretiroa hartuta, joan zen bizi izatera jaioterrira; 83 ditu egun. Hainbat bizipen eta tertulia izandako lagunak joan zaizkio bisitan; egun ederra pasa zuten elkarrekin.

# A25

# AZAROAK 25

INDARKERIA MATXISTAREN  
AURKA

elkarEKIN!



OÑATI  
dabilen herria

# "Behobiara arriskatzera joan, eta ondo irten zen"

SAIOA ARKONADA KORRIKALARIA

Behobia-Donostia lasterketan duela bi urte egindako marka hobetu du oñatiarrak, ordubete eta hemeretzi segundo eginda; bailarako emakume azkarrena izan da

**Amaia Txintxurreta Guridi** OÑATI

Iazko etenaren ostean, joan den domekan jokatu zen Behobia-Donostia lasterketa entzutetsua, eta Saioa Arkonadak bazuen helburu bat: duela bi urte egin zuen marka hobetzea. Ordubete eta hogeit hamar minutuko denbora hobetu nahi zuen, eta minutu bat gutxiago eginda helmugaratu zen.

**Beste behin, bailarako emakumezko azkarrena izan zara Behobia-Donostian. Zorionak!**

Aurretik neukan marka hobetu nahi nuen, eta horretara joan nintzen. 1.20.20ko denbora egin nuen duela bi urteko lasterketan, eta banekien ondo prestatuta nengoela. Izan ere, nire ohiko erritmoak hobetzen nabilen aurretik izan naizen beste lasterketa batzuetan; Donostian izaten den Hiru Hondartzetako Krosean eta 15 Kilometroko Lasterketan, esaterako. Gertatzen dena da Behobia-Donostia ez dela beste lasterketa horiek bezalakoa; gutxi gorabehera, lauak eta erritmo konstante baten joateko modukoak. Behobia-Donostia gorabeheratsua da, muskularki hauts eginda bukatzen duzu... Orduan, arriskatzera joan nintzen, eta ondo irten zen. Oso pozik nago, nire marka pertsonala ia minutu bat hobetu nuelako, 1.19.30 eginda. Adinean ere aurrera goaz, eta ez nuen uste...

**Zein sentsazioekin bukatu zenuen?**

Lasterketa bukatu nuen dena emanda. Urtero gogorra egiten zait, batez ere, Zurriola hiribideko azken zati horretatik helmugarainoko tartea. Baina, gainera, aurten iritsi naiz esprintean eta dena emanda. Erabat hustuta. Izan ere, aurten ez dudana topatu izan da nire taldea lasterketan zehar; azkenean, ia beti aurkitzen duzu taldetxo bat zure erritmora doana, eta oraingoan izan nituen momentu asko lasterketan bakarrik egon naizena. Pentsa zenbat



Saioa Arkonada korrikalari oñatiarra, atzo, eguna. MIREIA BIKUÑA

## "AURTEN EZ DUT TOPATU NIRE TALDEA, ETA UNE ASKOTAN BAKARRIK JOAN BEHAR IZAN NUEN"

jendek hartzen duen parte, baina hori gertatu zitzaidan. Egia da neskak ere lehenago irteten garela, eta, arrazoi bat eta beste, momentu asko izan nituen lasterketan egon nintzela bakarrik, ez neukan talde edo erreferentzia bat.

**Erlojuari begira joan zinen?**

Bai; marka pertsonal bat lortu nahi baduzu, matematika kontuan hartu behar duzu. Igoeretan gutxiago eman dezakezu, jaitsieretan gehiago... Hori guztia kontrolatu beharra daukazu. Batzuek segundoak hobetu nahi dituzte, eta samurra ematen du, baina gero zaila egiten da bategatik edo bestetik kentzea. Baina etengabe daukazu erlojuari begira joan beharra.

**Entrenamendu ugari egin dituzu. Nola moldatu zara?**

Bukaera aldera, karga gutxiago sartzen joaten naiz; bezperako

aste horretan, batez ere. Baina, bestela, astean sei aldiz joaten naiz korrika egitera. Gainera, ez da inolako sakrifizioa; azkenean, niretzako korrika egitea da nire momentua, nire deskonektatzeko unea, horrela ohitu naiz, eta nire bizitzaren parte da korrika egitea. Ematen didan satisfazioa da sakrifizioa baino handiagoa.

**Pandemiagatik bertan behera gelditu diren lasterketak ez izateak izan du eraginik zuregan?**

Nik berdin jarraitu dut entrenatzen; ez, agian, intentsitate berarekin, baina egunero ibili naiz nire irteeratxoak egiten, eta, etxean egon behar izan dugunean, goizez eta arratsalde egiten nuen korrika, edo ibiltzen nintzen zintan, bizikletan edo dena delakoan.

**Beste lasterketa batzuetan ere hartu duzu parte azkenaldian.**

Bai; mendikoekin hasi nintzen, Aloñako lasterketara begira, baina hori ez nuen egin urrian, ez nintzelako prestatu beste urte batzuetan bezala. Uda partean niretzako errazagoa izan da errepidean ibiltzea. Aurrera begira, momentuz, ez daukat lasterketa zehatzik buruan.



Biain, klarinetea jotzen; banda zuzentzen izango da domekan. I.S.

## Aitor Biain bandaren zuzendari gisa estreinatuko da domekan

'Munduan zehar' kontzertua eskainiko du musika bandak Zubikoako pilotalekuan, domekan, 13:00etan

**A.T. OÑATI**

*Gutziak* denboraldi berriko lehen kontzertua eskainiko du domekan Oñatiko Musika Bandak. Iñaxio Ibarrondo zuzendariaren agurraren ostean, Aitor Biainek hartuko du bandako batuta domekan lehendabizikoz programa osoa zuzentzeko, eta, hain zuzen, "pozik eta gogotsu" dagoela azaldu du.

**Berrikuntzekin datoz**

*Munduan zehar* kontzertuan sei pieza eskainiko dituzte zuzendari berriaren gidaritzapean, eta bidaia egingo dute Europatik,

Txinatik, New Yorketik... itsasontziz, trenez eta aireko globoz. Nobedade bezala, zuzenekoan perkusio *set*-a nahikotxo handitu dute eta zuzendariak dio publikoak ere nabaritu duela hori. Instrumentu berriak ere sartu dituzte, eta taldea "berrituta" entzun ahal izango da Zubikoan, domekan, 13:00etan.

Gainera, uniforme berria estreinatuko dute denboraldiko lehen kontzertu honetan; beraz, irudi aldaketa ere atzemango da.

Ez da behar sarrerarik eta doan sartu ahal izango da kontzertuaz gozatzera.



NIRE USTEZ

UXUE MONTERO

## Jatorrizko bertsioa

Urrian, Oñatiko zinemak denboraldia hasi zuen, nobedade batekin: orain, pelikula guztiak jatorrizko hizkuntzan, azpigituluak lagunduta, proiektatzen dira. Nahiz eta iruditu filma ikustea eta aldi berean irakurtzea deserosoa dela, pelikulak jatorrizko bertsioan ikustek abantaila ugari ditu. Pentsa dezagun gure zinemako hainbat pelikulatan; esate baterako, *Handia*, *Hil kanpaiak*, *Loreak*, *Kutxidazu bidea*, *Ixabel*, *Izarren argia*... baina gaztelaniaz. Adi! Ez aktore berak gaztelaniaz hitz egiten, beste ahots batzuekin baizik, azenturik gabe eta beste doinu batekin. Filma berdina dela irudituko litzaiguke? Ez genuke, inondik inora, berdin ikusiko. Nabardura asko galduko liratzeko eta aktoreen interpretazioak beren nortasunaren zati handi bat galduko luke, ezta? Ba, hori ere gertatzen ari da pelikula bat ingelesetik edo beste hizkuntza batetik bikoiztuta ikusten dugunean. Oso ohituta gaude film bikoiztuak ikustera, baina behin jatorrizko bertsioei aukera ematen zaienean, zinema beste era batera gozatzen da.

# Domekan da Irizar omentzeko kontzertua

Musikegunak egitasmoaren barruan omenduko dute apirilean hil zen Juan Carlos Irizar musikari oñatiarra, 19:00etan, Santa Anan. Haren bederatzi pieza joko dituzte kanpoko eta herriko musikariek, hiru atal izango dituen emanaldian

## Oihana Elortza OÑATI

Juan Carlos Irizar musikari oñatiarraren beraren bederatzi pieza joko dituzte domekan Santa Anan 19:00etan egingo den haren omenezko kontzertuan. "Piezak bereak dira, baina beste musikari batzuek joko ditugu; pianoaz gain, beste instrumentu batzuk ere entzungo dira eta beste doinu bat izango dute piezak horiek. Uste dut emanaldi polita izango dela. Kanpoko zein herriko musikariek hartuko dute parte".

## Hiru atal ditu kontzertuak

Arantzazu Saiz piano jotzaile oñatiarraren hitzak dira. Bera-



Juan Carlos Irizar musikaria pianoa jotzen. GOIENA

rengana jo zuen Udalak kontzertu hau antolatzeke, eta horrelaxe egitea erabaki du. "Aukera bat zen bere pieza batzuk hartu eta gurera moldatzea. Baina ideia hori baztertu eta bere piezak diren bezala jotzearen alde egin dut, beste musikari eta instrumentu batzuek joko badiuzte ere. Zein pieza jo erabakitzea izan da zaila, asko ditu eta".

Hala, bederatzi pieza aukeratu ditu, hiru ataletan banatuta. "Natura izango da bat. Herriak eta hiriak beste bat. Eta une horretan, adibidez, Xabier Ugarte eta Jesus Mari Aranburu gitarra-jotzaile oñatiarrek joko dute pieza bat; Irizarren lehen diskoan hartu zuten parte biek. Hirugarren atala bere ondareari begira egindakoa izango da eta emanaldia bukatzeko, berriz, maitasun abesti bat joko dugu".

Ugartek eta Aranburuk ez ezik, Aran Saiz hirukoteak ere joko du -Hasier Oleaga eta Iosu Izagirre dira Saizekin batera hirukotea osatzen duten beste biak-, baita Xabier Zeberio, Karmelo Bengoetxeak eta Iker Orozcok. Aita Menniko gerente Mikel Tellaetxea ere etorriko da.

## Bertsoz girotutako txakolin-dastatzea eguaztenean

Bertsoz girotutako txakolin-dastatzea egingo dute eguaztenean, hilak 24, Santa Ana antzoki atarian. Getariako txakolina ezagutzera ematea da asmoa eta probatuko dituzten txakolineta-bat etxekoa izango da: Murgialdai. Mikel Garaizabalek gidatuko du dastatzea eta bertsoetan Nerea Elustondo eta Unai Agirre arituko dira.

## Lehoiaren aurkikuntzaz arituko da Iñaki Zubeldia

Duela 55 urte Arrikutzeko koban galduta zeudela aurkitu zuten lehoiaren hezurdu Iñaki Zubeldiak eta Jesus Mari Marotok. Gertaera hura jasotzen duen liburu bat atera du Zubeldiak, *Lehoiaren atzaparretan galduta*, eta Turismo Bulegoan berba egingo du Zubeldiak lan horri buruz eguenean, hilak 25, 18:00etan.

## DEBAGOIENEN PROFESIONAL LIBERALAK

### ABOKATUAK

**BERNARDINO MAIZTEGI**  
BERGARA / Irizar 5  
Tel.: 943 76 10 81

**BEGOÑA LASAGABASTER**  
ARRASATE / Iturriotz 15, 1 A  
Tel.: 943 79 98 86 / Faxe: 943 77 01 08  
blasaga@conet.es

**RAFAEL ARANBURU**  
BERGARA / Irizar 5  
Tel.: 943 76 10 81

### AHOLKULARITZAK

**ANDRA MARI AHOLKULARITZA**  
ARETXABALETA / Araba ibilbidea 20, behea  
Tel./Faxe: 943 79 29 26  
andrama@arrakis.es

**ALBERDI ASESOREAK**  
BERGARA / Matxiategi 36  
Tel.: 943 76 90 83

### ARKITEKTOAK

**BIARK ARKITEKTOAK**  
ARRASATE / Usaetxe plaza 1, behea  
Tel.: 943 79 80 33  
www.biark.net

**LARRAITZ VALENCIA AZKARGORTA**  
Arkitektoa eta tradesperson formazioa  
Tel.: 636 89 92 11  
larraitz.arkiostudioa@gmail.com

### ETXE ADMINISTRATIOAK

**URIBESALGO ADMINISTRATIOAK**  
ARRASATE / Pablo Uranga 3, behea  
Tel.: 943 79 51 25  
uribesalgo@uribesalgo.es

# Ariane Martin Espainiako txapelketara doa; debagoiendar bakarra

**KARATEA** Zapatuan Bergaran egindako Euskadiko Txapelketan ibarreko zortzi karatekak jantzi zuten urrea, baina horietatik guztietatik Shotokan-eko karateka da hautatzaileak aukeratu duen bakarra. Azaroaren 26an, 27an eta 28an du hitzordua

**Xabier Urzelai** BERGARA

Euskadiko Karate Federazioko hautatzaileak aste barruan eman du Espainiako txapelketara joango diren karateken zerrenda, eta nahiz eta Bergarako hitzorduan ibarreko klubetako zenbait ordezkari oso maila onean ibili ziren –guztira, zortzi domina eskuratu zituzten, horietako hiru urrezkoak–, Debagoienekoen artean Ariane Martin bergarra da Malagara joango den bakarra. Hain zuzen, Martin (Shotokan) bergararrarekin batera, UDAko Joanna Perez aretxabaletarrak eta Aloña Mendiko Alazne Unzurrunzaga oñatiarrak ere urrea lortu zuten Bergaran, nork bere kategorian.

Hala, Bergarako gipuzkoar bakarra izango da emakumezkoen kategorian, eta, alde horretatik,

oso esanguratsua da Arabatik zenbat karateka joango diren. "Gasteiz aldean urte asko darabate karatean lanean, eta gazteen partetik inplikazio handia lortzen dute, egunero joaten dira entrenatzera", adierazi du Shotokaneko Josean Iñarrak.

Etxeko borrokalariaren gainean galdetuta, Iñarrak garbi dauka non dagoen Martinen indargunea: "21 urtez azpikoen kategorian lehiatuko da Ariane, 53 kilokoan, eta lan txukuna egin dezake txapelketan. Berezik hanketan daukan indarrean

**IBARREKO  
KARATEK GUZTIRA  
ZORTZI DOMINA  
ESKURATU ZITUZTEN,  
URREZKO HIRU**

dago gakoetako bat, eta daukan gorpuzkera txikia baliatzen du defendatzea egokitzen zaionean ondo tolesteko, eta berehala irteten da erasora. Hala, beste urte batzuetan klubeko Irati Urigoitiok eta Naia Perezek lortu dute Espainiakorako txartela. Oraingoan, Martin joango da; gozatu dezala".

**Txapelketarekin, pozik**

Malagako hitzordua alde batera utzita, Shotokanekoak oso pozik geratu dira Bergarako txapelketak emandakoarekin: "Hamar urte pasako ziren azkenekoz Euskadiko Txapelketa etxean antolatu genuenetik, lan handia delako. Edozelan ere, oso pozik geratu gara, gurasoek izugarri lagundu digutelako. Errepikatze modukoa izan da, zalantza barik".



Josean Iñarra entrenatzailea eta Ariane Martin. GOIENA



Aloña Mendiko karatekak Labegaraietan. ALOÑA MENDI



Arrasateko Saioa taldeko karatekak Bergaran. C. SANCHEZ



Karatekak tatami gainean, txapelketaren une batean. HASIER LARREA

## Krakoviara, Munduko Txapelketara

Arrasateko Saioa Karate Taldeko Leire Valor, Aitor Madinabeitia eta Danel Izurrategi Krakovian (Polonia) izango dira asteburuan, Munduko Kyokushin Txapelketan. "Karatearen adar bat da kyokunshina, baina borrokaldietan kontaktu fisikoa onartuago dago; alegia, borrokaldiak gogorragoak dira", adierazi du Carlos Sanchez entrenatzaileak. Hirurendako debuta izango da mundu mailako txapelketan, nahiz eta Europakoan baduten esperientzia. Izurrategi kadete mailan lehiatuko da, Madinabeitia 21 urtez azpikoetan eta Valor senior mailan. Hor, borrokaldiak KO-ra erabaki daitezke.



Izurrategi, Valor eta Madinabeitia. SAIOA KARATE TALDEA

# El Molinon, antzuolar baten bihotzean berriro

**FUTBOLA** Peru Rodriguezek Xabi Alonsoren aginduetara debuta egin zuen zapatuan Sanserekin Gijonen (0-1). Antzuolako atzelariak hasierako hamaikakoan jokatu zuen partidua. "Peruk partidutzarra egin du", adierazi zuen Alonsok partidu ostean

**Xabier Urzelai** ARRASATE

Realzale askorendako moduan, Peru Rodriguez Larrearendako (Antzuola, 2002) ere El Molinongo futbol zelaia betirako izango da berezia. Motiboak ez dira berdinak, noski. Dagoeneko urte batzuk dituzten zale txuri-urdinei, 1981ean Gijongo Sportingen berdegunean gertatutakoa etorriko zaie gogora, Zamorak egindako golari esker Realak lehenengo liga irabazi zueneko. Antzuolako defentsa gazteari (19 urte) hainbatetan kontatuko zizkioten orduko kontuak. 2000ko belaunaldikoa da Rodriguez; pentsa, herrian oraindik futbol eskola sortu gabe zuten, eta Realeko harrobien kategoriak igotzen hasi aurretik Bergarako futbol taldean jokatu zuen.

Hala ere, antzuolarrarendako beste motibo batengatik bilakatu da El Molinon zelai kuttun. Zapatuan, Xabi Alonsoren aginduetara Realaren bigarren taldearekin debuta egin ahal izan zuen, eta talde txuri-urdinak lortutako garaipenean (0-1) hasieratik jokatu zuen.

**Alonso: "Partidutzarra egin du"**

Norgehiagoka amaieran, Xabi Alonso entrenatzaileak taldeak egindako lana baloratu zuen. "Taldea oso ona izan dugu aurrean, eta puntu beharrean zeuden. Jakinekoa zen estutu egingo gintuztela, baina talde moduan jokatu dugu, eta horrek pozten nau. Hori da gehien baloratzen dudana gauzetako bat, batzuetan emaitza onekin, beste batzuetan ez horren onekin, baina talde moduan jokatzeko saiatzen gara beti. Indarrak oso parean daude hemen, eta gu kategorian honetara moldatzen ari gara", adierazi zuen Alonsok, eta Peru Rodriguezen gainean egin zuen berba: "Perurendako debut eguna izan da, eta partidutzarra egin du".



Peru Rodriguez Larrañaga, bizkarrez, Sangalli aurrean duela. LA LIGA SMARTBANK

## "Pozik nago debutarekin; taldeak puntuak behar zituen, gainera"


**PERU RODRIGUEZ LARRAÑAGA** SANSEKO FUTBOL JOKALARIA

Realeko harrobiko jokalariek ez dute baimenduta elkarriketak egitea; ez, behintzat, talde nagusiarekin debuta egiten duten arte. Peru Rodriguezen adierazpen hauek Sportingen kontrako partidu ostekoak dira, Real Sociedad TV kanalarik egindakoak.

**Zer moduz debut partiduan? Halako futbol zelai batean hiru puntuak batzea ez da batere erraza.**

Oso pozik nago; taldeak puntu hauek behar zituen, eta, zuk esan moduan, halako zelai batean irabaztea ez da gauza batere erraza. Zelai oso zaila da El Molinongoa, euren zaleek asko estutzen dute, baina guretako oso garrantzitsua zen hemen hiru puntuak eskuratzea; horrenbestez, ezin da gehiagorik eskatu.

**Izan ere, emaitzei dagokienez, azken**



REAL SOCIEDAD TV

**partiduak ez dira nahi modukoak izan.**

Hori da; puntu beharrean geunden, azken partiduetan ez ditugulako nahi genituen emaitzak batu, baina, nire ustez, egunerokoan taldea oso lan ona egiten dabil, eta seguru nago orain arte lortu ez ditugun puntuak batzen hasiko garela orain. Horrekin batera, pozik nago taldearekin debutatu izanagatik, eta garaipen batekin, gainera. Ezin da gehiagorik eskatu.

## ASTEBURUKO HITZORDUAK

### FUTBOLA

O. ERREGION. GIZ.

**Real Union-Bergara**

Zap. 15:30. Gal.

**Euskald.-Aretxabaleta**

Zap. 16:00. Andoain.

**Mondra-Touring**

Zap. 16:30. Mojategi.

**Aloña M.-Amaikak Bat**

Dom. 16:30. Azkoag.

O. ERREGION. EMAK.

**Oiartzun-Bergara**

Dom. 12:45. Oiartzun.

**Leintz Ariz.-Beti Gazte**

Dom. 15:30. Mojategi.

### ARETO FUTBOLA

MAILA NAZIONALA

**A.Vitoria-Eskoriatza.**

Zap. 18:30. Olanarabe.

**Mondrate-Gora CD**

Zap. 17:00. Musakola.

EUSKADIKO TXAPELKE.

**Aretxabaleta-Albarder.**

Zap. 17:00. Ibarra.

### ESKUBALOIA

EUSKADIKO TXAPELK.

**Erein.-Mugarri Eingou**

Zapatua. 17:00. Erreter.

**Galdako-Fagor Indus.**

Zap. 16:00. Galdakao.

EMAKUMEZ. EUSKADI.

**Cons. Aloña-Jarrilleras**

Zap. 18:00. Zubikoa.

### SASKIBALOIA

EBA

**MU-Santurtzi**

Dom. 18:30. Iturripe.

BIG. MAILA. EMAK.

**Bera Bera-MU**

Zap. 16:00. Donost.

GIPUZKOAKO TXAPELK.

**B.Soraluce-I.de Mitente**

Zap. 16:00. Labegara.

GIP. SENIOR EMAKUME.

**Oiartzun-Bergara Sor.**

Dom. 12:00. Donos.

### PILOTA

GIPUZKOAKO TXAPELK.

**OÑATI**

Egubakoitza. 18:30ean hasita bost partidu.

**ARETXABALETA**

Egubakoitza. 19:00ean hasita hiru partidu. Domekan, 11:00etan hasita bi partidu.

**ARRASATE**

Egubakoitza, 20:15ean hasita partidu bat.

**BERGARA**

Zapatua. 17:45ean hasita bost partidu

**ERRUGBIA**

EUSKADIKO TXAP. GIZ.

**Kanpanzar ART-**

**Bilboko U.**

Zap. 16:00. Mojategi.

SENIOR EMAK.

**Arrasate/Ore-Hernani**

Dom. 12:00. Ordizia.

## **FUTBOLA** Bueltan da Emakumezkoen Gabonetako Torneoa

Arizmendiko lagunek abenduaren 10ean aurkeztuko dute 16. edizioa beteko duen txapelketa. Iaz ezin izan zuten antolatu, baina abenduaren 29an eta 30ean hitzorduari helduko diote ostera ere. Hilaren 29an, kategoria txikietakoko taldeendako txapelketa izango da; eta 30ean, hiruko torneoaren egingo dute elite mailako taldeekin, Ibarra.

## **SASKIBALOIA** Liderra, Santurtzi, etorriko da domekan Iturripera

EBA partidu bakarra galdu du Santurtzik, Getxoren kontra, eta ordutik bizkaitarrek lau partidu irabazi ditu jarraian. Hala, maila horretako kontrarioa izango du MUK domekan Iturripen (18:00). Arrasatekoak bolada onean zeuden -lau garaipen jarraian-, joan den asteburuan Santiagoren kontra 101-88 galdu zuten arte.

## **HOCKEYA** Partiduz betetako jardunaldia bihar Aramaion

Biharko, zapatua, Burdinolakoek zenbait hockey partidu antolatu dituzte, goizeko lehen ordutik hasita: 09:30ean eta 11:30ean, benjaminen eta alebiren partiduak egingo dituzte; 16:00etan, senior emakumezkoek eta gazteek entrenamendua egingo dute; eta 17:30ean, elkarren artean jokatuko dute. Espainiako txapelketa prestatzea da helburua.

## **FUTBOLA** Mondrak eta Aloña Mendik etxean dute hitzordua

Gizonezkoetan, liderra hartuko du Mondrak zapatuan Mojategin, hamar partiduetatik sei irabazi ditu Touring. Eta txanponaren beste aldean dago Aloña Mendi, oñatiarrek azken sailkatu Amaikak Bat -garaipen bakarra- izango dute-eta aurrean. Emakumezkoetan, Leintz Arizmendik laugarren dagoen Beti Gazteren kontra jokatuko du.

# "Gustatzen zait memoria orainetik definitzea"

ITZIAR UGARTE IRIZAR IDAZLEA

Garai bat kontatzeko nahia, oroitzapenak eta deskubrimendu berriak dira, besteak beste, 'Gu gabe ere' liburuan oñatiarrak batu dituen poemen abiapuntua eta gaiak

**Aitziber Aranburuzabala OÑATI**

Estreinako poesia liburua argitaratu du oñatiarrak.

**Zer sentitzen duzu zuk sinatutako lehen liburua eskuetan duzula?**

Hasteko, poz handia; kostatu zait, baina uste dut lortu dudala liburuarekin pozik gelditzea. Edozelan ere, urduritasunak ere irauten dit oraindik; idaztea ez, hitz egitea tokatzen da orain, fokuan egotea apur bat, eta horrek ematen dit erreparoa. Beraz, emozio nahasketa handia, horixe sentitzen dut.

**Hurbileko pertsonen heriotzak idazteko akuilu izan dituzu. Hutsunea betetzeko baliagarria izan zaizu?**

Ez, uste dut bete ezin den hutsune bat dela hori. Hurbileko hiru adineko horien heriotzak oso denbora gutxian gertatu ziren gure etxean, eta niretzat garai intentsua izan zen. Denbora bat atzerrian egotetik nentorren, oso bizi, eta nahiko goitik behera zetorren giro bat topatu nuen etxe inguruan. Horrek oso adi jarri ninduen, ohartzeko nintzelako haiek hiltzearekin batera beste zerbait ere hiltzen zela, eta hori joaten ikusteak biziagotu egin zizkidan galdera batzuk. Erantzunik ez dut topatu, noski, baina gauza horietaz pentsatzen segitzeko modu bat ere izan da garai har-



Itziar Ugarte idazlea eta kazetaria. I. U.



**GU GABE ERE**

- **Idazlea** Itziar Ugarte Irizar.
- **Generoa** Poesia.
- **Argitaletxea** Susa.

tako emozio eta galdera horiek poemetan jasotzea.

**Bestelako gaiak ere badira.**

Kopuruz gehiago dira bestelakoak, bai: lagunarteko momentuak, bestelako giro batzuetatik eratorritakoak, harremanak, 36ko gerra, gure garaiari buruzko intuizioak, momentu txikiak... **Zure mundu ikuskera garatzen ari zarela diozu, denbora eta lekuarekiko kezka handitu egin zaizula gaineratuta. Zelako kezkak?**

Kezka bat bada jakin nahi izatea nola oroitu, zer egin pilatzen goazen jende, leku, uneekin. Zer egin leku batean aurrez gertatu denarekin –izan sukalde bat, kale bat...–, nola eragiten dion horrek gerora horra heltzen denari. Gustatzen zait memoria orainetik definitzen denean, orainean egiten den zerbait delako. Eta, horrekin batera, etorkizunarekiko ziurgabetasuna, konpromisoa eta ardura ere bai: iraganak iragan, orainean egiten dugunak nora garamatzen jakin gura bat, plano askotan, izan intimo zein kolektibo.

**Zelan dago liburua egituratuta?**

Ez dut atalik egin. Egin nuen saiakera bat, baina oso bortxatua gelditzen zen, eta uste dut ez zuela laguntzen. Badira oihartzunak poemen artean, eta atalak eginaz gero horiek apurtze-

ko arriskua ere ikusten nuen. Azkenean, *continuum* bat bezala ordenatu dut, mota ezberdinetako poemak tartekatuz eta, nolabait, orekatzen saiatuz.

**Idazteko prozesua zelakoa izan da?**

Oso su motelean joan da egiten. Hori izan da erritmo iraunkorrena, eta gero etorri da argitaratzea erabaki genuenetik aurrerakoa. Azken tarte horretan gehiago izan da nuen materiala aztertzea, eta liburua nola erai-ki pentsatzea.

**Aholkularirik izan duzu?**

Iñigo Astiz idazle, *Berria*-ko lankide eta lagunarekin poema truke dezente izan dut, esaterako, eta hori opari terriblea bat da; asko hauspotu dit idaztera esertzeko gogoia elkarriketa horrek. Liburuaren editorea Leire Lopez Ziluaga izan da, eta bere begirada eta bere lana ere oso inportanteak izan dira.

**Lehiaketetan sariak irabazi dituzu; ze garrantzi dute sariak?**

Lehiaketek alde onak eta ez hain onak dituzte. Niri, egia esan, balio izan didate idazmahaietan esertzeko: epe bat jartzeko eta testu bat ordurako bukatzeko. Eta hori bai eskertzen diet.

**Kultura kazetaria zara; euskal literatura sormena osasuntsu ikusten?**

Ez dakit osasuntsu dagoen, uste dut jende asko ari dela gauza eder asko egiten.

**Eta zer diozu kontsumoari buruz?**

Uste dut daukagun arazorik handienetako bat dela ezezagutzarena. Euskaldunen —eta ez euskal herritarren— parte oso handi batek ez ditu euskal idazleak apenas ezagutzen. Euskaldunen gehiengoak euskarazko komunikabideetara jotzen ez duen bezala. Askotan, borondate falta dago, baina ez nuke erantzukizun guztia irakurleen esku utziko ere.

## Audience musika taldeak borobilduko du Kooltur azaroa

'Tolesdurak' izeneko disko bikoitza aurkeztuko dute gernikarrek eguenean, 22:00etan

**A. Aranburuzabala ARRASATE**

Arrasateko gaztetxeko eguene-tako musika egitasmoan aurrez izandakoa da 2000. urtean Gernikan sortu zuten Audience taldea. Gaizka Isunsa –gitarra, ahotsa, pianoa, teklatuak eta saxofoia–, Ander Marino –bateria eta perkusioa–, Andoni Lauzirika –baxua–, Ruben Garate –ahotsa, akordeoia, pianoa eta teklatuak– eta Ager Insunsa –ahotsa, gitarra, *pedal steel*-a eta biolina– dira taldekideak.

Folk-rock amerikarra dute oinarri, kantuetan bestelako estiloak uztartzen badituzte ere. "Kaki Arkarazorekin grabatu dute bilduma bikoitz berria eta Bidehuts-en bitartez kaleratu dute. Folk-rock amerikarra bada ere, lehenengo diskoaren hasieran kantu *gitarroago* batzuk ere badaude; gero eta gehiago abesten dute euskaraz, nahiz eta gaztelaniak eta ingelesak ere presentzia apur bat duten kantuetan", dio antolatzaile taldeko Iker Barandiaranek.

Ikasturteari gogotsu ekin zioten Kooltur Ekintzakoek, eta halakoa dela diote musikariek eta publikoak duten jarrera ere: "Kontzertuetarako gogoz ikusten ditugu; hortaz, erantzuna ona ari da izaten".

## ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA BERBAGAI

**GOIENA TELEBISTA, MAHAINGURUA**

AZAROAREN 22AN, ASTELEHENEAN, 21:00ETAN ETA 23:00ETAN

**BABESLEA:**

GARAIA PARKE TEKNOLOGIKOA



DESKARGATU  
GOIENA  
APP BERRIA!

**goiena**  
Zu hemen zaude.





# Ikusle Kluba, euskal antzezlanak zukutzeko

Euskal Herriko Antzerkizale Elkarteak (EHAZE) abiatu berri duen egitasmoarekin, "publikoa antzerkiarekin harremantzeko" bide berriak esploratu gura dituzte, publikoaren hausnarketa kitzikatuta hausnarketarako ikasgaiak lortzeko asmoz

**Aitziber Aranburuzabala** ESKORIATZA EHAZEK proposatutako proiektua da, euskal antzerkigintzaren geografia zabalean lanean ari diren askotariko eragileekin elkarlanean, eta horien artean dago DAP (Debagoieneko Antzerki Plataforma). "Euskarazko antzerki ikusleendako proposamena da, herri askotan dauden irakurketa klubaren antzerako ezaugarriak dituen. Antzezlanak ikusi aurretik elkartuko gara, lanari buruz ditugun aurreiritziak eta bestelakoak partekatuko, eta antzezlanak ikusi ondoren berriz batuko gara, ikusitako lanari zukua ateratzeko. Antzerkia ikusi osteko solasaldi horiek formatu ezberdinetakoak egitea da gure asmoa: aukera dugunean, antzezlaneko protagonistak gonbidatuko ditugu, eta, beste batzuetan, antzokiaren atzeko aldea eta atzeko lanak bertatik bertara ikusteko aukera izaten saiatuko gara", azaldu du DAPeko kide Olatz Pagaldai aktoreak.

## 'Erreminta-kutxa'

Ikusle Klubaren helburu nagusia euskal antzerkigintzaren inguruan gogoeta publikoa bultzatzeko dispositibo berriak garatzea da. "Irakurketa Klube-ko saioetan antzezlanen buruz egindako solasaldi horietatik hausnarketa eta bestelako materiala sortuko da, eta material hori gero eskuragarri izango da ikastetxeetan zein beste hainbat gunetan, askotariko gaiak lantzeko erabili ahal izateko. EHAZEren webgunean izango da sortutako material hori guztiontzako eskuragarri, *Erreminta-kutxa* izenarekin batuta. Euskal Herri osora zabalduko ekimena denez, poliki-poliki guztion artean iritziak eta bestelako hausnarketak bilduta, euskal antzerkigintzari buruzko material mardula eta interesgarria osatuko dugu".



Esnatu naiz kabareta lanaren une bat. ANDONI MUTILOA

## EUSKAL ANTZEZLANEI BURUZKO GOGOETA BULTZATZEA DU HELBURU IKUSLE KLUBA EKIMENAK

Euskarazko antzerki programazioari ikusgarritasuna eta babesa ematea ere bada Ikusle Klubaren helburua. "Euskal antzerkigintzan loratzen ari den aniztasuna ikusgarri egin nahi dugu, eta antzerkigintzaren alor ezberdinetan ari diren partaideen saretzea eta lan egiteko tresnak partekatzea ere bada, beste hainbat helbururen artean".

### Debagoienean, laster bi saio

Tokian toki programatutako antzezlanen artean aukeraketa bat egin eta horiek ikusteko proposamena egingo diete ekimeneko bultzatzaileek ikusleei. "Udalek edo bestelako erakunde eta eragileek antolatutako emanaldiak aintzat hartuta, oraingoz, bi proposamen egingo ditugu: abenduaren 3an, Oñatiko Santa Ana aretoan Formol taldearen *Album* lana izango da; eta aben-

duaren 4an, Bergarako Seminari-oxoan Andoni Mutiloak *Esnatu naiz kabareta* eskainiko du".

Aztertu edo zukutu nahi den antzezlanen aukeraketa hori egiteko askotariko irizpideak hartuko dituztela kontuan dio Pagaldai: "Biek ala biek pil-pilean dauden gaiak jorratzen dituzte: *Album*-ek nerabezeroaz dihardu, gazteek gizarteari buruz duten jarrera erakusten du; eta nortasuna, generoa eta sexu-joerak ditu oinarri Mutiloaren kabaretak. Gidari lanetan ari garenok –bailaran DAPeko kideak– ez ditugu antzezlan guztiak aurrez ikusita, eta ez da txarra hori, gu geu ere ikusle xumearen rolean izango garelako".

### Izen-ematea, DAPen

Ikusle Klubean parte hartzeko ez dute profil zehatzik eskatzen edo mugatzen. "Ez da antzerkia aditua izan behar, antzerkia gustukoa izatea nahikoa da. Antzokira joateko lagunak aurkituko dituzue bertan. Ikusle Klubean parte hartu gura baduzue, edo informazioa eskatzeko, idatzi [dantzerkiplat@gmail.com](mailto:dantzerkiplat@gmail.com) helbidera".

## Goienakideen txokoa

### Azaroko sariak!

#### Errigorako saskia

Parte hartzeko sariaren izena: Saskia



#### Sarrerak

Arrikrutz kobak bisitatzeko, sarrerak. Parte hartzeko sariaren izena: Arrikrutz

#### Otarrea

Bidezko merkataritzako produktuak. Parte hartzeko sariaren izena: Otarrea

#### PARTE HARTZEKO:

Posta elektronikoa: [goienakide@goiena.eus](mailto:goienakide@goiena.eus) Whatsupp: GOIENAKIDE

"Zuhartzak / Koko" [bakidearen zenbakia] 688 59 00 07 zenbakia

"goiena app"-a / zozketa atalean. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa. Irabazle dagoen 1.070.157.0000 legezaren arabera, gure webgunean dagoen zozketaren bidez aukeratu behar da. Datu bilera horien helburua da irabazle dagoen pertsona gure txokora eraman behar duen saria. Lehiaketa irabazlearen izena irabazlearen izena izango da. Irabazlearen izena irabazlearen izena izango da. Irabazlearen izena irabazlearen izena izango da.

### Irabazi bi lagunendako sarrerak

#### Arrasateko Udaleri esker

"Zuhartzak landatzen zituen gizona"

haur antzerkireko sarrerak ditugu

Arrasate | Amaia antzokia | Azaroak 27 | 17:00

#### Blues Hotsak Festivalaren antolatzaileei esker

"Koko-Jean & The Tonics" kontzerturako sarrerak ditugu

Soraluze | Herriko Antzokia | Azaroak 27 | 20:00

#### PARTE HARTZEKO:

E-postaz: [goienakide@goiena.eus](mailto:goienakide@goiena.eus) WhatsApp: GOIENAKIDE

"Zuhartzak / Koko" [bakidearen zenbakia] 688 59 00 07 zenbakia

"goiena app"-a / zozketa atalean. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa. Irabazle dagoen 1.070.157.0000 legezaren arabera, gure webgunean dagoen zozketaren bidez aukeratu behar da. Datu bilera horien helburua da irabazle dagoen pertsona gure txokora eraman behar duen saria. Lehiaketa irabazlearen izena irabazlearen izena izango da. Irabazlearen izena irabazlearen izena izango da.

### Irabazi bi lagunendako otordua

#### TABERNA BERRI JATETXEARI ESKER

Begiratu Puntua aldizkari Otorduan atala eta hartu parte!

Parte hartzeko azken eguna: azaroak 23



943 25 05 05



[goienakide@goiena.eus](mailto:goienakide@goiena.eus)



"Goiena app"-a / zozketa atalean.



GOIENAKIDE Jatekoa

[bakidearen zenbakia] 688 59 00 07 zenbakia.



Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartel digitalaren abantailaz gozatzeko...



BAZKIDETZA KUOTA: 15€  
Deitu: 943 25 05 05 • [goienakide@goiena.eus](mailto:goienakide@goiena.eus)



DESKARGA TU GOIENA APP BERRIA!

goiena  
kide

Okm: batzen gaituen distantzia.

## IRAGARKI SAILKATUAK

## 1. ETXEBIZITZAK

## 102. EROSI

**Oñati.** Oñatin etxea errentan hartzeko prest, erosteko aukerarekin. San Lorenzo, Olakua, Errekalde edo erdialdean. Beste auzoetan baloratu nuke. 679 62 69 64 edo jontxu2009@hotmail.com

## 104. ERRENTAN HARTU

**Bergara.** Bergarako neska errentan hartzeko etxebizitza bila. Urgentea da. 690 75 61 18

**Bergara.** Erdialdean kokatutako etxebizitza baten bila nabil. 666 07 42 98

**Bergara.** Kaixo, Bergarako neska gazte euskalduna naiz eta etxebizitza txiki baten bila nabil. Edozer gauza dela eta, jarri nirekin harremanetan. Eskerrik asko. Ane. 684 14 95 54

**Oñati.** 34 urteko langilea, Oñatin denbora luzerako etxebizitza bila. Arduratsua eta aurretik hainbat denboraz alokairuan egondakoa. 658 86 98 38

## 105. Etxeak osatu

**Arrasate.** Errentan hartzeko logela baten bila ari naiz. 648 00 86 55

## 2. GARAJEAK

## 204. ERRENTAN HARTU

**Arrasate.** Urbe auzoan edo Polo Garaia inguruan garaje bat hartuko nuke errentan. 619 68 39 14

**Bergara.** Zabalotegi, Burdinate, Espoioa edo Ibargarai aldean, garajea hartuko genuke errentan. Telefonoak: 656 70 13 72 edo 650 74 55 91

## 3. LOKALAK

## 304. ERRENTAN HARTU

**Aretxabaleta.** Errentan hartzeko lokal baten bila nabil, dagoeneko finkatutako eliza kristau baterako. 627 79 28 99

## 4. LANA

## 401. ESKAINTZAK

**Debagoiena.** Adineko pertsonekin lan egiteko soziosanitario titulua duen neska behar dugu. Telefonua: 660 46 34 93

## 402. ESKAERAK

**Arrasate eta Bergara.** Pertsona nagusiei eguneroko jardueretan laguntzeko prest nago; paseatu, erosketak egin, zaindu eta abar. Eskarmentu handia daukat. Telefonua: 615 40 61 66

**Arrasate.** Garbiketa lanak egingo nituzke goizetan. 602 68 40 89

**Arrasate.** Legezko agiriak eta esperientzia handia duen emakumea zaintza lanetarako gertu. Etxean bertan bizi izaten, asteburuetan edota etxean gau solteak egiten. Telefonua: 632 48 38 91

**Bergara.** Esperientzia duen neska gertu pertsona nagusiak zaintzeko, ebeko garbiketarako egiteko edota zerbitzari moduan. Lanerako baimen agiriarekin. 685 10 01 85

**Debagoiena.** Astean zehar edo asteburuetan emakumea prest umeak edo helduak zaindu edo garbiketa lanak egiteko. 631 75 03 97

**Debagoiena.** Emakumea ebekarako lanetarako prest. Titulu soziosanitarioa eta papela dituena. Esperientzia eta erreferentzia handiduna. 643 73 62 83

**Debagoiena.** Erizain laguntzaile gertu orduka garbiketarako edota zaintza lanak egiteko. Telefonua: 620 23 58 15

**Debagoiena.** Esperientzia eta titulazioa daukan neska nagusiak etxean zaintzeko gertu. Sukaldari edo sukalde laguntzaile moduan ere lan egingo nuke. 688 72 88 97

**Debagoiena.** Esperientzia handia duen mutila nagusiak zaintzeko edota etxe, atari, lantegi eta abar garbitzeko gertu. Baita zerbitzari lanetarako ere. Orduka edo etxean bertan bizi izaten. Autoarekin. 638 85 43 36

**Debagoiena.** Esperientzia handia duen neska nagusiak zaintzeko edota etxe, atari, lantegi eta abar garbitzeko gertu. Baita zerbitzari lanetarako ere. Orduka edo etxean bertan bizi izaten. Autoarekin. 631 98 39 36

**Debagoiena.** Nagusiak eta umeak zaintzeko gertu nago, orduka. Ordutegi arazo barik. Interesatutakoak: 677 14 64 29

**Debagoiena.** Neska gaztea lan bila, pertsona nagusiak edota haurrak zaintzeko eta baita garbiketarako ere. Arrasaldez eta astebukaerarako. 698 91 18 63

**Debagoiena.** Neska gertu nagusiak eta umeak zaintzeko, ospitalean gauak egiteko zein garbiketa lanetarako. Orduka eta asteburuetan ere bai. 662 54 79 50

**Debagoiena.** Nikaragua 33 urteko mutila lanerako gertu. Nagusiak zaintzen, eraikuntza laguntzaile edo sukalde laguntzaile moduan. Telefonua: 687 35 06 37

**Debagoiena.** Orduka lan egingo nuke garbiketarako edota nagusiak zaintzen. Baita gaurtan ere. Soziosanitario titulazioa eta autoa daukat. Telefonua: 631 48 33 08 (Raquel)

**Debagoiena.** Pertsonak zaintzeko edota ebeko lan eta garbiketarako gertu nago. Deitu 641 51 13 06 zenbakira

**Debagoiena.** Neska arduratsua nagusiak zaintzeko gertu. Etxean bertan bizi izaten, egunean zehar edota orduka. Telefonua: 677 14 64 29

**Debagoiena.** Neska arduratsua nagusiak zaintzeko gertu. Etxean bertan bizi izaten, egunean zehar edota orduka. Telefonua: 677 14 64 29

**Debagoiena.** Neska arduratsua nagusiak zaintzeko gertu. Etxean bertan bizi izaten, egunean zehar edota orduka. Telefonua: 677 14 64 29

**Debagoiena.** Neska arduratsua nagusiak zaintzeko gertu. Etxean bertan bizi izaten, egunean zehar edota orduka. Telefonua: 677 14 64 29

**Debagoiena.** Neska arduratsua nagusiak zaintzeko gertu. Etxean bertan bizi izaten, egunean zehar edota orduka. Telefonua: 677 14 64 29

**Debagoiena.** Neska arduratsua nagusiak zaintzeko gertu. Etxean bertan bizi izaten, egunean zehar edota orduka. Telefonua: 677 14 64 29

**Debagoiena.** Neska arduratsua nagusiak zaintzeko gertu. Etxean bertan bizi izaten, egunean zehar edota orduka. Telefonua: 677 14 64 29

**Debagoiena.** Neska arduratsua nagusiak zaintzeko gertu. Etxean bertan bizi izaten, egunean zehar edota orduka. Telefonua: 677 14 64 29

**Debagoiena.** Neska arduratsua nagusiak zaintzeko gertu. Etxean bertan bizi izaten, egunean zehar edota orduka. Telefonua: 677 14 64 29

**Debagoiena.** Neska arduratsua nagusiak zaintzeko gertu. Etxean bertan bizi izaten, egunean zehar edota orduka. Telefonua: 677 14 64 29

**Debagoiena.** Neska arduratsua nagusiak zaintzeko gertu. Etxean bertan bizi izaten, egunean zehar edota orduka. Telefonua: 677 14 64 29

**Debagoiena.** Neska arduratsua nagusiak zaintzeko gertu. Etxean bertan bizi izaten, egunean zehar edota orduka. Telefonua: 677 14 64 29

**Debagoiena.** Neska arduratsua nagusiak zaintzeko gertu. Etxean bertan bizi izaten, egunean zehar edota orduka. Telefonua: 677 14 64 29

**Debagoiena.** Neska arduratsua nagusiak zaintzeko gertu. Etxean bertan bizi izaten, egunean zehar edota orduka. Telefonua: 677 14 64 29

**Debagoiena.** Esperientzia handia eta soziosanitario titulazioa daukan emakumea, baserriaren baten gertu. Autoarekin. Astean zehar, eta gauren bat egiteko aukerarekin. Telefonua: 637 52 89 83

**Debagoiena.** Etxean bertan bizi izaten lan egin nahi dut. Soziosanitario titulazioa daukat. Telefonua: 632 87 98 63

**Debagoiena.** Garbiketarako gertu nago, etxean orduka eta baita hoteletan ere. Zerbitzari lanetan ere bai. Legezko agiriak daukat. Telefonua: 615 94 16 44

